ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2009ko azaroaren 9a > Astelehena > VII. urtea > 253. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net

"Errealitate berrien aurrean nazioen arteko kooperazioa areagotu egin behar da"
**Daniel Innerarity** Filosofoa > 08



**G2a** Bide Ertzeanen pop-rock dotorea Zabalotegin > 30

**IKASLE EGUNA** Euskal eskola nazionalaren aldeko ekimen ugari, Arrasaten > 12

**BERGARA** Seminarioaren eta Arrizuriagaren arteko trukea, hilabete baten > 17

**ARAMAIO** Udala kezkatuta dago eguneko zentroa atzeratuta dagoelako > 20



**LASTERKETA POPULARRA** Milaka herritarrek esku hartu zuten lasterketa popularrenetakoan, eguraldi eskasari aurre eginez. JOSETXO ARANTZABAL

**LASTERKETA** > MARATOI ERDIA

# Oztopoak oztopo, ibarreko 439 lasterkari Behobia-Donostian

**IRABAZLEAK** Rafa Iglesias (1:01:16) eta Maria Jesus Pueyo (1:12:15) izan ziren irabazleak 45. edizioan

**EKAITZ OSA** Oñatiarra izan da ibarreko azkarrena (1:08:14); eta emakumea, Bergarako Josune Garitano (1:24:36)

**SAILKAPENA** Debagoieneko parte-hartzaile guztien zerrenda eta denborak jaso ditugu > 21-24

**BERTSOAK** > TXAPELKETA

## Puntako bertso jaia Bergaran

Labegaraieta gainezka egon zen zapatuan Bertso Txapelketako finalerdian. Maialen Lujanbiok eta Beñat Gaztelumendik lortu zuten disdira handiena. > 29-30

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

**ONDAREA** > ARANTZAZU

## Arantzazu indartzeko deialdia

Atzo, domeka, I. Arantzazu Eguna ospatu zuten. Ekitaldi deigarriena orain dela 25 urte Nestor Basterretxeak margotutako kriptaren berrinaugurazioa izan zen. Erakunde askotako ordezkariek esku hartu zuten. > 05



Basterretxea muralaren aurrean. I.B.

**HEZKUNTZA** > UNED

## Ikasle kopurua bikoiztuta

Egubakoitzean UNEDen ikasturtearen hasierako ekitaldia egin zuten > 11



Zira opari. Nahi?

Zoaz 7. orrialdera




# Gaur egungo hiru Eskolania onenetakoen bi kontzertu bakarrik

## Easo Eskolania
## Escorial Eskolania
## Montserrat Eskolania

2009-11-12, ostirala
20:00etan, Kursaal Auditorioa

2009-11-14, larunbata
12:00etan, Arantzazuko Basilika

**SARRERAK SALGAI:**

kutxa
CAJEROS SERVIKUTXA
943 00 12 00
www.kutxa.net

**SARREREN PREZIOA:**

**KURSAAL:** 10 - 25 €
**ARANTZAZU:** 15 €

Babeslea:
kutxa

Laguntzailea:
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
OÑATIKO UDALA
SAN SEBASTIAN DONOSTIA 2016

Antolatzailea:
IPD MANAGEMENT

Komunikabide kolaboratzaileak:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
etb

**AZPIEGITURAK** > MUGIKORTASUNA

# Aparkaleku baino auto gehiago ibarreko gidari askoren arazoa

**KOPURUA** Aretxabaletan eta Bergaran paretsu daude autoen eta aparkalekuen kopuruak, garajeak kontuan hartuta; Arrasaten diferentzia handia da

**LUR AZPIKOAK** Oñatin Kalegoienan eta Kiroldegian daude lur azpiko aparkalekuak; Bergaran, Ibargarain eta Arrasaten Biterin eta Laubiden

**TAO** Arrasaten ez dute aparkaleku berririk egiteko asmorik, oraingoz, baina unibertsitate eta ospitale inguruan TAO sistema ipintzea aztertzen dabiltza

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Astelehen goiza, bozina hotsa, aurpegi ilunak... lanerako gogo gutxi eta aparkaleku bila hasteko are gutxiago. Lan egin ostean, etxera bueltan arazo bera; aparkatzea arazo da-eta gureko herri gehienetan. Toki gutxi eta auto asko.

Aretxabaletan, iaz 2.009 aparkaleku zeuden eta 1.258 garaje; eta aurtengo ibilgailuen erroldan 3.502 auto daude erregistratuta.

Arrasateko udaltzain buruak esan digunez, "Arrasaten, 12.500 auto daude eta ongi aparkatuta 6.000 autorendako tokia dago".

Bergaran, 2007an egin zuten mugikortasun azterketa eta gauez auto kontaketa eginda 45 aparkaleku zeuden libre. Erdigunean dago auto okupazio handiena hango bizilagunek hartzen dute aparkalekuen %48, herriko beste gune batzuetakoek %26 eta kanpokoek %26. "Herritarrek denbora tarte laburrerako erabiltzen dituzte aparkalekuak; kanpokoek, batez beste hiru ordu eta erdirako", esan digu Udaleko ingurumen teknikari Naiara Corcuerak.

### LUR AZPIAN ETA KANPOAN

Garajerik ez dutenek kanpoan edo lur azpiko aparkalekuetan utzi behar izaten dituzte autoak.

Oñatin, lur azpiko bi aparkaleku daude Kalegoienakoa eta Kiroldegikoa. Kiroldegiko aparkalekuan 12 plaza itxita daude, gainontzekoak 100 inguru, irekiak dira. Kalegoienakoan 80 inguru dira txandakakoak, eta beste 120 saldutakoak. Aparkaleku horietan lehen ordu erdia doanekoa da eta gero txartela ordaindu behar da. Baina, orain dela gutxi abian jarri da alokatzeko aukera. Bederatzietatik bederatzietara goizez edo gauez aparkatuta izateak 52 euroko kostua du hilean eta egun osoz edukitzeak 90 eurokoa.

Horietaz gain, plaza ondoan, 80 auto ingururendako aparkalekua dago; zapatu eguerditik hasi eta domeka gauera bitartean Olaitturrin dagoen jolastokia erabiltzen da aparkaleku moduan. Beste aparkaleku bat zegoen Ibarran, baina ETEOko fakultate berriko lanak direla-eta aukera hori itxita dago. Datorren urtean amaitu eta urbanizazioa abian jarritakoan beste 120 aparkaleku berri egongo dira. Osasun zentroan dago beste aparkaleku bat 40 autorendako-edo osasun zentrokoekin hitzartuta egindakoa.




Bergaran, aste bukaeretan, Seminarioko jolastokia aparkaleku moduan erabiltzen dute. MAIDER ARREGI

### ZERRAJERAN EZ

Aretxabaletan aparkatzeko gune nagusiak industria gunean daude; batean 293 autorendako lekua dago eta 191rendako bestean; Loramendi eta Nafarroa kaleetan 158 autorendako; Markolen 127rendako; Mitarten 109rendako; eta San Migelen 135rendako.

Arrasaten, Laubideko eta Biteriko lur azpiko aparkalekuak daude; Laubidekoa oraingoz ez da erabiltzen; Biterin, lehen solairua txandakakoa da, bigarrenean toki guztiak salduta daude eta hirugarrenean oraindik badira batzuk saltzeko. "Arrasaten, Zerrajera inguruan, 400 autorendako aparkalekua zegoen, zoru eskasa zuena, baina espazioz handia. Etxe berriak egin direnez eta inguru hura egokitu aparkaleku hori barik geratu gara. Garaia Poloan badago aparkalekua, baita Markuleten ere, baina han langileek baino ez dute aparkatzen. Jendeak ez du herritik kanpora aparkatzen, goazen tokira ate parera joatea gustatzen zaigu", dio udaltzain buruak.

### ARAZOAK ETA IRTENBIDEAK

Oñatiko hirigintza zinegotzi Angel Biainek Errekalden salbu ez du aparkatzeko arazorik ikusten herrian: "Aztertzen dihardugu Errekalden aparkalekuren bat egiteko aukera. Lurpeko aparkalekua ezin da egin azpian erreka dagoelako. Torrealdearantza beste gune bat egitea da asmoa, baina oso garestia da. Datorren urtean helduko diogu gaiari".

Aretxabaletan pare bat azterketa egin ziren baina bi proiektuak atzera bota zituzten. Hirigintzako aparejadore Jose Mari Segoviak azaldu digunez, "Herriko plazakoa atzera botatzeko arrazoietako bat izan zen Durana kalean autoak atzera-aurrera ibiltzea suposatuko lukeela; bestea, plaza inguruko etxeen zimendua kaltetzeko arriskua. Maria Worth plaza, berriz, espazio txikia da eta aparkalekua egiteak kostu handia izango luke. Orain, aztertzen ari gara geltoki plazan lur azpiko aparkaleku bat egitea".

Ez dute oraingoz aparkaleku berririk egiteko asmorik Arrasaten, baina udaltzain buruak esan digu unibertsitate eta ospitale inguruan TAO ipintzeko aukera aztertzen dihardutela, baina kostu handia izango lukeela.

Bergaran, Mugertzako eta Ozaetako aparkalekuak konpondu dituzte eta Martokon aparkalekuak egiteko proiektua esleitu dute. Bestalde, "azkartu nahi dugu seminario azpian lurpeko aparkalekua egiteko asmoa, izan ere, gestioak hasita daude", esan digu Agurne Barruso alkateak.

Alkatearen eta ingurumen teknikariaren esanetan, "aparkaleku berriak egitea bakarrik ez da arazoari irtenbidea emateko modua. Bultzatu behar da jendea oinez, bizikletaz edo garraio publikoan ibiltzea".

Autoa hartzen dugun bakoitzean aparkatzea bada gure buruhauste handiena, orduan pentsatuko dugu bide horiek hartzea.

## Aparkalekua eskuratuz gero, 1.500 euro opari

Biteri eta Laubideko aparkalekuen salmenta bultzatzeko kanpaina berezia ipini zuten abian eta indarrean da oraindik. Aparkaleku bat eskuratzen duenari 1.500 euro oparituko dizkiote, Ibai Arte merkatarien elkarteko saltokietan gastatzeko. Udalak, Arrasateko lur azpiko aparkalekuen kontzesioa duen Bikani enpresak eta Ibai Arte elkarteak elkarlanean landutako ekimena da. Lur azpiko aparkalekuetan guztira, 597 aparkaleku daude, 432 Biterin eta 165 Laubiden; Biterikoen artean, 150 dira txandaka erabiltzekoak.



Biteriko lur azpiko aparkalekua. GOIENKARIA


Auto berriak erosteko laguntzek urtea amaitu arte iraungo dute. GOIENKARIA

**EKONOMIA** > AUTOMOBILGINTZA

# Euskadi 2000E plana luzatuko dute, bi milioi jarriz

Maiatzean abian jarritako ekimena arrakastatsua izan da eta hortaz, 500 euroko laguntza urtea amaitu bitartean mantenduko dute

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Jaurlaritzak automobilgintza sektorea laguntzekoa den Euskadi 2009E Plana urte amaiera arte luzatzea erabaki du. Horretarako, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailak, SPRIren bidez, beste bi milioi jarriko ditu.

Planak aurreikusten du 10 urtetik gorako ibilgailuak berriengatik ordezkatzen dituztenei 500 euroko laguntza ematea. Erabilitako ibilgailuen kasuan antzinatasunak 12 urtekoa izan beharko du. Horrekin batera, erositako ibilgailuak gehienez 30.000 euro balio beharko duela zehazten du planak.

Jaurlaritzak emandako 500 euro horiei, Espainiako Gobernuaren 500 euro eta fabrikatzaileen beste 1.000 euro gehitu behar zaizkie. Hortaz, urte amaiera arte ibilgailu berria erosten dutenek 2.000 euroko laguntza jasoko dute aipatutako baldintzak betetzen badituzte.

Maiatzean Euskadi 2000E plana sortu aurretik, ibilgailuen matrikulazioen erritmoa egoera txarrean zegoen. 2008ko urritik eta 2009ko maiatzera bitartean, matrikulazioek %45 egin zuten behera. Sektorea berpizteko, maiatzaren 18an, esandako plana jarri zuten martxan, 5 milioi euroko aurrekontua zuela.

**PLAN ARRAKASTATSUA**

Ekimena arrakastatsua izan da; urriaren 8rako, bideratutako partida agortuta zegoen-eta. Ibilgailuen erosketak asko igo dira maiatzetik urrira bitartean: Euskal Autonomi Erkidegoan 23.543 auto matrikulatu ziren eta joan den urtean, epe berdinean, 21.102.

**EKONOMIA** > MONDRAGON KORPORAZIOA

## Gaztempresak 230 negozio sortu ditu aurten

Euskadiko Kutxako fundazioak 'www.gaztempresa' sare soziala sortu du

**M.B.** > BERGARA

Gaztempresak 230 enpresa eta 330 enplegu berri sortu ditu aurten. Urtarriletik azarora bitartean, 830 eskaera berri jaso ditu; joan zen urteko bikoitza. Guztira, Euskadiko Kutxako proiektu sozialak 5,5 milioi euro bideratu ditu enpresak martxan jartzeko.

Bestalde, Gaztempresak *www.gaztempresa.com* sare soziala jarri du martxan. Horren helburua da kontaktuak ezartzeko plataforma moduan jardutea, dagoeneko martxan dauden enpresekin zein oraindik sortzeko daudenekin, ere bai, guztiekin.

**2.000 ENPRESA**

Gaztempresa orain dela 15 urte sortu zen gazte ekintzaileen ideiei sostengua emateko. Handik zortzi urtera, Fundazio statusa lortu zuen eta Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila eta Mondragon korporazioaren kolaborazioari esker, bere jarduerari bultzada berria eman zion. Ordutik hona, 2.000 enpresatik gora eta 4.000 bat enplegu sortzen lagundu du.

**INGURUMENA** > ETXEAN KONPOSTA EGITEA

## Edukiontziak eskuratzeko epea astebete luzatu dute

Interesa dutenek Debagoieneko Mankomunitatera deitu behar dute

**M.B.** > ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak etxean konposta egiteko kanpainaren epea astebete luzatzea erabaki du, oraindik hainbat konpostagailu geratzen zaizkio-eta eskatu barik. Hala, azaroaren 13ra arte egongo da konpostagailuak eskatzeko aukera Mankomunitatearen telefono zenbakian (943 79 33 99) honako ordutegian: 08:30etik 12:00etara.

Mankomunitateak urriaren 26an jarri zuen etxeko konposta egiteko laugarren kanpaina martxan. Guztira, 200 edukiontzi banatuko dituzte doan. Horien diseinua berria bada ere, edukiera ez da aldatu: 400 litrokoa da konpostagailu bakoitza.

**IKASTAROA**

Edukiontzia eskatzeko derrigorrezkoa da etxean loretegia edo baratza izatea. Izena ematen dutenek, gainera, ordu eta erdiko ikastaroa egin beharko dute; konposta nola egin erakutsiko duena. Azaroaren 18tik abenduaren 3ra egingo dira Debagoieneko hainbat herritan ikastaro horiek.


Bergarako kultura etxean egindako saioa praktikoa izan zen. M.B.

**GAZTEAK** > G+20/GAZTEAK 500

# Bergaran Gipuzkoaren egungo egoeraren diagnosia egin dute

Joan den egubakoitzean, 19 eta 24 urte bitarteko hamabi gazte bildu ziren kultura etxean, etorkizunean, herrialdearen norabidea zehazteko

**M.B.** > BERGARA

Elhuyar Aholkularitza enpresako teknikariek gidatuta, egubakoitzean, Bergarako kultura etxean Gipuzkoako Foru Aldundiaren G+20/Gazteak 500 proiektuko lehen saioa egin zuten. Bilkura horretan gazteek Gipuzkoan nola bizi nahi duten aztertu zuten, eta hori lortzeko bideak proposatu. Guztira, 19 eta 24 urte bitarteko hamabi debagoiendar bildu ziren han.

Herritarrek Gipuzkoa 20 urte barru nola irudikatzen duten jakin nahi du Gipuzkoako Diputazioak, horren arabera epe luzeko estrategiak adosteko. Horretarako, hainbat eskualdeetan G+20 proiektua jarri du abian eta hainbat alorretako eragileekin elkarlanean ari da; tartean, gazteekin. Azken horiek etorkizunean herrialdearen norabidea zehazteko ardura izan dutenak dira.

**BIGARREN SAIOA, HILAREN 20AN**

Horren harira, G+20/Gazteak 500 azpi-proiektua sortu du. Horren gaineko lehen saioa, esan bezala, egubakoitzean egin zuten; eta bigarrena, azaroaren 20an izango da, 18:00etatik 20:00etara, Bergarako kultura etxean. Prozesua amaitzean, eskualde guztietako emaitzak argitaratuko dira.

**ONDAREA** > ARANTZAZU

# Basterretxearen adiskidetzeak irudikatu du I. Arantzazu Eguna

Arantzazuren aldeko kanpainaren barruan, Basterretxeak margotutako kripta berritu dute eta artista eta fraideen artekoa konpondu da



Hainbat erakundetako ordezkariak, Nestor Basterretxearekin. IKER BARANDIARAN



Nestor Basterretxeak kriptako margolanen gainean berba egin zuen. I.B.

**IKER BARANDIARAN** > OÑATI

Arantzazu jendeartearengana gerturatzeko I. Arantzazu Eguna egin zuten atzo, domeka. Horren barruan, ekitaldi nagusiena izan zen kriptaren berrinaugurazioa. Hala, Nestor Basterretxeak kriptan hainbat margolan egin zitueneko 25. urteurrenean gune hori berritu egin dute; eta atzo erakutsi zuten jende aurrean.

Ekitaldian, Nestor Basterretxeaz gain, Jaurlaritzako Kultura sailburu Blanca Urgell, Foru Aldundiko Kultura sailburu Maria Jesus Aranburu, Arantzazuko Adiskideak elkarteko presidente Joxe Mari Arregi, Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga eta Kutxako ordezkari Mikel Irizarrek esku hartu zuten.

**BASTERRETXEARI BARKAMENAK**

Guztiek Basterretxeak egindako lana eta Arantzazuk euskaldunendako daukan garrantzia nabarmendu zuten. Eta ez hori bakarrik, Arregik eta Urgellek Basterretxeari "barkamenak" eskatu zizkioten haren lana "hobeto zaindu edo erakutsi" ez izanagatik.

Artistak, berriz, azaldu zuen ika-mikak konponduta daudela eta gustatu zaiola kriptaren berriztea. Are gehiago, azaldu zuen "gaurkoa nire bizitzako egun garrantzitsuenetakoa" dela.

**ARANTZAZU INDARTU**

Basterretxearen eta fraideen arteko adiskidetzeak beste ezerk baino hobeto irudikatzen du Arantzazu zaintzeko eta hobetzeko indartzen dabiltzan bazkide eta laguntzaile kanpaina.

etxeko leihotik



**Ubane Madera** > 'arrasate@goiena.com'

## 'Babes' ofizialeko etxebizitzen gainekoa

Plazentziako babes ofizialeko etxebizitzen gainekoak kontatu behar dizkizuet gaurko honetan. Herritarrei laguntzeko baino gehiago, espekulaziorako erabili gura dituztela dirudielako. Bai, behintzat, errentan emango dituzten etxebizitzak. Eta seguru antzerako kasuak ere ezagutuko dituela norbaitek.

Diru kontuak esanda argituko dut nire baieztapena: 1.000 euro pasatxoko langabezia kobratzen dihardduen gazte batek 445 euro ordaindu beharko ditu *babes* ofizialeko etxebizitza batengatik: 376 euro errentarengatik, gehi beste 69 euro hilero komunitate gastuengatik (ondoko etxeko komunitatean ordaintzen dutenean 100 euro sei hilero). Beraz, 555 euro ziztrin izango ditu argindar, urak, janak eta abar luze horiek ordaintzeko. Hasteko, babes eskasa, beraz, gazte horrek eskuratu duena Jaurlaritzaren etxebizitzaren kontura.

**"Jaurlaritzako etxebizitza bat errentan hartzea kosta daiteke 821 euro hilero"**

Baina adi. Ze etxebizitza hori pertsona bakarrari tokatu zaion arren, aukera ematen diote, nahi izanez gero, lagun batekin konpartitzeko. Hori bai, lagun horrek errenta bere kabuz ordaindu beharko luke. Hau da, beste 376 euro aparte ordaindu beharko lituzke. Batuketa eginda, Jaurlaritzari ez zaio kolore gorririk ateratzen babes ofizialeko etxebizitza batengatik hilero 821 euro eskatzeagatik. Eta ez gaude Donostia edo Paris batean ez, Plazentzian baizik!

**> Atariko gastuak**
**ezarri ditu Jaurlaritzak babes ofizialeko etxebizitzetan: errentako etxebizitzetan 69 euro hilero eta erostekoetan, berriz, 75 euro; ondoan dagoen etxean, adibidez, 100 euro ordaintzen dute sei hilean behin.**

**> Errenta handiegia**
**ere eskatzen du Eusko Jaurlaritzak, kontuan hartzen badugu Arrasateko babes ofizialeko etxebizitzen errentarengatik (Plazentziakoaren ezaugarri antzerakoak dituenak) 400-500 euro artean ordaintzen dutela.**

**EGURALDIA** > ERREKAK HANDITUTA

# Asteburuko euri jasa handiak buruhausteak eragin ditu

Azken egunetan botatako euri zaparrada jarraiek errekak handitu egin dituzte eta zenbait lekutan arazo txikiak izan dituzte asteburuan

**I.B.** > BERGARA

Ez da benetako arazo larririk egon, baina azken egunetan botatako euri mordoak buruhausteak sortu ditu ibarreko hainbat lekutan. Nabarmendu beharra dago eguenean metro koadroko 73 litro bota zituela; egubakoitzean, 73; eta zapatuan, 67. Hori guztia jarraian ur asko da gure erreka eta errepideetarako.

Hala, Elgetan, esaterako, atzo goizean pare bat ordu egin zituzten argi barik; eta Elorrioko bidean zein poligonoan ur baltsa handiak izan ziren. Bergaran, Elorregin, auzo bide baten lur-jausiak izan ziren; Angua bidean ere urak eskailerak eta etxe baten ataria hartu zituen, eta Bonifacio Laskurain plazan ere arazoak izan ziren, besteak beste.

**EURI GUTXIAGO**

Pello Zabalak iragarri digu datozen egunetan eguraldia nahasia izango dela, baina euri eta fresko gutxiagorekin.



San Juan erreka (Bergara) handituta, domeka eguerdian. LARRAITZ ZEBERIO

> LEHEN SEKTOREA

### Ibarreko EAJ hiltegien arteko erakunde publikoaren alde

Debagoieneko EAJk jakitera eman du nekazal sektoreaaren "alde egin duela beti, ez dutelako ulertzen nekazaritza gabeko Euskal Herririk".

Horretarako, erakundeen konpromisoa eskatzen du eta hiltegiaren alorrean hiru arlo zaintzeko premia nabarmendu du: hiltegiak ibarreko baserritarrei zerbitzua ematea; bertako baserritarren haragiaren eragile izatea; eta errentagarritasuna bermatzea. Azken horren harira, uste du hiltegia erakunde publiko batek kudeatzea ez dela konponbidea. Horren ordez, hiltegien arteko erakunde publikoa sortu gura du.




Jorge Ayo, Oñatin. TXOMIN MADINA

**Jorge Ayo** > Bilbao Centro merkatarien elkarteko kudeatzailea

# "Familien ekonomian zuloak daude, eta bat telefonoena da"

**TXOMIN MADINA/LEIRE KORTABARRIA**
> OÑATI

**Oñatin, kontsumo arduratsua bultzatzeko asmoz, Kontsumo Astea egin dute joan den aste osoan, Eusko Jaurlaritzak eta Udalak antolatuta. Tartean, Bilboko Bilbao Centro merkatarien elkarteko Jorge Ayo etorri zen. Bere esanetan, gure gastuetaz kontziente izatea gakoa da familiako ekonomia hobetzeko.**

**Badakigu ondo gastatzen?**

Familia askok denbora luzea eman dute asko gastatzen, gastu finko batzuk izan dituzte, eta orain, ez dakite nondik murriztu gastuok. Ohitura berriak behar ditugu.

**Zelan has gaitezke ohitura berri horiek hartzen?**

Erosketak modu arduratsuan egin behar ditugu; gastatzen dugunean, gastu horietaz kontziente izan behar dugu. Azken urteotan jendeak kapritxotaneta asko gastatu du, etorkizunera begiratu gabe. Norberak edo familia bakoitzak bere ekonomia enpresa baten moduan kudeatu behar du.

**Adibidez...?**

Adibidez, autoaren asegurua urtean behin kargatzen digute; hileroko gastuak ere baditugu... Hortaz, urteko edo hilabeteko gastuekin, kontu orokor bat izan behar dugu, gastu finkoak jakiteko, eta zenbat daukagun gastatzeko edo aurrezteko.

Bestalde, gure haurrek eta gazteek modu inpultsiboan kontsumitzen dute askotan. Eurak datoz gure atzetik, eta euren hezkuntzaz arduratu behar dugu, eta kontsumo ohitura batzuk erakutsi behar dizkiegu.

**"Familia askok luzaroan asko gastatu dute, eta orain, ez dakite nondik murriztu gastuok"**

**"Kontziente izan behar dugu erosten duguna lehentasuna edo kapritxoa den"**

**Erosterako orduan, zer hartu beharko genuke kontuan hobeto erosteko?**

Aurretik argi izan behar dugu ze erosi behar dugun. Adibidez, gaur egun txarra badago eta zapatak apurtuta badauzkat, zapata berriak erostera irtengo naiz. Zerrenda batekin irten naiteke. Horrez aparte beste zerbait erosten badut, kontziente izan behar dut horretaz; hau da, kontziente izan behar dut erosten dudana lehentasuna edo kapritxoa den. Hortik, aurrezteko aukerak izango ditugu.

**Bestelako gomendiorik?**

Familien ekonomian zulo handiak daude. Horietako bat da telefonoa: familiako kide askok dugu telefono bana, eta ez gara kontziente zenbat gastatzen dugun. Hori kontrola dezakegu, adibidez, seme-alabei gastuan muga jarrita.

**EKONOMIA** > KOOPERATIBAK

# Eroskik 322 milioiko kreditua lortu du hiru hilabeterako

Luzaroan 18 banketxerekin negoziatzen ibili eta gero, zubi-kreditua lortu du Eroskik, eta bere finantzek arnas hartuko dute horrela

**L.K.** > ARRASATE

Berri onak Eroski Taldearen finantzei dagokienez: 18 banketxek epea bukatzear zegoela onartu zuten beste kreditu bat izenpetzea, Eroskik datozen hiru hilabeteotan 322 milioi euroko zorra ordain dezan. Mondragon Taldeko banaketa sektoreko kooperatibak hilabeteotan jardun du banketxeekin negoziatzen, eta azkenean urriaren 30ean lortu zuen banketxeek zubi-kreditu hori ematea.

Zehazki, beste hiru hilabetean ordaindu ahal izango du Eroski Taldeak dauzkan bi krediturен artean garrantzitsuena, 322 milioi eurokoa. Bi kreditu horietarako epea uztailean bukatu zen, eta Eroski Taldeak bere aktibo batzuekin abalatu zituen. Negoziazioek luze jo dute, zenbait banketxek zalantzak izan zituztelako, baina azkenean, mailegu handienak eman izan zituzten banketxeen –BBVA, Santander, Caja Madrid, La Caixa edo BBK– iritzia gailendu zen.




Arrasateko Maxi Eroski. GOIENKARIA

**CAPRABOKO LANGILEAK, BAZKIDE**

Bestalde, Nafarroan Caprabok zuen lan-taldearen %60 Eroskiko bazkide bihurtu du taldeak: 400 bat langile. Horrek beste 3,7 milioiko diru-sarrera ekarriko dio Eroski Taldeari, bazkide ekarpen kontzeptuan. Nafarroan, Caprabornak ziren 29 denda eta 827 langile pasa ziren Eroskira.

**GERTAKARIAK** > EZBEHARRA

# Arrasatear bat, auto istripuan larri zauritua

Bi ibilgailuk elkar jo zuten eguen gauean Zubillagan; zauritu larriena Gasteizen da

**GOIENKARIA** > OÑATI

Arrasatear bat larri zaurituta dago eguenean 22:30 inguruan Oñatiko Zubillaga auzoan gertatutako auto-istripu baten ondorioz. 206 batek eta Mercedes 280 taxi batek izan zuten istripua; kontakizunen arabera, Mercedesa zirkulatzen zihoan, eta bidegurutze batetik beste autoa irten zen eta biek topo egin zuten.

Bost pertsona zihoazen guztira –bi 206an eta hiru Mercedesean–, eta hiruk zauriak izan zituzten. Suhiltzaileek horietako bat atera egin behar izan zuten autotik. Zaurituak Debagoieneko Ospitalera eraman zituzten. Larrien zegoena Gasteizko Santiago ospitalera eraman zuten, eta han dago orain. Beste bati alta eman zioten egubakoitzean bertan, eta hirugarrenak Debagoieneko Ospitalean jarraitzen du, baina plantan.

> HEZKUNTZA

### Espainiako 5. mailako umeei elikadura osasuntsua erakusteko proiektu bat abiarazi du Fagorrek

Ongizatearen Enbaxadoreak izeneko hezkuntza proiektua sortu du Fagor Taldeak. Espainiako ume eta gazteen laurdenak nahi baino gizenago daude eta, horrekin kezkatuta, umeengan elikadura osasuntsu, higiene eta segurtasun ohiturak sustatzeko proiektu hori martxan jarri du Fagorrek. Espainiako 100 ikastetxetik gorako LHko 5. mailako umeek parte hartuko dute, eta familiek eta norbanakoek ere badute aukera. Gai horien inguruko jardunaldi jaso eta gero, umeek *on line* lehiaketa baten parte har dezakete euren ikasgela Ongizatearen Enbaxadore bihur dadin.

auzorik auzo

**UZARRAGA** > Antzuolako auzoa da Uzarraga. Bergaratik sartuta, bigarren auzoa da, ezkerraldean geratzen da. San Juan eliza, tenplarioen garaikoa da auzoaren ikurretako bat. Garai batean, trena pasatzen zen Uzarragatik.



Iñaki Iartza, Uzarragako San Juan elizaren atarian. A.E.

**Iñaki Iartza** > Uzarragako auzo-alkatea

# "Etxe bakoitzak bere ura dauka, eta uda partean arazo larriak izaten ditugu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

**Uzarragako auzo-alkatea arrasatearra da jaiotzez, baina Uzarragako Iturriotz baserrian bizi da azkeneko hamar urteotan. Uzarragan arazoak izaten dituzte, batez ere uda partean urarekin; hala, horrekin dabil kezkatuta Iartza.**

**Zein da auzoaren egoera gaur egun?**

Garai batean, 19 baserri zeuden auzoan; baina dagoeneko hiru desagertuta daude. 12 baserritan jendea bizi da; beste bitan aste bukaerak pasatzera etortzen dira eta bat hutsik dago. Denera, gutxi gorabehera 18 familia egongo gara bizi izaten.

Azkeneko urteotan familia berriak etorri dira auzora, familia gazteak umeekin. Hortaz, egoera ona dela esan daiteke.

**Arazo nagusia urarekin daukazue. Zer gertatzen da?**

Batez ere, uda partean izaten dugu arazoa urarekin. Etxe bakoitzak bere putzutik jasotzen du ura; batzuek depositua dute, beste batzuek lurra zulatu eta gero ura bonbeatu egiten dute...

Urtetan eskean ibili gara herriko ura jartzeko. Baserri batzuek arazo larria dute urarekin, eta aurten guk ordainduta egin ditugu lanok. Behin betiko lotura ez, baina nahiko lotura ona egin dugu kaleko urarekin; eta hori asko da eurendako.

Goian baino, beheko aldeko baserriek dute arazo gehien. Urte batzuetan gaizki pasatu dugu uraren arazoarekin.

**Uraz gain, argiak ere arazoak ematen dizkizue.**

Bai; aste honetan, adibidez, hiru bider joan da argia. Batzuetan minutu bateko itzalaldiak izaten dira, beste batzuetan hamar minutukoak... eta beste batzuetan egun guztikoak. Adibidez, nekazaritza ustiapenak dituztenendako arazo larria izaten da argiarena. Kexatu gara Iberdrolan, baina legeak esaten du nekazaritza guneetako zerbitzuak ez duela zertan kaleko besteko ona izan. Ordaindu, ostera, berdin ordaintzen dugu.

**Uzarragan jende asko ibiltzen da paseoan. Ze ibilbide daude?**

Lehen, trena pasatzen zen hemendik; hortaz, lehengo bide zaharrean jende asko ibiltzen da. Bidegorria egiteko asmoa dago hor. Bestalde, errege-bidea deitzen diotena dago; hori ere konpontzekoak dira, Bergara eta Antzuola artean.

Jende askok egiten duena izaten da Antzuolatik gora igo, Uzarragako plazaraino. Gora eta gero behera, bidea bukatu egiten da-eta.

**Noiz ospatzen dituzue jaiak?**

Sanjuanak ospatzen ditugu Uzarragan. Zuhaitza igotzen dugu San Juan bezperan, eta meza eta luncha izaten dugu egunean bertan. Bestalde, Santa Ageda egunean kintoak etortzen dira kantatzera.

**Uzarragako ziklismo igoera ere ospatzen duzue!**

Bai; Aiastui taldeak antolatzen duen proba da. Azkeneko urteetan egin izan da eta jende asko batzen duen proba da.

SAN JUAN ELIZA

## Antzuolako lehenengo parrokia Uzarragan dago

Uzarragan eliza garrantzitsua dute: tenplarioen garaikoa. Antzuolako lehenengo parrokia izan zen Uzarragako eliza, eta Gipuzkoako bederatzigarrena. Tenplarioen garaikoa den eliza zahar horren kanpoaldea egoera tamalgarrian badago ere, eliza barruan dugu interesgarriena. Besteak beste, erretaula Antxietaren eskolakoa da, haren ikasle Jeronimo de Larreak eginikoa XVII. mendean. Marfilezko edo Urrutiko gurutzea ere XVII. mendekoa da, Mexikon bizi zen Urrutia baserriko seme batek bidalitakoa. Garai baten, bailarako ospetsuak lurperatzen zituzten.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Azaroko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
*harpidetza@goiena.com*
Kuota: 10 euro

ANTZERKIRAKO SARREREK
ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA
Bidali AG ESPALOIA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



UMEENTZAKO LIBURUAK
PAMIELA argitaletxea
Bidali AG LIBURUAK
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



SARRERAK
LAGUN ARO SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET
Bidali AG BASKET
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



ZIRA
EKFB Euskal Futbol Federazioa
Bidali AG ZIRA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



SARI NAGUSIA
IRAILA-AZAROA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



**AHTEC NETBOOK LUG N011**
**Sistema eragilea:** Ubuntu Linux.
**Prozesadorea:** 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
**Memoria:** 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
**Disko gogorra:** 120GB 5400RPM SATA.
**Pantaila:** 10" pantaila TFT WSVGA LED.
**Bermea:** Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik
LASKAR INFORMATIKA S.L.
• Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
• Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
• Informatika eta teknologia berrien produktuak.
**Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!**

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*

Daniel Innerarity (Bilbao, 1959) filosofoa Bergaran izan zen egubakoitzean, UNEDek Bergarako udaletxean ospatutako ikasturte hasierako ekitaldian. 'El regreso de los piratas: una reflexión sobre la globalización' izenburuko hitzaldia egin zuen. Pirateria forma ezberdinak gaur egungo gizartearen ispilua direla dio filosofo bilbotarrak. Harekin izan ginen egubakoitzean.

**Daniel Innerarity** > Filosofoa

# "Errealitate berrien aurrean nazioen arteko kooperazioa areagotu behar da"

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Bilbotarra sortzez, Nafarroako Unibertsitatean eskuratu zuen Innerarityk Filosofia doktoretza. *El País*, *El Correo* eta *El Diario Vasco* egunkarietako ohiko kolaboratzailea da eta, horrez gain, hainbat lan argitara eman ditu, *El nuevo espacio público* eta *La sociedad invisible* tartean. Entsegu Sari Nazionala eskuratu zuen 2003an. Zaragozako Unibertsitatean eskolak ematen ditu gaur egun. Lehendik ere ezagutzen zuen Bergara eta pozik jaso zuen UNEDen gonbidapena ikasturte berriari hasiera emateko.**

**Gaurko piratak globalizazioaren ondorioetako bat direla aipatu duzu hitzaldian.**

Lehenik eta behin zera argitu nahi dut: gai honi buruzko hitzaldia ematea pentsatu nuenean, globalizazioaren gainean hausnarketa egiteko haria izan zitekeelako egin nuen. Ez nuen inondik inora imajinatzen gaur, Alakranaren auzia dela eta, duen kutsu dramatikoa izango zuenik.

Egia da piratak gaurko globalizazioaren ispilu direla. Gaurko gizarteak lurraldeko botere hori galdu du, eta horren aurrean sortu da Baumanek deitzen duen *mundu likidoa* delakoa; isuriak errealitate estatikoak baino garrantzitsuagoak dira gaur: informazio-isuria, finantza-isuria... Mugak gainditu egin ditugu onerako (elkarren arteko komunikazioak hobetzeko) eta txarrerako ere bai (paradisu fiskalak edo krisi globalak). Itsasoa bilakatu da arriskuaren eta konkistaren unibertsoa, eta Estatu nazioek indarra galdu dute erregulatu gabeko finantza eta kontsumo espazio berrien aurrean. Ez da harritzekoa pirataren figura agertzea horrelako gizarte baten, horrek suposatzen duen askatasunarekin eta, aldi berean, basakeriarekin. Gauzak horrela, ingurunea guztiz nahasia bilakatu da.

**Eta zein uste duzu dela nolabaiteko ordena berreskuratzeko bidea?**

Errealitate berrien aurrean aurkitzen gara eta argi dago nazioen arteko kooperazioa areagotu egin behar dela. Interneti edo mundu mailako segurtasunari dagokienez, ez dakit nola arautuko diren gauzak etorkizunean, baina argi daukat nazioen arteko kooperazio handiagoa beharrezkoa izango dela. Harremanak eta kolaborazioa bultzatu behar dira. Esate baterako, nazioarte mailako terrorismoaren kasuan argi ikusi da alde bakarreko soluzioak ez direla irtenbidea. Urrun joan gabe, Irakeko gerraren adibidea hor dago; nazioarteko babes eskasarekin deitutako gerra bat izan zen eta ondorioak, oraindik ere, hortxe daude. Zalantzarik gabe, lan komuna, loturak indartzea eta kooperazioa ezinbestekoak dira horrelako egoerak saihesteko.



Daniel Innerarity Bergarako udaletxean, egubakoitzean, UNEDeko ekitaldiaren aurretik. JOSETXO ARANTZABAL

**"Estatu nazioek indarra galdu dute erregulatu gabeko finantza eta kontsumo espazio berrien aurrean"**

**Eta zein izan daiteke lan hori egiteko elkargunea?**

Ez da egongo gaurko estatuen instituzio analogorik eta irudumena lantzea ezinbestekoa izango da. Hor dago Europar Batasuna, zenbaitendako OHE (objektu politiko ezezaguna) bilakatu dena, instituzio politikoa berria, arraroa eta ezezaguna delako. Zein instituziok arautuko dute finantza-isuria? Nor arduratuko da jabetza intelektualaren eskubideak arautzeaz? Edo ingurugiroko mehatxuak eta aldaketa klimatikoak ekarriko dituzten ondorioak nork arautuko ditu? Lurralde ezberdinen arteko segurtasun forma berriak noren eskumena izango dira? Ez dakigu. Ziurrenik instituzio asko izango dira horiei helduko dietenak. Hor daude, besteak beste, Nazio Batuen Erakundea, UNESCO edo Europar Batasuna. Baina, agian, berrikuntzak izan beharko dira gutzi horien funtzionamenduan edo egituran.

**Gorbatadun piratak ere badira. Paradisu fiskalek zer nolako eragina izan dute gaurko krisian?**

Estatuek beraien lurreko boterea, neurri handi batean, zerga-sistemaren bitartez definitzen dute. Euskadiren kasuan estatu moduko bat gara zerga-sistemari esker; horregatik da hain garrantzitsua autogobernurako.

Paradisu fiskalak errealitate horretatik ihes egiteko modua dira eta hain zuzen ere paradisu fiskalak gai izarretakoak bat izan ziren azken G-20aren batzarrean.

Krisiaren kasuan, nire ustez puztu egin da paradisu fiskalek izan duten eragina. Paradisu fiskalek eragina izan dute bai, baina exekutiboen bonuen eragina ez da horrenbestekoa izan, nahiz eta Madoff-en iruzurrak mundu mailan eragina izan. Krisiak, edozein modutan, analisi hotzagoak eta neurri konplexuagoak eskatzen ditu. Argi dago exekutiboen ordainsariak arautzeak ez gaituela lehengo egoerara bueltatuko. Askoz ere konplexuagoa da gaurko krisia.

**Bukatzeko, Alakranaren auzia aipatu duzu lehen. Zein iritzi daukazu auzi horren gestioaz?**

Egia esateko ez dut gertatukoa zehatz-mehatz ezagutzen eta ezin dut balio handiko ezer esan. Gauza asko dira jokoan eta horrelako bahiketek irtenbide zaila eta txarra izaten dute. Gauza bat esango dut: arazoak sortzen direnean, orduan gaude ohituta soluzioak topatzen, baina gutxi egiten dugu arazo horiek ez sortzeko. Horrelako egoeretan protokolo bat, neurri zehatzak ezartzea ondo legoke eta benetan dramatikoa da pentsatzea orain dela aste batzuk itsasontzi horiek eraman beharreko segurtasunaz sortutako eztabaida. Gure arrantzaleek ez dute merezi horrelako egoerak jasan behar izatea.


GURE WEB GUNEARI BIZITASUNA FALTA OMEN ZITZAION, ETA JON SARTU DUGU BARRUAN.
gaztekutxa
Aholkulari pertsonala, bizi-bizi eta aurrez aurre, behar duzun guztirako.
Telefono, bideokonferentzia edo txat bidez.
10etatik 10etara
bezero izan nahiz ez
gaztekutxa.net
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

**kale inkesta**

# Erabaki zuzena izan da Somaliako bi piratak atxilotzea eta Madrilera eramatea?



**Benito Igartua**
Langilea
Bergara

Akats handia izan dela uste dut, erabaki horrek zaildu egin ditu gauzak. Gauzak bide onetik joatea nahi badute, konponbideak topatu beharko dituzte nahiz eta horrek legeak alde batera uztea suposatu.



**Manolita Rivas**
Erretiratua
Bergara

Ez da erraza izango piratak atzera ere Somaliara bueltatzea, baina arrantzaleen bizia dago jokoan. Ez zuten akaso borondate txarrarekin egingo, baina nire ustez ezegokia izan zen bi itsaslapurrak ekartzea.



**Nicolas Bengoetxea**
Langilea
Gasteiz

Negoziazioak konplikatu dituen erabakia izan da, eta egoera zaila da. Lehentasuna arrantzaleak etxera itzultzea dela uste dut nik, eta horretarako piratak askatu behar badira, nik ez nuke zalantzarik izango.



**Elena Arriaran**
Langilea
Bergara

Erabaki txarra izan atxilotzea egoera luzatu duelako. Nire ustez bi piratak bueltatu egin beharko lituzkete. Egoerak oso gogorra behar du senitartekoendako nahiz eta jakin arrantzaleak ondo daudela.

**zorroztailea**



**Markos Balentziaga**

## SITEL

"PSOEk desafioa egin dio PPri auzitegietan legez kanpoko telefono entzuketak proba ditzan. (...) Justizia Rajoyri esan dio auzitegietara jo dezala Sitel-en erabilera desegokia dela uste badu. (...) Popularrek uste dute epaileei emango dizkieten entzuketen grabazioak faltsuak izango direla ".

El Diario Vasco > 2009-11-06


El PSOE reta al PP a probar ante los tribunales las escuchas ilegales

Tres denuncias en marcha

La llave maestra del Sector Inmobiliario Vasco

Halaxe diñotse: SITEL. Txakur-izena ete da? Pentsatzen hasi, daukan egitekuari errreparau, eta, izan zeikian, bai, baña telefono-izena izatiaren bapaiñu haundixkua daroia SITELek, gaur egun txakurrekin erabilten dugun kortesiarako.

Txakurrak txakur, edozein etxe-zaintzaillek goguan hartzeko moduko atalajia da SITEL: ixilpeko izaeria, begiradia luzia eta belarrixak luziaguak dauzka-eta. SITEL Españako Barne Arazoetako Ministerioak 2004an, PP agintian zeuala, telefono-entzunketak egiteko asmautako zera da: Sistema Integral de Interceptación de Telecomunicaciones.

Kontua politt-politta da: 2004an zarata haundi barik sortu zeban PPk. Eta orain, PSOE agintian dauanian, PP keja da PSOEk atalaje horretaz egiten daben erabilleriaz: PPko trapu zaharrak —eta trapu asko samar dira— partidutik kanpora ateratzeko darabillela diño-eta! Eta guk, aingeru-aingeru, zer pentsu bihar dogu: PP, bere sasoian, SITEL hori erabilli barik egon zala? Eta oraiñ PSOEk ez darabillela?

> **"Edozein etxe-zaintzaillek goguan hartzeko modukue da SITEL"**
>
> **"Zer pentsu bihar dogu, PPk ez zauela SITEL erabili?"**

Kontuz, irakurle maite, juezak baimendutakuan baño ezin leizke erabili holako belarrixak... ia zer pentsatzen dihardozun.

Baña gañera, 2004an, PPren agintian Mariano Rajoi bera zeguan SITELen superbelarrixak indarrian ipini ziranian, eta oraiñ bera da erabillera lotsabakuaren kontrako protestaburu. Ederra kontua!

Eta zer erantzungo dotsa ba PSOEk PPri, ez bada juezarengana joateko ipuñak kontatzera?

Alde bateko eta besteko barne ministerio eta barne saillek begi-belarrixak luze-luziak dauzke; lotsabako hutsak be bai. Eta Rajoik protestau egitten dau Rubalcabak entzun egitten dotsalako, bihar iruntzixetara izango dala ahaztuta.

Rajoik eta Rubalcabak zergatik ez dotse alkarri kide lotsabakuen arteko koipelustria emoten? Modukuak modukuekin; hori da lege zaharra. Guk, ostera, gure inguran belarri lotsabakorik ez dogun segurantzarik ezin izan!

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ANTZUOLA
**> Saihesbidetik Antiguarako sarrera egoera txarrean**
Antzuolatik kexa bat jaso dugu asteon. Irakurle batek esan ditu saihesbidetik Antigua auzora sartzeko errepidea egoera oso txarrean dagoela. "Zulo handiak daude eta eguraldi txarrarekin putzu handiak sortzen dira".

ARAMAIO
**> Kurtzetan errepidea txarto**
Kurtzetan, Azkoagarako bidegurutzean bidea txarto dagoela salatzeko deitu du beste irakurle batek. "Petatxuak ipini dituzte, hiru, baina autoa labaindu egiten da. Aspaldi dago horrela errepide zati hori. Arriskutsu dagoela uste dut".

ARETXABALETA
**> Farolak eskatu dituzte Urkulun**
Urkulura lasterka egitera joaten den lagun batek argi falta sumatzen duela adierazi digu. "Neguko ordutegiarekin goiz iluntzen du, eta Urkulura iristen naizenerako ez da ezer ikusten. Farolak ipintzea eskertuko nuke", esan du.

ELGETA
**> Bergarako bidean ur-putzuak**
Hosto asko dago egunotan errepide bazterrean eta ur-putzuak sortzen dira euria egiten duenean. "Asteon garbitu dituzte bidebazterrak. Bazen garaia!"

**usteak uste**

**Larraitz Zeberio**

## Basterretxeari barkamena

Atzo inauguratu zuten Arantzazuko kripta berritua. Nestor Basterretxeak duela 25 urte egindako muralak ikusi genituen dotore eraberrituak eta ondo argiztatuak. Gustura zegoen artista, bere bizitzako egun zoriontsuenetakoa zela adierazi zuen. Muraletan pintadak egin zizkioten eta berriz margotu behar izan zituen. 25 urteotan, gainera, kripta itxita egon da, eta bere obra ilunpean.

Blanca Urgell kultura sailburuak barkamena eskatu zion Basterretxeari atzoko ekitaldian. Ez ditut horrelakoak askotan entzun politikarien ahotan. Artista bera ere ezustean harrapatu zuen. "Ez dut ondo entzun", adierazi zion Basterretxeak GOIENAri. "Konturatu naiz diskurtso irmoa egin duela. Agindu didate egin duen hitzaldia idatziz bidaliko didatela. Nik ere behar ditut elkartasun-adierazpenak".

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Maider Arregi, Larraitz Zeberio, Edu Mendibil, Mireia Bikuña **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**> ARRASATE**
Irisgarritasuna hobetzeko asmoz, Udalak lau gunetan kenduko ditu traba arkitektonikoak **> 14**



**> BERGARA**
Seminarioaren eta Arrizuriagaren arteko trukea "hilabeteko epean gauzatuko da" **> 17**



**> OÑATI**
Antzezlana estreinatuko dute erretiratuek barikuan, kultura astearen barruan **> 18**

**BERGARA** > IKASTURTE IREKIERA EKITALDIA UNED-EN

# Sei urtean bikoiztu egin da ikasle kopurua Bergarako UNEDen

**BOLONIA**
Europako goi-mailako hezkuntza espaziora egokitutako 13 titulazio aukeran

**56 ZIURTAGIRI**
Aurten ikasketak amaitu dituzten 56 ikaslek ziurtagiriak jaso zituzten ekitaldian




Daniel Innerarity, Agurne Barruso, Juan Jose Alvarez, Markel Olano, Pedro Luis Arias eta Enrique Moreno irekiera ekitaldian. JOSETXO ARANTZABAL.

**LARRAITZ ZEBERIO** > BERGARA

UNED-Bergarak barikuan egin zuen 2009-2010 ikasturtearen hasiera ekitaldia. Aurpegi ezagun ugari ikusi genituen bertan. Ekitaldian hitza hartu zuten Gipuzkoako ahaldun nagusi eta UNED Bergarako patronatuko presidente Markel Olanok; Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta ikerketa sailburuorde Pedro Luis Ariasek; Bergarako alkate Agurne Barrusok; UNED-Bergarako zuzendari Juan José Alvarezek; UNEDeko Errektoretzako ordezkari Enrique Morenok; eta UNED-Bergarako idazkari Vicente Huicik. Ekitaldian, gainera, beste unibertsitateetako, Eusko Ikaskuntzako eta Kutxako ordezkariak izan ziren.

**BOLONIA**

UNED-Bergarak 13 titulazio egokitu ditu Europako goi-mailako hezkuntza espaziora (Bolonia). "Gradu berriek gure unibertsitatea Europar espaziora gradu gehien egokitu dituen Estatuko unibertsitateen artean kokatzen dute, eta bakarra da Euskal Herrian", adierazi zuen Juan Jose Alvarez zuzendariak. "Goi-hezkuntzako eskaintzaren ia erdia ezarriko dugu 2009-2010 ikasturte honetan; hala, 28 titulaziotik 13 plan berriaren irizpideak jarraituz egin ahal izango dira".

Ekitaldian ikasketak amaitu izanaren ziurtagiria jaso zuten 56 ikaslek, Daniel Innerarity Filosofian doktoreak gaurkotasun handikoa den pirateriaren gaia ekarri zuen bere hitzaldian, eta amaitzeko, ekitaldia Bergarako Musika Eskolako Soka taldeak.

**ERAKUNDEEN KONPROMISOA**

Bergarako alkate Agurne Barrusok elkartrukearen bidean sakontzeko konpromisoa azaldu zuen ikasturte irekierako ekitaldian. "UNED eta Bergara aspaldi dira bidaide", esan zuen. "UNEDek asko eman dio Bergarari eta Bergarak ere eman dio UNEDi. Elkartruke horretan sakontzea, eta elkarlan horretatik ahalik eta etekinik handiena ateratzea da gure apustua".

Gipuzkoako ahaldun nagusi Markel Olanok, bere aldetik, UNED-Bergararen ekarpen handia azpimarratu zuen. "Gipuzkoaren aberastasunik handiena bere gizartearen formazioa eta kalitatea dira; eta nire ustez Gipuzkoak duen indar estrategikoetako bat osatzen duzue, zalantzarik gabe. Bergarako UNEDek asko egin du, asko egiten dabil eta asko du egiteko pertsonen formazioaren eta prestakuntzaren esparruan. Gure lankidetza duzue Gipuzkoaren eta Euskal Herri osoaren alde gogotik egiten duzuen lan bikainarengatik", adierazi zuen Markel Olanok.

**IKASLEEN ESPERIENTZIA**

Urtero legez ikasturte berriari hasiera emateko ekitaldi oso formala egin zuen UNEDek. Tartean, ikasketak amaitu izanaren ziurtagiria jaso zuen ikasle batek hartu zuen hitza eta freskotasun handia eman zion parte-hartze horrek ekitaldiari. Ikasleak azaldu zuen zeinen zaila den ikasketak abiarazteko erabakia hartzea. Baita, hasieran zeinen urrun ikusten den bide amaiera ere. Ez dugu ahaztu behar, edozein arrazoiagatik erregulartasunez klaseetara gerturatzeko arazoak dituztenendako aukera garrantzitsuak ematen dituela Bergarako unibertsitateak. Pertsona horiek beste metodologia batekin ikasketak garatzea zaila izango lukete, eta UNEDen beraien familia edo lan egoerara egokitzen den ikasketa eredua aurkitzen dute. Hezkuntza eredu horrek klaseetara joateko ordutegi finko batek suposatzen duen konpromisoa bete ezin duten ikasleei ikasketak garatzeko aukera ematen die, eta horrela agertu zuen ikasleak. "Tarteka gogorra egiten da eta denok izan dugu ikasketak bertan behera lagatzeko tentazioa, baina lan talde bikaina dago Bergarako UNEDen eta aurrera egitea lortu dugu".

KONTUAN HARTZEKO

## UNED Arrizuriagan kokatzeko lanak hastear

Ikasturte irekiera ekitaldian ez zuen inork aipatu, baina UNED-Bergarak beste erronka garrantzitsu bat du mahai gainean. Lehenbailehen egin gura du Juan Jose Alvarez UNED-Bergarako zuzendariak egoitza aldaketa. "Asteon espero dugu erosketa kontratua sinatzea", adierazi zion GOIENKARIAri ekitaldiaren amaieran. "Arrizuriagan lan handiak egin behar ditugu, eta kreditua negoziatzen gabiltza egunotan".

Seminarioaren eta Arrizuriagaren arteko trukea hitzartuta dagoela baieztatu du Alvarezek. "Egoitza berriaren egokitzapen lanak daude airean", esan du. "Ez dira lan oso konplexuak, baina barrutik eraikin ia guztia bota behar dugu".

Zuzendariak uste du Arrizuriaga egoitza egokia dela unibertsitatearendako. "400 bat lagun elkartzen gara zentroan egunero. Nire uste ondo egongo gara Arrizuriagan". Alvarez ez zen epeak ematearen aldekoa, baina azaldu zuen asmoa dela urtarrilean lanekin hastea, eta 2011ko urrian eskolak bertan hastea".

**ARRASATE** > IKASLE EGUNA

# Aldarrikapenak, tailerrak, musika eta jaia, euriaren pare barra-barra



Kataluniako KOP talde metalzaleak emanaldi indartsua eta profesionala egin zuen Iturripen; entzuleek oso ondo hartu zituzten. IMANOL SORIANO



Ikasle eta ikasle ohi ugari batu ziren Iturripeko frontoian bazkaltzeko. J. ARANTZABAL


Des-Kontroleko 'Pepin'. I. SORIANO


Kataluniako (argazkian) eta Irlandako ordezkariek esku hartu zuten. I. BARANDIARAN



Goizean umeendako tailerrak egin zituzten gaztetxean. JOSETXO ARANTZABAL

Ikasle Abertzaleek kolorez eta ekimenez bete zuten Arrasate zapatuan egun osoan

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Egun borobila ospatu zuen Ikasle Abertzaleak-ek herenegun, zapatua, Arrasaten. Eguraldi txarrari desafioa eginda, *Arrasaten geroa marraztera goaz* leloa muturreraino eraman eta geroa ez dakit, baina egun horretan kolore eta ekimenez bete zuten herria.

Ekintza gehienak Iturripen egin zituzten arren, eguraldiaren erruz, umeendako jolasak, taloak, erakusketa eta ikasle denda gaztetxera eraman zituzten; hala ere, aterpe ona aurkitu zuten eta asko izan ziren han batutako ume, gazte eta helduak.

**EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA**

Ordu berdinean, baina, beste askok euskal hezkuntza sistemaren gaineko mahainguruak egin zituzten; eta IAko arduradunen esanetan, oso emankorrak izan ziren eztabaidak.

Eguerdian, baina, atsedena hartu eta Iturripeko pilotalekua bete zuten bazkari erraldoian. Horri jarraitu zioten antzezlanak, Arrasateko hainbat tabernetan barrena egindako ikasleen musika taldeen maratoiak eta batukadak.

**IRLANDATIK ETA KATALUNIATIK**

Iluntzean, ehunka lagunek kale agerraldia egin zuten Arrasateko kaleetan; eta horren bukaeran, ekitaldia egin zuten Iturripen jarritako karpan. IAko kideek euskal eskola nazionalaren eta euskal curriculumaren premia aldarrikatu zuten; eta gogor kritikatu zituzten Bologna prozesua, inposatutako jai egunak eta kartelak jartzeko debekuak, besteak beste. Bitxikeri moduan, gainera, Irlandako eta Kataluniako ikasle sindikatuetako ordezkariek ere esku hartu zuten ekitaldian.

**GAUEAN, ROCKA ETA PARRANDA**

Jaiari merezitako bukaera emateko, kontzertuak egin zituzten Iturripeko karpan: Zea Mays Bilboko talde beteranoaren indar eta goxotasun konbinazio eraginkorra; Arrasateko Des-Kontrol taldearen lelo eta mezu itsaskorrak –talde horrek jarri dio musika Ikasle Egunari–; Kataluniako KOP talde gerrillariaren rapeatutako metal-core bortitz eta profesionala; Hernani aldeko Esne Beltza taldearen mestizaia dantzagarria; Beste Bat-en erromeria... Goizaldera arte, parranda.


Epaimahai kideak lanean; seguru aho zapore onaz amaitu zutela. JOSETXO ARANTZABAL


Sukalde lanetan gogor jardun ostean, Okela Gisatu Lehiaketako irabazleak pozik azaldu ziren. JOSETXO ARANTZABAL

**BERGARA** > DEBAGOIENEKO I. OKELA GISATU LEHIAKETA

# Altzasu elkartea garaile, Bergaran egindako lehiaketan

Beti Busti elkarteko kideek, 70 kilo pintxo okela gisatu saldu zituzten euriari eta hotzari aurre eginez

**MAIDER ARREGI** > BERGARA

Zapatu arratsaldean egin zen Debagoieneko Lehenengo Okela Gisatu Lehiaketako finalerdia Bergaran. 12 elkarte eta partikularrek hartu zuen parte. Lehenengo saria Altzasu elkartearendako izan zen; bigarren postua San Juanek eskuratu zuen; eta hirugarrena, berriz, San Migelpe elkartearendako izan zen. Epaimahairen arabera, guztiaek maila bikaina erakutsi zuten eta puntuazioari dagokionez, guztiak oso gertu ibili ziren. Jon Mirena, harakin eta antolatzaileak adierazi digu urtea bukatu aurretik Debagoieneko finala egingo dutela. "Oraindik ez dugu pentsatu non, noiz eta nola egingo dugun finala; zehazteko daukagu oraindik". Datorren urtera begira, bigarren edizioa egingo dela azpimarratu du Mirenak. "Lehiaketa indartzea eta bultzatzea da asmoa. Horretarako, Debagoieneko herri guztiek parte har dezatela nahi dugu".

**BETI BUSTIK, PINTXOAK**

Oskar Lizarralde Beti Busti elkarteko kideak balorazio positiboa egin du. "Eguraldi txarra izan dugun arren, 70 kilo okela gisatu pintxo saldu ditugu". Eskuratutako dirua kirol materiala erosteko dela kontatu digu Lizarraldek. "Ez daukagu argi, baina seguruenez, piragua berriak edo kirola egiteko bestelako materiala erosteko izango da". Lizarraldek jendearen parte-hartzea eskertzea ere gura izan du.

**BERGARA** > GAZTAINERRE EGUNA

# Danbolinaren tradizioa errekuperatuz eta disfrutatuz

Barikuan, 498 ume batu ziren danbolinaren inguruan, San Martin Agirre ikastetxeak urtero antolatzen duen Gaztainerre Eguna ospatzeko


Ikasle zein gurasoek gustura jan zituzten gaztaina erreak. MAIDER ARREGI

**MAIDER ARREGI** > BERGARA

Dagoeneko 15 urte daramatza San Martin Agirre ikastetxeak Gaztainerre Eguna ospatzen. Begoña Otsoa-Aizpurua zuzendariaren esanetan, "harrera bikaina izaten du bai ikasle eta baita gurasoen partetik ere". Hala, ikasleek, aste osoan zehar, euskal kultura tradizionala gertutik ezagutzeko aukera paregabea izaten dute. Antzez lanak, irratsaioak edota bestelako ekintzak egiten dituzte gaztaina eta baserri giroan murgilduta. Aste osoko lanaren ondoren, ilusioz eta motibazioz beteta, gogotsu hartzen dute gaztaina festa. "Ikasleen harremanak sustatzeko ere ekimen polita da. 4 urtekoak gaztainak erostera joaten dira irakaslearekin. Nagusienek, berriz, irratsaioa egiten dute ahozkotasuna lantzeko". Guztira, 90 kilo gaztaina erre eta jan zituzten barikuan.


JOSETXO ARANTZABAL

**ARETXABALETA** > HIRUATX

## Hiruatxek onddoak paketatzeko makina finantzatzen lagunduko du

Hiruatx Gobernuz Kanpoko Erakundeak proiektu berria aurkeztu zuen barikuan festa giroan. Asmoa da Ekuadorren dagoen Salinerito eskualdeari laguntzea. Hala, onddoak paketatzeko makina finantzatzen lagunduko dio Hiruatxek Salineritoko Bidezko Merkataritzako komunitateari. Orain artean eskuz paketatzen zituzten onddoak Salineritoko emakumeek. Datorren urtean, makina erosi eta finantziazioan laguntzeko proiektuan lan egingo du Hiruatxek.

**ZARZUELA** > 'LA CORTE DE FARAÓN'

# Sarrerak salgai eta zarzuela ia gertu, azken ukituen zain

Joan den astean jarri ziren salgai sarrerak; zarzuelari azken ukituak falta zaizkio eta entsegu orokorra azaroaren 19an egingo dute, Amaia antzokian

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Hamar urte beteko ditu aurten zarzuelak. Eta urteurrena aitzakia hartuta, Izaskun Murgia elkarte lirikoak zarzuela berezia prestatu du, Tere Gonzalez zuzendari orokorrak adierazi duenez, "oso desberdina, modernoa eta taularatzen aurrekoak baino askoz zailagoa" izango dena: *La corte de Faraón* zarzuela.

**AZKEN UKITUAK EMATEN**
Zarzuela osatzen duen lantalde osoa azken ukituekin dabil. Atzo, domeka, interpretaziorako taldeak dantzariekin egin zuen entsegua. Urtero legez, udatik honako entseguak indartu egin dituzte. Hala, azken entsegu orokorra azaroaren 19an egingo dute Amaia antzokian, 20:00 aldera; hau da, estreinaldia baino bi egun lehenago.

*La corte del Faraón* zarzuelak, Gonzalezek aurreratu duenez, "mugimendu handia" izango du. Eta honakoa gaineratu du: "Ahots bakarlariek ez dute uneoro orkestraren erreferentzia izango eta erritmoa jarraitzea ez da batere erraza izango". Hortaz, orain arteko zarzuelak erronka handiak baziren, aurtengoak ez du aurrekaririk izango.


Atzeko lanik gabe ez legoke zarzuelarik; jostunak, horren adibide. Lantaldea sei kidek osatzen dute: irudian, Mertxe eta Juani. J.B.

ESANAK

**"La corte de Faraón' oso desberdina, modernoa eta taularatzeko aurrekoak baino askoz zailagoa da "**

**Tere Gonzalez** > Zuzendaria

SARRERAK

**Ahalik eta azkarren eskuratuz gero, hobeto**

Joan den eguaztenean jarri zituzten salgai *La corte de Faraón* zarzuelarako sarrerak. Emanaldiak hilaren 21ean, 22an, 27an eta 28an izango dira, 19:30ean –azaroaren 27an ezik: 20:00etan izango da–. Eta urtero pizten duen ikusmina ikusita, komeni da sarrerok ahalik eta azkarren lortzea.

Honako leku hauetan izango dira txartelak salgai: Kutxako kutxazainetan, Kutxaren webgunean –*www.kutxa.net*– eta Amaia antzokiko leihatilan, beste ekitaldietarako zabalik dagoenean. 17 euro inguru ordaindu beharko da txartel bakoitzeko, eserlekuaren arabera.

**UDALA** > OBRAK

# Ia 100.000 euro traba arkitektonikoendako

Herriko irisgarritasuna hobetzeko asmoz, Udalak lau gunetan kenduko ditu traba arkitektonikoak

**J.B.** > ARRASATE
Udalak herriko kaleen irisgarritasuna hobetzeko inbertsio handia egingo du. Arrasateko traba arkitektonikoak kentzearen aldeko apustua aspaldi egin zuen –duela lau urte, hain zuzen–, eta oraindik ere lan horretan dihardu Udal Gobernuak.

Oraingoan ia 100.000 euro inbertituko ditu herriko lau gunetan traba arkitektonikoak kentzeko: Uribe-Uriburun, Obenerreka-Santa Marinan, erdigunean eta Musakolan. Obretan egingo dutena da espaloiaren altuera jaitsi, eta gurpil-aulkian ibili behar dutenei bidea erraztu. Lanak 2010ean hasiko dituzte.

**MUSAKOLAN OBRA GEHIEN**
Lanik handienak Musakola auzoan egin behar dituzte. Han 35.000 euro pasa inbertituko dituzte. Horietatik 6.000 euro inguru Elkano kalerako izango dira; hain justu, kiroldegiko sarrerarako eta han dagoen aparkalekurako. Beste 6.000 euro inguru Bidekurtzetarako izango dira. Eta 4.600 euro pasa Gipuzkoa etorbideko espaloietarako erabiliko dituzte.

**LAU URTE LANEAN**
Orain dela lau urte onartu zuen Udal Gobernuak Arrasaten dauden traba arkitektonikoak poliki-poliki kentzen joateko plangintza. Urte berean hasi ziren onartutakoa aplikatzen, eta, lehenengo eta behin, herriko etorbide eta kale nagusietan jardun zuten trabak kentzen.

Hurrengo hiru urteetan, aldiz, kale eta etorbide nagusietara doazen kaleetan egin zituzten obrak. Eta azkenik, egungo plangintzak erakusten duenez, auzoetan hasiko dira irisgarritasun lan horiekin.

DATUA

**97**

**MILA EURO**

Traba arkitektonikoak kentzeko lanetan 97.000 euro inbertituko ditu Udalak, eta aurrekontuaren zati handiena Musakolara joango da: bertara 35.000 euro pasatxo zuzenduko dituzte.


Herriko beste puntu batzuetan trabak kenduta daude. UBANE MADERA

**oharrak**

GAZTE BULEGOA
**> Perkusio, bitxigintza eta dantza ikastaroak**
Azaro eta abendurako Gazte Bulegoak hiru ikastaro antolatu ditu:

Djembe perkusioa, azaroaren 17tik abenduaren 15ra. Martitzenetan, 18:30etik 20:00ak arte. Irakaslea: Karidia.

Bitxigintza ikastaroa, azaroaren 25etik abenduaren 16a artean. Eguaztenetan, 18:00etik 20:00ak arte. Irakaslea: Dunixe Royo.

Txarri-dantza –santamasetan dantzatzeko–, azaroaren 20tik abenduaren 11ra bitartean. Egubakoitzetan, 19:00etatik 20:00etara.

Matrikula: 20 euro (12 euro langabeendako).

> OBRAK
**Edateko uraren hodia aldatzeko lanak Musakola auzoan**

Musakola auzoko errepide ondotik pasatzen den edateko uraren hodia aldatzen dabiltza asteotan. Hain zuzen, Oñati kalea eta Nao de Santiago arteko hodi zatia aldatu behar dute. Orain arteko hodia zaharkitua gelditu da eta berritu egingo dute.

**OSASUNA** > DEMENTZIAREN GAINEKO IKASTAROA

# "Dementzia-gaixoekin nola jokatu erakustea da helburua"

Ekin Emakumeek eta Bizikasik bultzatuta, dementziaren gaineko ikastaroa egingo dute abenduaren 14tik 18ra

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Dementziaren gaineko ikastaroa antolatu dute Ekin Emakumeak eta Bizikasi elkarteek, eta abenduaren 14tik 18ra izango da (15:30-18:30). Guztira 15 ordu iraungo du eta espainolez izango da, Ekin Emakumeak elkartearen egoitzan. Tailerrak Sonia Ulazia Adindu enpresako kideak zuzenduko ditu; eta, aurreratu duenez, "dementzia-gaixoekin nola jokatu erakustea izango da helburua". Izan ere, adituak dioenez, "gaixoak, batez ere gaitzaren lehen fasean, asko sufritzen du".

**HARTZAILEA, PARTE-HARTZAILE**
Ikastaroan azalpen teorikoak "ezinbestekoak" dira, "hartzailea gaixotasunaren inguruan informatzeko". Hala ere, Ulaziak gaineratu duenez, ikastaroak "izaera parte-hartzailea" izango du eta horretarako ariketak eta dementzia kasuen azterketa praktikoak egingo dituzte, besteak beste. Hala, dio irakasleak, "guztiok ikasiko dugu gehiago eta saioak emankorragoak izango dira". Izan ere, honakoa uste du Adinduko kideak: "Dementzia duenaren ondoan bizi denak askotan ez du jakiten nola jokatu. Bada, ikastaroan jarrera zehatz batzuk hartzen erakusten asko saiatuko gara". Noski, hartzaileak jarrera aktiboa erakutsi beharko du ikastaroa arrakastatsua izan dadin.

**GAITZA GERTUTIK BIZI DUTENEI**
Gura duenarendako ateak zabalik izango ditu dementziaren gaineko ikastaroak, Ulaziak jakinarazi duenez. Edozelan ere, gaixotasuna gertutik bizi dutenendako dago bereziki zuzenduta. Hala nola gaixoaren edo pertsona edadetuen zainketa lanetan dihardutenendako edo gaixoaren senideendako.

ESANAK

**"Ikastaroa partehartzailea izango da; hala, guztiok ikasiko dugu gehiago eta saioak emankorragoak izango dira"**

**Sonia Ulazia** > Kurtsoaren irakaslea

ZER DA DEMENTZIA?

## Oraingoz, hedapena ekiditea bakarrik

Antzeko sintomak dituzten burmuineko gaitz ezberdinen multzoari deitzen zaio dementzia, eta gaixoarengan eta ingurukoengan eragin handia du. Ez du sendabiderik, eta, beraz, tratamendu guztiek gaitza ahalik eta geldoen hedatzea dute helburu. Sintomei dagokienez, hiru mailatan eragiten du dementziak gaixoarengan: maila kognitiboan –memoria, ikasteko gaitasuna, lengoaia eta pentsamendua kaltetzen ditu– , maila funtzionalean –gaixoari asko kostatzen zaio eguneroko eginbeharrak egiteaeta azkenik, maila psikologikoan –oso gogorra da, batez ere lehen fasean, gaixoa oraindik jakitun denean.


Dementziak eragin handia du gaixoaren zein ingurukoen bizitzan. GOIENKARIA

**ARRASATEKO UDALA** > AZAROARI DAGOKION OSOKO BILKURA ARRUNTA

# Diru partida batzuk murriztu, beste batzuk handitzeko

Milioi bat pasa euro behar ditu Gobernuak hainbat lan egiteko; hori horrela, gastu batzuk murriztuko ditu diru hori eskuratzeko

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Urtea bukatzear dago, eta Udal Gobernuak beharra du aurrekontua egokitzeko "urte osoan izandako gastu desbideratzeei".

Beste modu baten esanda: 1.304.000 euro behar ditu Gobernuak, gastu batzuetan gertatutako handitzeari aurre egiteko.

Horrela, beste gastu batzuk murriztuta, kopuru hori lortzeko aukera planteatu zion udalbatzarrari joan den egueneko osokoan.

**BEHARRAK, GASTU HANDITZEAK**
Kopururik handiena behar du Zerrajerako etxebizitzetatik bost eskuratu, eta gizarte zerbitzuetarako erabiltzeko (400.000 euro behar ditu). Eta beste 350.000 euro behar ditu Zerrajera gunearen bigarren zatia urbanizatzeko.

Berez, lan hori 2010erako dago aurreikusita. Baina obrak aurreratuta dabiltza, eta Udal Gobernuak uste du egokiagoa dela datorren urteari itxaron beharrean, obra aurreratu eta aurten hastea.

Gizarte Zerbitzuak dira diru gehiago behar duten beste zerbitzu bat. Adibidez, 108.000 euro behar ditu enplegua sustatzeko zerbitzuendako. Eta beste 90.000 euro Ongizate Sailerako kontratatu dituen langileendako.

**GASTUAK TXIKITU: MUSAKOLA**
Gastuok ordaindu ahal izateko, esandako moduan Udal Gobernuak proposatu du beste batzuk murriztea; zehatz esanda, "aurreikusitako inbertsio proiektu batzuen exekuzio erritmoa moteltzea" proposatu du, eta baita zenbait sailetan kontuak jaistea ere.

Adibideak ipinita, Musakolako igerilekuan egin beharreko berrikuntza obren, Erguingo oinezkoen zumardiaren edo Zalduspen gauzatu beharreko obren gaineko proiektuak oraindik idazten dabiltza. Horrek esan gura du dagoeneko ezinezkoa dela 2009an exekutatzea. Hori horrela, aurtengo aurrekontuetatik atera eta datorren urtekotan sartuta, Udalak 715.000 euro lor ditzake.

Beste adibide bat ipintzearren, Iturbide egoitzaren 200.000 euroko defizita ordaintzeko Diputazioaren ezohiko laguntza jasoko du Udalak. Horri esker, 200.000 euroak aurreztuko ditu.

Gobernuaren proposamena aho batez onartu zuten gainerakoek. Ikusi dute "arrazoizko neurria" dela-eta, planteatutako aldaketak "onargarriak" direla.

**ATXILOKETAK SALATU DITU UDALAK**
Diru kontuez gainera, baina, politika kontuak ere landu zituen udalbatzarrak osokoan. Hain justu, ezker abertzaleko hamar kideren atxiloketa salatzeko mozioa onartu zuen. Alternatiba-Zutik, EA eta Aralarrek aurkeztu zuten mozioa, eta bat egin zuten Udal Gobernuak eta EAJk. PSE-EEk kontra bozkatu zuen eta PPko kidea ez zen batzarrean izan.

Hala, onartu egin zuten salatzea ezker abertzalekoak "jardun politikoagatik espetxeratu" ditzatela eta haiek "berehala aska ditzatela" exijitzea. Eta eskatu dute "Alderdien Legea berehala deroga" dezatela, uste dutelako "aukera politiko eta sozial bat desagerrarazteko" dabiltzala erabiltzen.

Hori bai, Aritz Arrieta sozialistak kontra egin eta salatu zuen "batzuek uste dutela guztiak daudela euren kontra", eta ez dela horrela. Azpimarratu zuen Alderdien Legeak ez dituela "ideiak ilegalizatzen". Eta gogora ekarri zuen Europako epaitegiek erabaki zutela Alderdien Legea legearen barruan dagoela. Hainbat datu ere eman zituen: adibidez, 42.000 lagunek jasaten dutela biolentzia jazarpena eta PSE-EEko 339 zinegotzik eta PPko 184k bizkartzainekin ibili beharra dutela.


Zerrajerako urbanizazioa (argazkian) 2009ra aurreratu gura dute, guneko lan orokorrak ere aurreratuta daudelako. U.M.

**EUSKARA** > JARDUN ELKARTEA

# Amodiozko gutunen lehiaketako baldintzak kaleratu ditu Jardunek

Aurreko urteetan ez bezala, San Valentin bezperan banatuko dituzte sariak

Bestalde, ez da SMS bidezko mezuen lehiaketarik egongo

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Dagoeneko martxan dago beste urtebetez Jardun euskara elkarteak antolatzen duen amodiozko gutunen lehiaketa.

Lehiaketaren 18. aldia da eta amodiozko gutunak dira oinarria. Lehiaketan parte har dezakete 1995ean edo lehenago jaiotakoek eta lan guztiek jatorrizkoak, sekula argitaratu gabeak, eta euskaraz izan beharko dute. Lanek gutun forma izan beharko dute eta DIN-A4 orrian eskuz zein ordenagailuz idatzita aurkeztu ahal izango dira. Bestetik, lanen luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan.

Lanak bidal daitezke posta arruntez eta baita posta elektronikoz ere, helbide hauetako batera: Jardun euskara elkartea, Errotalde jauregia z/g, 20570 Bergara eta *amodiozkogutunak@euskalerria.org*.

DATUA

**1.050**

**EURO**

Horixe da Jardun euskara elkarteak saritan banatuko duen diru kopurua: lehenak jasoko ditu 500 euro; bigarrenak, 250; Bergarako onenak, 150; eta 26 urtetik beherako onenak, beste 150.

**SARI-EMATEA OTSAILAREN 13AN**

Lanak aurkezteko mugaeguna da 2010eko urtarrilaren 7a eta lau sari izango dira: lehenengo saria, 500 euro; bigarrena, 250 euro; bergarar onenarendako saria, 150 euro; eta 26 urtetik beherakoendako saria, berriz, 150 euro.

Sari-ematea izango da otsailaren 13an, zapatua, San Valentin egunaren bezperan, eta ez otsailaren 14an, San Valentin egunean, ohi bezala. Jarduneko ordezkariek honela azaldu dute arrazoia: "Otsailaren 14an Aratuste-domeka da, eta, zapatuan mozorrotu eta juerga egiteko ohitura dagoela kontuan izanda, aurreratzea erabaki dugu".

**SMS BIDEZKO MEZUAK**

Aurten ez da gutunen lehiaketarekin batera SMS bidezko mezuen lehiaketarik egingo.

Jardun elkarteko ordezkarien esanetan, "freskotasuna galdu du dagoeneko" lehiaketa horrek. "Sortu genuenean, bitxia, originala zen eta oso momentukoa, baina dagoeneko ez da horrela". Eta gehitu dute: aurtengo ez, baina bagabiltza hura ordezkatuko duen beste lehiaketa baten pentsatzen".

Hori horrela, aurreko urteetan SMS onenari zegokion dirusaria gehitu egin diote 26 urtetik beherako gutun onenari. Hala, 100 euroko saria izatetik 150ekoa izatera pasatu da.

**HIRIGINTZA** > ETXEBIZITZAK

# Beste 207 etxe eraikiko dituzte Urteagan

Babes ofizialeko 128 etxebizitza, tasatutako 24 eta 55 libre eraikitzeko hirigintza hitzarmena onartu du udalbatzak osoko bilkuran



Argazkiko orubean babestutako eta tasatutako etxebizitzak eraikiko dituzte. ANABEL DOMINGUEZ

**M.B.** > BERGARA

Aho batez onartuta geratu da osoko bilkuran Udalak Madura Etxegintzak SL promotorearekin sinatuko duen hitzarmena. Horren bidez, Movilla enpresa zegoen orubean eta Urteaga kalean dauden hainbat lursailetan eraikitzeko guneak zehaztuko dituzte. Hala, promotore horrek 207 etxebizitza eraikiko ditu esandako gunean: 128, babes ofizialekoak; 24, tasatuak; eta 55, libreak.

Babestutakoak eta tasatuak eraikiko dituzte Urteaga kalearen eskuinaldean, gaur egun ere babestutakoak dauden gunean –2010ean hasiko dira eraikitzen–. Libreak, ezkerraldean –60 eraikita daude–. Libreok eraikitzeko Urteaga 25, 27 eta 29. eraikinak bota egingo dituzte eta hango bizilagunak birkokatu.

Udalak promozio horretatik %10 jasoko du konpentsazio gisa eta honela gauzatuko da: 316.000 euro jasoko ditu eta lursaila, babestutako etxeetako 32 egiteko.

**HITZALDIA**

# Pertsona nagusiekin hitz egiteko tresnak

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

*Pertsona nagusiekin nola komunikatu* delako hitzaldia egingo du Aitziber Gine psikologoak hilaren 5ean, eguena, 18:30ean, Miguel Altuna institutuan.

Komunikazioa pertsonen arteko erlazioa eta eguneroko harremanen oinarria da, edo, beste era batera esanda; adierazten eta entzuten jakitea da komunikazioa, beste hainbatek bezala, Aitziber Gine psikologoak adierazten duen moduan. Bada, pertsona nagusiekiko komunikazio onak ulermena errazten du; eta, ondorioz, elkarren arteko ulermena.

Hitzaldia antolatu dute Nagusilanek eta Bizikasik.

## oharrak

KINTADA

**> 1939an jaiotakoek bazkaria egingo dute Zumelagan**

Azaroaren 21ean egingo dute, 14:30ean. Hitzordua egin dute 13:30ean, Fraiskozurin. Izena emateko deitu: 943 76 24 79 (Eulali Elgarresta) eta 943 76 23 94 (Pedro Egaña).

KINTADA

**> 1947an jaiotakoek afaria egingo dute Tartufon**

Abenduaren 5ean egingo dute, 21:00etan. Izenematea da azaroaren 31 baino lehen, Euskadiko Kutxan: 009.1.09901.9. Sartu behar dira 60 euro. Joan-etorrirako autobusa egongo da; 20:30ean abiatuko da Santa Marina ostetik.

KINTADA

**> 1958an jaiotakoek afaria egingo dute Azpeitxi jatetxean**

Azaroaren 14an egingo dute. Txartelak erosteko azken eguna da azaroaren 11, Usoa tabernan. Izena ematerakoan 25 euro aurreratu behar dira.

KINTADA

**> 1930ean jaiotakoek bazkaria egingo dute Zumelagan**

Azaroaren 14an egingo dute. Hitzordua egin dute 14:00etarako Ibargarain, olibondoak dauden loretegian, talde argazkia egiteko. Izena emateko deitu 943 76 26 23 edo 943 76 22 22 zenbakira.

KINTADA

**> 1966an jaiotakoek afaria egingo dute Zumelagan**

Azaroaren 21ean egingo dute. Elkartzeko hitzordua egin dute 19:30erako, Ariznoan, eta afaria izango da 22:00etan. Izenematea da azaroaren 19ra arte, Ariznoan. Aurreratu behar dira 10 euro.

KINTADA

**> 1935ean jaiotakoek bazkaria egingo dute Azpeitxin**

Azaroaren 22an egingo dute, 14:30ean. Izenematea da azaroaren 18a aurretik. Aurreratu behar dira 12 euro, Euskadiko Kutxan.

KINTADA

**> 1943an jaiotakoek bazkaria egingo dute Azpeitxin**

Azaroaren 22an egingo dute, 14:30ean. Izenematea da azaroaren 18ra arte, Comerzio Zubietan (943 76 16 13 eta Tejidos Fernandezen (943 76 53 22).

**UDALA** > HIRIGINTZA

# Seminarioaren eta Arrizuriagaren arteko trukea "hilabeteko epean gauzatuko da"

Agintaldia bukatu aurretik UNED Arrizuriagan kokatzeko lanak bukatuta eta parkea egokituta eta herritarrendako zabalik egongo dira


Arrizuriaga jauregia eta parkearen zatia. GOIENKARIA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Seminarioaren eta Arrizuriagaren arteko permuta "hilabeteko epean gauzatzea espero" duela adierazi zuen Agurne Barruso alkateak eguenean, GOITBko *Goiena magazinea* saioan egin zioten elkarrizketan.

Barrusok azaldu zuenez, UNED Patronatuak oraindik ere erosteke dauka Errege Seminarioa; hala eta guztiz ere, "eskrituratzeko guztia prest" dagoela gehitu zuen, eta "hori gauzatzea agenda kontua" baino ez dela. Eta gehitu zuen: "Behin eskriturak egin eta gero, eta Seminarioa UNED Patronatuaren esku geratzen denean, badute Udalaren eskaria permuta egiteko; eta, hortaz, Patronatua batzartzen den hurrengoan aztertuko da gaia".

Patronatuak erabakia hartzen duenetik permuta gauzatu arte "denbora bat behar da espediente administratiboa sartzen delako tartean, baina dokumentazio guztia aurreratuta daukagu; hortaz, hilabeteko epean espero dut erabaki hori hartzea".

**ARRIZURIAGA PARKEA**

Arrizuriaga parkeari dagokionez, hor ere eginbeharrekoak aurreratuta daudela azaldu zuen: "Parkea bereiztu egin dugu etxetik. Bi sail ezberdin dira eta permuta-gai dagoena dira etxea eta eremurako sarbidea. Hau da, eraikina UNEDen esku geratuko da ikastetxea han koka dezan, baina parkea udal izaerakoa izango da eta erabilera publikoa izango du".

Horrekin lotuta, azaldu zuen parkea egokitzeko lanak egingo direla herrian dagoen lorategi historikoen aldeko taldearen irizpideak aintzat hartuta: "Halako gaietan aditua denari eskatuko zaio parkea txukuntzeko proiektua eta ez paisajista bati, aurreko legealdian bezala".

Parkea erabilgarri noiz egongo den galdetuta, zera esan zuen alkateak: "Asmoa da UNED inauguratzen den egunerako parkea erabilgarri egotea. Ikusten genuen ez zela egokia parkea irekitzea eraikinean obrak egin behar direla kontuan izanda. Eraikinaren eta parkearen lanek, hortaz, bukaera aldera bat egingo dute. UNEDek Arrizuriagarako duen proiektua da urte eta erdikoa; beraz, agintaldia bukatu aurretik egongo da parkea prest".

**JARDUN ELKARTEA**

Gaur egun Arrizuriaga jauregia Jardun elkarteak erabiltzen du, eta, eraikina laga egin beharko duela kontuan izanda, horren gainean ere galdetu zitzaion Barrusori. "Kostatu zaigu Jardunendako kokapen berria topatzea", esan zuen alkateak; "Gaur egun ez dago Bergaran eraikinik Jardunen jardun osoa hartuko duenik. Lortu duguna da Jardunen errefortzu eskolak Udal Euskaltegian ematea eta trikiti eskola Zabalotegiko eskola zaharrera eramatea, eta baita asteburuko aisialdia ere". Eta bukatzeko, hau esan zuen: "Zabalotegi ez da nahi bezain handia, baina bai dagoen aukera bakarrenetakoa".

# Urteroko bazkaria egin zuten Pertxakoek

Aurreko domekan, azaroaren 1ean, urteroko bazkaria egin zuten Pertxa elkarteko bazkideek hainbat lagunekin batera. 65 pertsona batu ziren eta oso ondo ibili zirela esan digute. Urteroko ohiturari jarraituz, Kilometroak Txikia egin zuten; hau da, 1991n ospatutako Kilometroak jaiaren ibilbidea. Gero, elkarterako bidean txikiteoa egin zuten Labegaraietan eta Fraiskozuri inguruan. Eta elkartean, Jose Mari Perezek prestatutako babarrunjan ederra egin zuten.


KIÑU

Japoniako teknologia aurreratuena
ECHO
HAIZE-MAKINAK
eskuzkoak eta bizkarrean eramatekoak

Haize-makina arina: bakarrik 6,10 kilo
Informazio gehiagorako:
943 76 31 52
comercial BRUNET

Haize-makina katalizatzailearekin
CDI piztea
Pizte erraza
Telleria 2, Altos Hornos BERGARA Tel.: 943 76 31 52 - Faxa: 943 76 70 12
*brunett@telefonica.net* • *www.comercialbrunet.com*



Ikusi Makusi antzerki taldeko kideek egubakoitzean estreinatuko dute *El jardín de la alegría* antzezlana. MIREIA BIKUÑA

**PAKE LEKU** > EKITALDIAK

# Antzezlana estreinatuko dute erretiratuek barikuan, kultura astean

Ikusi Makusi taldeak 'El jardín de la alegría' antzeztuko du Santa Ana antzokian eta estreinaldia erretiratuendako bakarrik izango da

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Pake Leku erretiratuen elkarteak kultura astea egingo du gaurtik egubakoitzera arte. Askotariko ekitaldiak egingo dituzte, baina izarra Ikusi Makusi antzerki taldearen emanaldi berria izango da. Egubakoitzean egingo dute *El jardín de la alegría* lanaren estreinaldia Santa Ana antzokian, 17:30ean, erretiratuendako bakarrik. Aurrerago egingo dituzte emanaldi gehiago herritar guztiendako.

Azken asteotan entseguak egin ondoren gertu dute guztia egubakoitzerako. Josefina Martin, Angel Agirre, Carmen Maiztegi, Rosi Lukas, Tere Zubia, Mari Carmen Goitia, Cruz Odriozola, Ana Mari Chacon, Axun Artzuaga eta Ana Mari Liziaga igoko dira oholtza gainera. "Gogor entseatu dugu, eta estreinaldiaren aurretik beste batzuk egingo ditugu", esan digu Axun Artzuagak.

**MARIHUANA LANDATZEA**
Langabezian dauden bi gizonen istorioa kontatzen dute *El jardín de la alegría* antzezlanean. Parke baten elkartuko dira eta egunkariaren laguntzarekin lana topatzeko aukerak aztertuko dituzte. Bi aukera onenen artean zozketa egin, eta marihuana landatzea jartzeko erabakia hartuko dute. Horrek arazo ugari sortuko dizkie biei.

**ASKOTARIKO EKITALDIAK**
Antzerki emanaldiaz gain, beste hainbat ekitaldi egingo dituzte. Gaur 18:00etan Aloña abesbatzak kontzertua egingo du Santa Ana antzokian. Bihar, 17:00etan Jose Antonio Azpiazuk hitzaldia egingo du erretiratuen egoitzan. Eguaztenean, irteera egingo dute San Millan de la Cogollara. Azkenik, eguenean bingo saio berezia egingo dute, 17:00etan. Irabazleendako sari potoloak egongo dira.

**ERREPIDEAK** > BERRIKUNTZAK

# San Lorentzoko zirkulazio aldaketa indarrean dago

ETEO aldameneko errepidea jaisteko bakarrik erabili ahalko dute autoek

**M.B.** > OÑATI
Uztaileko Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen San Lorentzo auzoko zirkulazioren noranzkoa aldatzea. Bada, neurri berriak indarrean daude.

**ETEO-TIK BEHERA**
Zirkulazioak duen aldaketa nabarmenena auzoari buelta ematen dion errepidean antzemango dute gidariek. San Lorentzo 1 zenbakitik –Goiherri Leihoak dagoen tokitik– gorantz hartuko dute autoek eta Larraña Institututik beherantz egingo dute. Dena den, auzoa erditik gurutzatzen duen errepidea bi noranzkoa izango da. Hau da, San Lorentzo 14. zenbakitik ETEOko biribilguneraino bi bide izango ditu errepideak.

ETEO aldeko errepidea noranzko bakarrekoa izango da, eskuin aldean aparkalekuak margotu dituztelako.



ETEO ondoko errepidean behera bakarrik har dezakete autoek. M.B.

## oharrak

ZINEMA
**> 'Vals con Bashir' pelikula zineklubean**
Ari Folman zuzendariaren azken pelikula emango dute eguenean, 20:00etan, zineklubean.

DEIALDIA
**> Odol-ateratzea egingo dute egubakoitzean**
Oñatiko odol emaileen taldekoek odol ateratzea egingo dute egubakoitzean, 18:00etatik 20:00etara, Txantxiku Ikastolan. Urteko azken ateratzea abenduaren 11n egingo dute.

> TELEBISTA

### Lourdes Idoiaga alkatea eguenean 'Goiena magazinea'-n

Lourdes Idoiaga alkatea elkarrizketatuko dute eguenean *Goiena magazinea*-n Eneko Azkaratek eta Arritxu Barrusok. Herriarekin zerikusia duten askotariko galderak erantzungo ditu alkateak.

Ikus-entzuleek ere galderak egiteko aukera izango dute. Horretarako aukera batzuk dira 943 25 05 03 telefonora deitzea eta *magazinea@goiena.com* helbidera idaztea.

## Emaitza onak Xabier Gartziarendako

Aloña Mendiko karateka Xabier Gartziak bi sari lortu zituen azaroaren 1ean Azkoitian jokatutako Gipuzkoako txapelketan. Kata modalitatean hirugarren tokian sailkatu zen eta 76 kilotik gorakoendako kumite txapelketan, bigarren. Hain zuzen ere, oñatiarrak junior mailako probatan parte hartu zuen.



ALBERTO LERA

> HEZKUNTZA

### Elkar Heziko DBHko ikasleek SM argitaletxearen lehiaketako bigarren saria eskuratu dute

Irakurzaletasuna bultzatze aldera Elkar Heziko DBHko laugarren mailako ikasleek ekainean estreinatutako erreportajeak saria eskuratu du; hain zuzen ere, SM argitaletxeak deitutako lehiaketako bigarren saria eskuratu du. Epaimahaiak baloratu ditu ekimenaren originaltasuna, literaturaren didaktikari egiten dion ekarpena, gurasoen parte-hartzea eta teknologia berrien erabilpena. Sari banaketa ekitaldia urtarrilean egingo dute, eta sari modura jasoko dituzte 5.000 euro, liburu bilduma bana erreportajean parte hartu duten ikasleendako eta lau pertsonarendako ordaindutako bidaia Valentziara.

Elkar Heziko ikasleak eta irakasleak pozik daude lortutako emaitzarekin, eta eskerrak eman gura dizkiete erreportajean parte hartutako guztiei: Natur Eskolari, Arrikrutz Kobei, kultura etxeari, postetxeari eta aktore lanetan ibili ziren Imanol Biaini, Asun Artzuagari eta Maibi Arregiri.

**ARETXABALETA** > UDALA

# Herritarren partaidetza bultzatzeko 'Kudeatuz' proiektua iritsi da gurera

Udal politika publikoen harira, aretxabaletarrek duten iritzia jasoko dute

**M.B.** > ARETXABALETA

Gipuzkoako Diputazioko Lehendakaritza eta Foru Administrazioko diputatu Edurne Egañak eta Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok lankidetza hitzarmena sinatu dute, herritarren partaidetza eta politika publikoen ebaluzioa egiteko. Udalaren politika publikoen harira, aretxabaletarrek duten balorazioa edo gogobetetzea neurtu nahi da horren bidez.

Esandako ekimena *Kudeatuz* delako proiektuaren barruan sartuta dago. Aretxabaletarekin batera, joan den uztaila ezkero, Gipuzkoako beste bederatzi udalerri parte hartzen ari dira esandako egitasmoan; tartean, Bergara. Diputazioak, guztira, 100.000 euro bideratuko ditu kontsultak eta azterketak egiteko.

**TELEFONO BIDEZKO IKESTAK?**

Udalaren politika publikoak baloratzeko bi atal dituen azterketa egingo da herrian: batetik, telefono bidezko inkestak egingo zaizkie ausaz aukeratutako herritar hainbati; eta bestetik, norberak betetzeko galdera sorta laburra bidaltzen ari dira egunotan udalerriko etxe guztietara.

Azken horretan, 11 udal zerbitzu balora ditzakete herritarrek: Kultura, Kirola, Gizarteekintza, Segurtasuna eta Babesa, Obrak eta Zerbitzuak, Euskara, Hirigintza, Ingurumena, Osasuna, Enplegua eta Gazteria, hain justu ere.

Zerbitzu bakoitzari nota orokorra eman beharko diote 0tik (izan litekeen notarik txarrena) 10era (baloraziorik onena). Horrekin batera, egoki iritzitako iradokizun, ideia edo hobekuntzak sar daitezke.

**MOZIOAREN ERAGINAK**

Sinadura hitzarmenean azaldutakoaren arabera, egitasmo horren helburua da erakundeen, eta, kasu honetan, Udalaren eguneroko lana hobetzea. Hortaz, aretxabalerrei gonbitapena egin diete etxera iristen zaien galdera sorta bete dezaten eta ahalik eta iradokizun gehien egin ditzaten.

Galdera sortarekin batera, kartazala ere iritsi zaie herritarrei etxera, hura erantzuterakoan bertan sartu eta postontzian bota dezaten, zigilu eta inongo kosturik gabe. Horren gaineko zalantza dutenek edo informazio gehiago nahi dutenek udaletxera dei dezakete.

**ESKORIATZA** > UDALA

# Domeinu publikoa erabiltzeagatik telefonia enpresek tasa berria ordaindu beharko dute

Operadoreak derrigortuta egongo dira urtero 17.800 euro jartzera

Zerga berria izango dute kaleko makina automatikoek, kutxek eta banketxeek



Eskoriatzako hilerriaren inguruan telefonia antena dago. GOIENKARIA

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Eskuko telefonoen zerbitzuak ematen dituzten telefonia enpresek tasa berria ordaindu beharko dute laster Eskoriatzan, Udalaren domeinu publikoaren erabilera pribatua eta aprobetxamendu berezia egiteagatik.

Joan den eguenean egindako ezohiko osoko bilkura urgentean, esandako zerga arautzeko ordenantzaren hasierako onarpena eman zion aho batez udalbatzak. Guztira, sei zinegotzik parte hartu zuten bilkura hartan: Udal Gobernuko Pedro Lasagabasterrek eta Dorleta Lezetak, Alkarbideko Karmelo Lezetak, EAJko Aitor Urrutiak, PSE-EEko Iñaki Pierruguesek eta EB-Berdeak taldeko Juan Luis Merinok.

**LAU ENPRESA HERRIAN**

Proposamena azken talde horrek aurkeztu du. Eskoriatzako Udalean alderdi horrek duen zinegotzi Juan Luis Merinok azaldu digu ordenantza berria indarrean jartzen denean, udalerrian zerbitzua eskaintzen duten telefonia operadoreek 17.800 euro ordaindu beharko dituztela urtero. Eskoriatzan Movistar, Euskaltel Moviles, Vodafone eta Orange enpresak daude. Bakoitzak ordaindu behar duen kopurua neurtzeko Telekomunikazio agentziak egindako txostena izan dutela adierazi du. Merinok arau di berria sortzearen beharra ere azpimarratu du: "Telefonia enpresek urte asko eman dituzte herritarretatik probetxua ateratzen; horko zati bat herrira itzul dadin egin dugu ordenantza".

**BANKETXEEI TASA BERRIA**

Bestalde, EB-Berdeak taldeak proposatuta, datorren urteko ordenantza fiskalek tasa berria aplikatzea aurreikusten dute. Hain justu ere, domeinu publikoaren erabilera pribatua egiten duten banketxeei eta aurrezki kutxei eta edarien edo jatekoen makina automatikoei urtero 123,6 euro kobratzea. Udalbatzak behin-behineko onarpena eman zien urriaren 28an ordenantza horiei.

**ARETXABALETA**

## 'Ipar Gazi-Hego Geza' emanaldia dago asteon

Antichristo, 'La montaña embrujada' eta 'Pagafantas' filmak ikusgai daude

**M.B.** >ARETXABALETA

Arkupeko egitarauaren harira, bihar, martitzena, *Ipar Gazi-Hego Geza* delako ikusentzunezkoa egongo da Zaraia aretoan, 19:30ean. Ordubeteko emanaldi horretan, familia giroan bizikletan bidaiatzeko esperientzien berri emanten da.

Zinemari dagokionez, hiru film egongo dira aukeran. Egueneko zinekluban, *Antichristo* filma egongo da, 19:30ean, lau euroren truke. Hilaren 13tik 16ra bitartean, berriz, Borja Kobeagak zuzendutako *Pagafantas* ikusteko aukera izango dute zinema gustuko dutenek. Ohikoa den moduan, haurrendako filma ere egongo da domekan, azaroak 15. *La montaña embrujada* dago, 17:00etan.

> ARETXABALETA

### Basotxok hitzaldi interesgarriak egingo ditu datozen egunotan

Aretxabaletako erretiratuen elkarteak hitzaldi interesgarriak antolatu ditu datozen egunei begira. Bihar, martitzena, gortasuna zelan ekiditeko hainbat gomendio eskainiko dituzte eta azaroaren 16an autoestimuaz egingo dute berba. Hitzaldiak 17:00etan izango dira Basotxoko bulegoetan.

Bestalde, elkarteak gogorarazi du abesbatzak entsegua duela bihar, 18:00etan. Abestea gustuko duten bazkideei dei berezia egin diete.

> ESKORIATZA

### Mendi bizikleta martxako kamisetak salgai jarri dituzte

Eskoriatzako Areka BTT elkarteak salgai jarri ditu XX. mendi bizikleta ibilaldiko parte-hartzaileei banatzeko egin ziren kamisetak. Jakinarazi dutenez, gutxi batzuk geratzen dira eta ez daude neurri guztiak; horregatik, prezio sinbolikoa dute: 5 euro, hain zuzen ere.

Kamisetak joan den eguenean jarri ziren salgai, unibertsitate parean dagoen IGEHIK inprentan.



Udalaren asmoa da eguneko zentroa Lugorri pasealekuan egitea. JONE INUNTZIAGA

**ARAMAIO** > GIZARTE ZERBITZUAK

# Eguneko zentroa atzeratu egingo dela dio Udalak

Arabako Diputazioarekin hitzarmena sinatzeko zain daude dirulaguntza jaso eta lanak hasteko

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Uztailaren hasiera aldera Arabako Diputazioak iragarri zuen Aramaioko Udalarekin hitzarmena sinatuko zuela bertan eguneko zentroa egiteko. Proiektu horretarako aurreikusitako aurrekontua 150.000 euro zirela azaldu zuten prentsa ohar baten bidez. Aramaioko Udala aspalditik zebilen Diputazioarekin negoziazioak egiten herrian eguneko zentroa eraikitzeko eta Aldundiak hitzarmenaren berri eman zuenerako Udalak ordurako landuta zeukan eguneko zentroaren proiektua. Hasiera batean, hitzarmena uztail amaieran sinatzea erabaki zen eta Udalaren asmoa zen urtea amaitu aurretik lanak hastea. Kontua da urtea amaitzear dagoela eta hitzarmena sinatzeke dagoela oraindik. "Guk etxeko lanak eginda ditugu, eguneko zentroa eraikitzeko diru partida gordeta daukagu, lokala badaukagu eta proiektua ere landuta dago. Diputazioaren dirulaguntza jasotzeko zain gaude lanak hasteko", argitu du Asier Agirre alkateak. Agirre arduratuta azaldu da: "Proiektu garrantzitsua da, aramaioarrek urteak daramatzate eguneko zentroa eskatzen. Herritarrak, gainera, badabiltza galdezka eta izena ematera ere etorri da bat baino gehiago". Alkateak espero du Aldundiarekin hitzarmena lehenbailehen sinatzea.

**LUGORRI PASEALEKUAN**

Eguneko zentroa Lugorri pasealekuan egitea da Udalaren asmoa. 130 metro koadro inguru izango ditu. Zentroak gela nagusia, sukaldea, biltegia, garbitegia eta erizaintza gela izango ditu. Bestalde, bi komun izango ditu: komun arrunta bat eta geriatrikoa bestea.

**ELGETA** > IBILGAILUENDAKO ARAUDIA

# Udala pozik ibilgailuendako arautegi proposamenak izandako lehen harrerarekin

Foroa atzera ere hilaren 18an, eguaztena, batuko da agertu diren kezkak eta eskaera zehatzak aztertzeko

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Udalak balorazio positiboa egin du aurreko astean egindako ibilgailuen arautegi proposamenaren aurkezpenaren inguruan. Hogei lagun pasatxo agertu ziren ekitaldira, eta "jarrera orokorra, oinezkoen kaleetan ibilgailuen erabilera murriztearen aldekoa" dela azaldu dute Udaletik.

Bertaratutakoek parte-hartze handia erakutsi, eta ekarpen interesgarriak egin zituztela ere azaldu dute. "Hitzaldiaren ostean, sei herritar gehiagok bete zuten gai hori aztertuko duen foroan parte hartzeko fitxa". Foro hori hilaren 18an batuko da 19:00etan udaletxean.

**ZENBAIT EKARPEN**

Elizatik eskolaraino doan Maala kalea ere oinezkoendako izendatzea izan zen jasotako proposamenetako bat, haurrak ibiltzen diren lekua delako. Salbador kalearen atzeko aldean aparkatzea ere ohitura bihurtu izana salatu zuten batzarrean, eta galdetu zuten nork daukan Udalean isunak ipintzeko eskumena. Gainera, arautegiaren aurrean egoera pertsonal eta familiar zehatzak aurreikustea komenigarria ikusi zen batutakoen artean.

**ANTZUOLA** > KIROLA

# Gaur zabalduko dute gimnasioan izena emateko epea

Mantentzeko eta hirugarren adinekoendako gimnasia, *spinning*, pilates, aerobik, *total fitness*, batuka eta karate saioak daude aukeran

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Gaur, azaroak 9, zabalduko dute izena emateko epea Eguzki auzoko gimnasio berrian. Astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 12:00etara eta martitzen eta eguenean 18:30etik 21:00etara joan ahal izango da; hilaren 16tik aurrera *fitness* monitorea dagoen orduan.

Honako jarduerak izango dira aukeran gimnasioan: Martitzenetan eta eguenetan 20:30ean monitorea egongo da fitness gelan eta ariketen programa eskuratzeko aukera emango dute.

Astelehen eta eguaztenetan *spinning* eskolak 09:15ean eta 19:30ean izango dira; aerobikekoak 10:15ean; *total fitness*-a 18:30ean; eta batuka gaztea 17:30ean. Martitzen eta eguenetan *spinning*-a egongo da 20:30ean; pilates saioak 09:30ean eta 18:30ean; aerobika 20:30ean; total fitness-a 15:00etan; mantentze gimnasia 19:30ean; hirugarren adinekoendako saioak 10:30ean; eta karatea 16:45ean eta 17:45ean.

Egubakoitzetan jarduera bereziak egongo dira izena eman duten erabiltzaileendako.



Spinning egiteko aukera izango da gimnasio berrian. GOIENKARIA

**LEINTZ GATZAGA** > UDALA

# Herriko bake epaile izateko eskaerak aurkez daitezke

Bake epaile titularra eta ordezkoa hautatu gura ditu Udalak datozen lau urterako

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gatzagako bake epailea eta haren ordezkoa hautatzeko prozesua jarri du abian Udalak. Hala iragarri zuen urriaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 17an bukatuko da.

**18 URTETIK GORAKO GATZAGARRA**

Bake epaile izan gura duten herritarrek hainbat baldintza bete behar dituzte; hona garrantzitsuenak: 18 urte beteta izatea; Gatzagan bizitzea; euskaraz jakitea –ahoz behintzat–; kargu politikorik edo sindikalik ez izatea; eta administrazioko langilea ez izatea –irakaskuntzan eta ikerketan lan egiten dutenak aurkez daitezke–. Udalak osatutako epaimahaiak eskaera guztiak aztertuko ditu eta elkarrizketak egingo dizkiete baldintzak betetzen dituztenei. Elkarrizketa horietan euskara maila eta posturako egokia den edo ez baloratuko dute; gainera, egindako ikasketei puntu osagarriak emango dizkiete. Bake epailearen izendapena udalbatzak egingo du gero, osoko bilkuran.

**ERREGISTRO ZIBILAREN ARDURA**

Jose Inazio Beloki izan da azken urteotan herriko bake epaile eta berria lau urterako hautatuko dute. Egubakoitzetan joaten da udaletxera Beloki dagokion lanak egitera, baina ez dauka ordutegi zehatzik. Erregistro zibilari dagozkion kontuak bideratzen ditu batez ere: jaiotzak, ezkontzak, liburuetan inskripzioak... Eta bitartekari lanak ere egiten ditu, epaitegietatik gatzagarrendako datozen deialdiak bideratu, esaterako.

# Kirola



**> FUTBOLA**
Bergarak denboraldiko laugarren garaipena erdietsi zuen Berioren aurka **> 25**



**> ESKUBALOIA**
Ford Mugarri hirugarren da sailkapenean Portugaleteri 36-20 irabazi ostean **> 26**



**> ELKARRIZKETA**
Iñaki Uribetxeberria squash jokalari aretxabaletarrarekin izan gara **> 27**

**LASTERKETA** > MARATOI ERDIA

# 439 debagoiendarrek amaitu dute aurten Behobia-Donostia

### IRABAZLEAK
Rafa Iglesias (1:01:16) eta Maria Jesus Pueyo (01:12:15) nagusitu dira 45. edizioan

### DENBORALEA
Ez da markarik hautsi, euriak eta batez ere haizeak gauzak asko zaildu dituelako

**LARRAITZ ZEBERIO** > BERGARA

Eguraldi makurra izan da lasterketako ezaugarrietako bat. Giro petralak dezente zaildu du aurten lasterkarien lana, baina esan beharra dago parte-hartzaileen animuan eta ohiko festa giroan apenas nabaritu zela ondoriorik.

Lasterketa bat baino gehiago jokatzen dira urtero Behobia-Donostian. Irabazle handiak, titularretako irabazleak, Rafa Iglesias (01:03:16) eta Maria Jesus Pueyo (01:12:15) izan dira, salamancarra eta aragoiarra, hurrenez hurren. Badira, ordea, beste irabazle batzuk. Esaterako, Jose Castilla elbarritua (01:13:06), MariCarmen Paredes itsua (01:27:08) edo lasterketa lehenengo aldiz egin eta amaitzea lortu duten milaka parte-hartzaile.

Antolatzaileek ere pozik egoteko moduan daudela esan digute. Parte-hartzaile batek baino gehiagok antolakuntza, aurten, bikaina izan dela diote.

**439 DEBAGOIENDAR**

Oñatiar bat izan da aurten ere debagoiendar azkarrena; Ekaitz Osa (01:08:14). Emakume azkarrena, berriz, bergararra izan da: Josune Garitano (01:24:36).

Marka egiteko helburuarekin irten edo ez, guztiek izango dute gaur gogoan lasterketa hasi aurretik Behobian sendo botatako txingorra, animuak altxatzeko antolatzaileek ipinitako musika dantzagarriak edo lehenengo metroetako bide bazterrean pilatutako plastikoak eta kamisetak.

"Txapela airean jendea saltoka dantzan ikusi dut irteeran", adierazi digu parte-hartzaile batek. Argi dago lasterkariek ez dutela erraz ahaztuko haizearen indarrak Grosetik Zurriolarako kurban emandako ezustea, baina gogoan izango dituzte halaber bide bazterretatik jasotako animu oihuak. "Ikaragarria da", adierazi digu beste lasterkari batek. "Konturatu gabe igo dut Mirakrutzeko gaina!".

DATUA

**25**

**GUTXIAGO**

Iaz baino 25 lasterkari debagoiendar gutxiago iritsi dira Donostiako helmugara. Bergara izan da ordezkari gehiago izan dituena, 128; eta Ekaitz Osa oñatiarra izan da debagoiendar azkarrena.

## Ibarreko lehenak

**GIZONEZKOAK**

| | |
|---|---|
| 1. Ekaitz Osa | 1:08:14 |
| 2. Asier Urdanpilleta | 1:10:23 |
| 3. Arkaitz Ruiz de Loizaga | 1:10:17 |
| 4. Ricardo de Goñi | 1:11:14 |
| 5. Imanol Molinero | 1:11:53 |
| 6. Iker Herran | 1:14:36 |
| 7. Julen Garitano | 1:14:51 |
| 8. Asier Osinaga | 1:14:58 |
| 9. Iñaki Muxika | 1:14:58 |
| 10. Joxu Arana | 1:15:03 |
| 11. Juanma Martinez | 1:15:39 |
| 12. Igor Lazkano | 1:15:46 |
| 13. Iñigo Pagaldai | 1:16:33 |
| 14. Iker Larrea | 1:16:51 |
| 15. Igor Gorosarri | 1:16:56 |
| 16. Iban Agirrebeña | 1:16:57 |
| 17. Ruben Ramos | 1:17:20 |
| 18. Mikel Zubiria | 1:17:41 |
| 19. Jabi Ibarra | 1:17:42 |
| 20. Fernando Rezabal | 1:18:27 |

**EMAKUMEAK**

| | |
|---|---|
| 1. Josune Garitano | 1:24:36 |
| 2. Maitane Lana | 1:29:19 |
| 3. Maixol Iparragirre | 1:33:45 |
| 4. Saioa Ugidos | 1:33:51 |
| 5. Marije Velasco | 1:34:06 |
| 6. Zuriñe Ezpeleta | 1:34:47 |
| 7. Ane Eraña | 1:35:25 |
| 8. Miren Isasisasmendi | 1:36:14 |
| 9. Saioa Berraondo | 1:36:23 |
| 10. Ana Isabel Urmeneta | 1:37:33 |




**HELMUGA** Rafa Iglesias Salamanca helmugara iritsi zen unean.

JOSETXO ARANTZABAL



Lasterketa bukatu ondoren, korrikalariek masajea hartzeko aukera izan zuten Gipuzkoa plazan jarritako gunean; asko animatu ziren. JOSETXO ARANTZABAL



Eguraldiari aurre eginez, zale ugari bildu zen Boulevarden korrikalar



Aitor Atxa eta Iker Irizar antzuolarrak, arropa aldatu ondoren. JOSETXO ARANTZABAL



Oihan Vega bergararra musika jartzen. J.A.



Imanol Molinero oñatiarra, helmuga pasa ondoren.



Rafa Guridi eta Jon Urtatza oñatiarrak. JOSETXO ARANTZABAL



Mikel Arconada arrasatearra. JOSETXO ARANTZABAL




Lur Sanpedro, Urtzi Berasaluze eta Ihintz Bengoa arrasatearrak.

## DEBAGOIENDARRAK BEHOBIA-DONOSTIAN



**Ekaitz Osa**
Oñati

"Eguraldi txarra egin du, eta haizea indartsu ibili da zenbait tokitan. Ez diot erlojuari begiratu, baina halako giroarekin norberak egiten duen denbora gutxienekoa izaten da. Ondo pasatzera etorri naiz".



**Asier Osinaga**
Oñati

"Hamabigarren Behobia nuen gaurkoa eta egin dudan gogorrena izan da. Nekatuta eta hoztuta nago. Eguraldi iragarpena txarra bazen ere, ez dut izan etxean geratzeko gogorik".



**Jabi Ibarra**
Bergara

"Irun aldean kazkabarra bota du, baina gogorrena haizea izan da. Entrenamendu moduan hartu dut lasterketa; izan ere, hiru aste barru Donostiako maratoian parte hartuko dut".



**Aratz Losada**
Oñati

"Lehenengo aldiz hartu dut parte eta Donostiako maratoiaren prestakuntza egitera etorri naiz. Gustura nago, baina Gaintzurizketako igoera oso gogorra egin zait. Hurrengo urtean etorriko naiz".



**Daniel Gillegi**
Elgeta

"Ez da horren txarra izan. Eguraldi iragarpena oso eskasa zen, baina ez zait gogorregia egin. Haizea indartsu ibili da toki batzuetan, baina ondo bukatu dut. Ez dakit ze denbora egin dudan".


...riak animatzeko. Giro ezin hobea egon zen. JOSETXO ARANTZABAL


JOSETXO ARANTZABAL


Gurpil-aulkiaren ere gogor. J.A.


JOSETXO ARANTZABAL


Zapatillako txipa kentzen. J.A.

AIPATZEKOAK

## Behobia txikia bertan behera utzi zuten

Atzo goizean egiten zuen haize indartsuaren eraginez, III. Behobia Txikia bertan behera utzi zuten antolatzaileek. Ordurako irteeran zeuden gaztetxoek triste samar hartu zuten berria. Batzuek etxerako bidea hartu zuten, eta beste batzuk proba nagusia ikusten

## 154.000 edalontzi jarri zituzten korrikalarien eskura

Helmugan izan ezik, korrikalariek ez zuten ur botilarik erabili. Ibilbidean zehar 1.000 litroko hamar edukiontzi eta uda edateko birziklatu zitezkeen 154.000 kartoizko edalontzi jarri zituzten. Edalontziak ez erortzeko erretiluak jarri zituzten.

## Maitane Goñiren aldeko txartelak saldu zituzten

Haurtzaroko muskulu-atrofia espinala duen Maitane Goñi pasaitarraren ebakuntzarako dirua batzeko txartelak saldu zituzten ibilbide osoan zehar. Guztira, 4.000 txartel saltzeko asmoa zuten. Saltzaileak *Guztiok Maitanerekin* zioen kamisetak zituzten soinean.

## 'Eskerrik asko', antolatzaile taldearen partez

Fortuna Elkarteko kideek omenaldi berezia egin zieten urtero Behobia-Donostia lasterketa txaloekin berotzen duten zaleei. Kamisetatan, akreditazioetan eta lasterketako kartoletan *Eskerrik asko* leloa erabili dute. Guztiei, eskerrak eman zizkieten Boulevardeko helmugan, eta inoiz baino zale gehiago bildu zirela esan zuten behin eta berriz.

LASTERKETA BARRUTIK

**> ETXEAN, 07:30EAN** "Iratzargailuaren laguntzarekin esnatu naiz, eta leihora hurbildu naizenean euri zaparrada galanta ziharduen".

**> 11:15EAN** "Irteera hartzeko zain geunden Behobian. Zaparrada itzela bota du, txingor eta guzti. Haizeak ere indartsu jotzen zuen. Baina giroa izugarria zen. Kortatu taldearen *Sarri sarri* kantua jarri digute, eta korrika egiten hasteko puntuan baino, parrandan geundela zirudien".

**> 11:30EAN** "Dortsal zuria nuenez, azken taldean irten naiz. Lehen metroak oinez egin ditut, baina berehala hasi naiz korrika. Hasi orduko kendu ditut mauka luzeko kamiseta eta euritik babesteko jarrita nuen zabor poltsa. Musikaren laguntzarekin hasi dugu lasterketa Iñigok, Mirenek eta hirurok".

**> 5. KILOMETROA** "Konturatu orduko, bete ditut lehen bost kilometroak. Zaleen animuak izugarriak dira. Halako batean 'Aupa Arantzazu' esan didate eta indarberritu egin naiz".

**> GAINTZURIZKETA** "Zortzigarren kilometroa beteta, igo dut Gaintzurizketa. Nire buruari esan diot 'zailena egin duzu'. Ordura arteko erritmo lasaiarekin egin dut korrika".

**> LEZO** "Lezo inguruko hiru kilometroak oso gogorrak direla diote askok, baina niri ez zaizkit horren zailak egin".

**> 12. KILOMETROA** "Lehen aldiz edan dut ura. Lasterketa hasi aurretik Fortuna elkartekoek bidali ziguten mezu bat ura nola edan behar genuen azaltzeko, baina korrika egin eta ura edatea ez da erraza. Kartoizko edalontziekin edan dugu. Erritmoa indartu egin dut".

**> MIRAKRUZ** "Erritmoa jaitsi egin dut, hanketan nekea sumatu dut-eta. Realeko jokalari ohi Jesus Mari Zamora ikusi dut zaleen artean".

**> GROS** "Grosetik Zurriola aldera egin dugunean haizeak atzeraka bota gaitu, indartsu zebilen-eta. Realeko jokalari ohi *Bixio* Gorriz aurreratu dut puntu horretan. Rafa Mungia kazetari arrasatearrarekin berba egiteko aukera izan dut".

**> HELMUGA** "Sasoi onean heldu naiz. Ez naiz emakumeen podium nagusira igo, baina Murgia auzoko podiumera bai! Bestalde, korrikalariak animatuko nituzke herri mailan antolatzen diren probetan parte hartzera. Hurrengo urtera arte!".


Arantzazu Ezkibel Boulevardeko helmugara heltzen. JOSETXO ARANTZABAL

DEBAGOIENDARRAK BEHOBIA-DONOSTIAN



**Susana Arrese eta Nekane Maiztegi**
Oñati

"Lehen aldia da Behobia egin duguna. Egia esan, beldur ginen eguraldi iragarpenagatik, baina uste baino hobeto ibili gara. Dortsal zuria dugunez, azken taldean irten gara eta zain geunden bitartean zaparrada formala bota du. Dena den, asko disfrutatu dugu, lasterketa barruko giroa ezin hobea da-eta. Zaleen animuak eskertzen dira. Hurrengo urtean itzuliko gara".



**Mikel Etxaniz**
Osintxu

"Eguraldi iragarpenarekin nahiko beldurtuta etorri gara guztiok. Pasaia aldean kazkabarra bota du. Goizean gustura nengoen ohean, baina nagitasunak utzita gogotsu etorri naiz".



**Aitzol Guridi**
Oñati

"Irteera hartu aurretik busti egin gara. Gainera, haizea protagonista izan da ibilbide guztian, eta halako egoeratan norbere denbora hobetzea oso zaila izaten da, baina gustura nago".



**Fernando Rodriguez**
Bergara

"Lesionatuta etorri naiz, eta ez nekien noraino helduko nintzen, baina zaleen animuekin errazago egiten da bidea. Lehen bi kilometroetan euria gogotik bota du, eta gogorra izan da".

## emaitzak eta sailkapenak

### ANTZUOLA

| | | |
|---|---|---|
| 219 | Julen Garitano Alustiza | 01:14:51 |
| 366 | Iker Larrea Soraluze | 01:16:51 |
| 992 | Mikel Montori Zabaleta | 01:21:09 |
| 1312 | Jon Aranguren Fernandez | 01:22:44 |
| 1412 | Ibai Mendi Bilbao | 01:23:13 |
| 2194 | Jon Gurutz Alberdi Muxika | 01:26:08 |
| 2363 | Luis Mari Larrea Gabilondo | 01:26:43 |
| 2832 | Gorka Garitano Arregi | 01:28:06 |
| 2831 | Jon Kortabarria Arando | 01:28:06 |
| 3436 | Oscar Velarde Bernal | 01:29:40 |
| 3760 | Andoni Iparragirre Conget | 01:30:31 |
| 4506 | Cesar Miota Peña | 01:32:39 |
| 4993 | Asier Aranguren Ezkurra | 01:33:56 |
| 5893 | Jon Arregi Retolaza | 01:36:04 |
| 5916 | Iker Irizar Izagirre | 01:36:07 |
| 5950 | Modesto Caceres Martin | 01:36:13 |
| 6716 | Eneko Zabaleta Urreta | 01:37:59 |
| 8490 | Asensio Aranburu Larrañaga | 01:42:18 |
| 8897 | Andoitz Aranburu Irastorza | 01:43:22 |
| 8946 | Mikel Larrañaga Kortabarria | 01:43:31 |

### ARAMAIO

| | | |
|---|---|---|
| 4630 | Jonathan Unzalu Rincon | 01:32:59 |
| 11462 | Erlantz Egidon Garmendia | 01:50:51 |

### ARETXABALETA

| | | |
|---|---|---|
| 471 | Mikel Zubiria Murguzur | 01:17:41 |
| 1638 | Manu Cebrino Lozano | 01:24:00 |
| 1857 | Josu Antxia Unanue | 01:24:50 |
| 2324 | Fran Migel Quintero | 01:26:35 |
| 2325 | Andoni Migel Quintero | 01:26:36 |
| 2656 | Josu Zubia Ramos | 01:27:38 |
| 3217 | Kepa Antxia Uribeetxebarria | 01:29:05 |
| 3313 | Aitor Bengoa Lopez | 01:29:19 |
| 3310 | Maitane Lana Jauregi | 01:29:19 |
| 3425 | Unai Kerejeta Lopez | 01:29:38 |
| 3628 | Jon Urtaza Agirrezabal | 01:30:10 |
| 3908 | Jon Zubillaga Urtzelai | 01:30:55 |
| 4197 | Jabi Gartzia San Martin | 01:31:50 |
| 5068 | Roberto Negro Martinez | 01:34:05 |
| 5442 | Jon Uribe Ocon | 01:34:57 |
| 5927 | Igor Letona Biteri | 01:36:10 |
| 6711 | Ander Hernandez Akizu | 01:37:58 |
| 6937 | Ander Barbarias Berezibar | 01:38:31 |
| 7990 | Jon Torres Nuñez | 01:41:02 |
| 8137 | Maite Zabaleta Egaña | 01:41:27 |
| 8672 | Leire Guenetxea Mondragon | 01:42:47 |
| 8901 | Rober Azkarate Zabalo | 01:43:23 |
| 8916 | Luis Mari Del Palacio Alvarez | 01:43:25 |
| 9147 | Mikel Mendiaraz Elexpuru | 01:44:03 |
| 9959 | Oier Sarasua Maritxalar | 01:46:20 |
| 10024 | Mikel Busto Agirreurreta | 01:46:29 |
| 10140 | Jorge Davila Roman | 01:46:52 |
| 10585 | Anabel Aranzadi Martin | 01:48:08 |
| 11097 | Maite Arkauz Arenaza | 01:49:34 |
| 11339 | Igor Ganboa Uriarte | 01:50:25 |
| 11358 | Juan Antonio Uribe Uriarte | 01:50:29 |
| 11994 | Jose Maria Etxebarrieta Lopez | 01:53:00 |
| 12945 | Asier Murgoitio Luelmo | 01:57:11 |
| 13910 | Unai Beitia Arresigor | 02:03:33 |
| 14622 | Agurtzane Azkargorta Garai | 02:14:39 |

### ARRASATE

| | | |
|---|---|---|
| 269 | Juanma Martinez Remedios | 01:15:39 |
| 424 | Ruben Ramos Romeo | 01:17:20 |
| 425 | Patxi Garcia Oiarzabal | 01:17:21 |
| 505 | Juan Luis Murgia Uribetxeberria | 01:17:56 |
| 518 | Txus Goikoetxea Garralde | 01:17:59 |
| 522 | Luis Usatorre Aranzabal | 01:18:01 |
| 624 | Endika Donnay Otegi | 01:18:47 |
| 674 | Jon Agirre Agiriano | 01:19:07 |
| 673 | Jose Gabriel Urizar Murgoitio | 01:19:07 |
| 817 | Jon Osinaga Astigarraga | 01:20:00 |
| 938 | Eneko Urrizalki Jauregi | 01:20:49 |
| 1650 | Raul Mendiaraz Atxa | 01:24:03 |
| 1786 | Angel Delgado Iglesias | 01:24:36 |
| 2266 | Josu Arkauz Arana | 01:26:23 |
| 2289 | Alberto Rodriguez Pinedo | 01:26:27 |
| 2313 | Iban Aranguren Zubillaga | 01:26:33 |
| 2611 | David Amutxastegi Gonzalez | 01:27:30 |
| 2664 | Raul Fernandez Manchado | 01:27:39 |
| 2676 | Iñigo Labaien Iraeta | 01:27:41 |
| 3045 | Premin Sampedro Larrañaga | 01:28:36 |
| 3294 | Kepa Larrea Beldarrain | 01:29:17 |
| 3372 | Ramon Goñi Farras | 01:29:29 |
| 3389 | Jose Miguel Bastardo Juarez | 01:29:31 |
| 3394 | Jose Ignacio Gastañaga | 01:29:32 |
| 3590 | Garikoitz Barrutia Mendizabal | 01:30:06 |
| 3850 | Rikardo Zubillaga Atxa | 01:30:45 |
| 3895 | Xabier Bergaretxe Zubizarreta | 01:30:52 |
| 4248 | Andoni Ozaeta Mendiaratx | 01:32:03 |
| 4537 | Josu Ugarte Azkarraga | 01:32:43 |
| 4687 | Gorka Egizabal Martinez | 01:33:11 |
| 5073 | Marije Velasco Garcia | 01:34:06 |
| 5078 | Kepa Urra Guridi | 01:34:06 |
| 5095 | Iñigo Xabier Azkarate Morras | 01:34:08 |
| 5304 | Edu Zabala Bilbao | 01:34:36 |
| 5369 | Zuriñe Ezpeleta Uribarren | 01:34:47 |
| 5402 | Mikel Lasa Erle | 01:34:52 |
| 5653 | Kepa Ruiz de Larrinaga Vicente | 01:35:29 |
| 5744 | Ion Iraola Belategi | 01:35:42 |
| 6019 | Josu Urzelai Segura | 01:36:23 |
| 6178 | Asier Agirregomezkorta Vieira | 01:36:48 |
| 6284 | Luis Ruiz de Austri Otadui | 01:37:04 |
| 6291 | Luis Mari Azkargorta Belategi | 01:37:06 |
| 6338 | Zigor Masip Agirre | 01:37:12 |
| 6632 | JavierAnsoategi Etxeberria | 01:37:49 |
| 6815 | Ortzi Pildain Amozarrain | 01:38:12 |
| 7010 | Victor Sanchez Davila | 01:38:43 |
| 7458 | Alaitz Perez de Arenaza Iturbe | 01:39:47 |
| 7567 | Alex Altuna Velasco | 01:40:00 |
| 7596 | Igor Ansoategi Belategi | 01:40:04 |
| 7855 | Oskar Zubiaga Cabanillas | 01:40:39 |
| 7901 | Oxel Azkarate Iturbe | 01:40:46 |
| 7994 | Jose Luis Borbolla Jimenez | 01:41:02 |
| 8202 | Ignacio Beltran de Guevara Berezibar | 01:41:35 |
| 8243 | Ion Ansoategi Mascariano | 01:41:40 |
| 8271 | Iker Arostegi Gallastegi | 01:41:46 |
| 8550 | Egoitz Uribarren Liebana | 01:42:28 |
| 8686 | Xabier Mendialdua Axpe | 01:42:49 |
| 8835 | Jabier Retegi Albisua | 01:43:13 |
| 9256 | Mireia Juaristi Madina | 01:44:20 |
| 9259 | Oskar Orue Arasuegi | 01:44:21 |
| 9509 | Lorea Zeziaga Arrasate | 01:45:02 |
| 9646 | Alex Martiarena Arregi | 01:45:27 |
| 9711 | Aitor Laskurain Bidaburu | 01:45:40 |
| 9843 | Imanol Ibarra Arantzeta | 01:46:00 |
| 9907 | Jonatan Atxa Bastardo | 01:46:12 |
| 9973 | Josu Uribetxebarria Bolinaga | 01:46:22 |
| 9989 | Josu Amantes Arnaiz | 01:46:25 |
| 10619 | Harold Camilo Rivera | 01:48:12 |
| 10747 | Adei Mondragon Serrano | 01:48:34 |
| 10853 | Rafa Arantzabal Gisasola | 01:48:52 |
| 10900 | Ihintz Bengoa Madina | 01:48:57 |
| 10912 | Urtzi Berasaluze Velez de Mendizabal | 01:48:59 |
| 10910 | Aratz Gomez Larrañaga | 01:48:59 |
| 11165 | Jesus Albistur Marin | 01:49:49 |
| 11439 | Jesus Mendiaraz Elexpuru | 01:50:44 |
| 11016 | Ibon Moreno Lacasa | 01:50:53 |
| 11473 | Jon Moreno Lacasa | 01:50:53 |
| 11840 | Xabier Altzelai Maiztegi | 01:52:20 |
| 11940 | Yolanda Ezkurra Mayor | 01:52:47 |
| 12413 | Mikel Arenaza Okarantza | 01:54:46 |
| 12466 | Rafa Mungia Etxabe | 01:55:00 |
| 12639 | Jose Migel Gaztelu Otxandorena | 01:55:42 |
| 12640 | Angel Iturbe Abasolo | 01:55:43 |
| 12706 | Heriberto Busto Agirreurreta | 01:55:59 |
| 12904 | Kristina Goirizelaia Gonzalez | 01:56:59 |
| 13219 | Iñigo Urretabizkaia Arrieta | 01:58:47 |
| 13281 | Josu Arrieta Agirre | 01:59:10 |
| 13367 | Idoia Urrutia Herrero | 01:59:32 |
| 13364 | Amaia Urrutia Herrero | 01:59:32 |
| 13425 | Joxemari Larrañaga | 02:00:00 |
| 13523 | Iñaki Egidazu Altuna | 02:00:37 |
| 13717 | Maialen Aranegi Murua | 02:02:01 |
| 13818 | Unai Ugarte Beitia | 02:02:51 |
| 14015 | Xabier Gartzia Negeruela | 02:04:36 |
| 14022 | Mikel Ilarramendi Zabaleta | 02:04:40 |
| 14021 | Oihana Perez Sagasta | 02:04:40 |
| 14692 | Albajara Amilburu Martinez | 02:16:59 |
| 14691 | Juan Mari Amilburu Oxinaga | 02:16:59 |

### BERGARA

| | | |
|---|---|---|
| 51 | Arkaitz Ruiz De Loizaga Sampedro | 01:10:17 |
| 78 | Ricardo de Goñi Ripa | 01:11:14 |
| 209 | Iker Herran Hernandez | 01:14:36 |
| 225 | Iñaki Mujika Goikoetxea | 01:14:58 |
| 230 | Joxu Arana Oregi | 01:15:03 |
| 336 | Iñigo Pagaldai Urresti | 01:16:33 |
| 379 | Iban Agirrebeña Oteo | 01:16:57 |
| 475 | Jabi Ibarra Moñux | 01:17:42 |
| 812 | Aritz Ezenarro Agirre | 01:19:59 |
| 943 | Aitor Gartzia Arkauz | 01:20:51 |
| 957 | Arturo Cachafeiro Rubio | 01:20:55 |
| 962 | Alain Vivas Martinez De La Hidalga | 01:20:57 |
| 1234 | Martin Egaña Villar | 01:22:23 |
| 1411 | Ion Beistegi Etxaniz | 01:23:13 |
| 1705 | Ander Urriolabeitia Odriozola | 01:24:14 |
| 1782 | Josune Garitano Aranda | 01:24:36 |
| 1825 | Gorka Eraña Atorrasagasti | 01:24:43 |
| 2058 | Manolo Varela Fernandez | 01:25:38 |
| 2463 | Igor Unzurrunzaga Altube | 01:27:01 |
| 2522 | Alberto Urriolabengoa Milikua | 01:27:14 |
| 2600 | Xabier Elkoro Fernandez | 01:27:28 |
| 2601 | Aitor Elkoro Fernandez | 01:27:28 |
| 2669 | Ignacio Puertas Sebal | 01:27:40 |
| 2779 | Josu Lete Aranburu | 01:27:59 |
| 2843 | Manu Gorospe Urizarbarrena | 01:28:07 |
| 2870 | Ion Ander Garitano Askasibar | 01:28:11 |
| 2968 | Anselmo Gomez Rodriguez | 01:28:26 |
| 3070 | Juantxo Aranes Usandizaga | 01:28:41 |
| 3204 | Jose Mari Anduaga Elias | 01:29:03 |
| 3220 | Gorka Arrieta Etxeberria | 01:29:06 |
| 3354 | Josu Goitia Zelaia | 01:29:26 |
| 3362 | Axier Arbulu Uribesalgo | 01:29:27 |
| 3448 | Jon Aizpiri Basauri | 01:29:42 |
| 3497 | Markel Fernandez Belastegi | 01:29:50 |
| 3689 | Eneko Lazkano Bikendi | 01:30:19 |
| 3689 | Javier Lazkano Azkargorta | 01:30:20 |
| 3752 | Asier Gartzia Beristain | 01:30:29 |
| 3788 | Julen Montealegre Sanchezcamacho | 01:30:36 |
| 3881 | Igor Otazo Moreno | 01:30:50 |
| 4275 | Jesus M. Labaka Arando | 01:32:02 |
| 4281 | Peio Andrinua Iraolagoitia | 01:32:03 |
| 4333 | Ibon Garitano Muruamendiaraz | 01:32:10 |
| 4621 | Daniel Balmori San Gil | 01:32:57 |
| 4703 | Eugenio Barquero Murillo | 01:33:14 |
| 4766 | Joxe Martin Arrese-Igor Ibarrola | 01:33:24 |
| 4971 | Juan Mari de la Maza Artola | 01:33:53 |
| 4980 | Jose Manuel Alvarez Mera | 01:33:54 |
| 5035 | Basilio Aranburu Mujika | 01:34:01 |
| 5042 | Joakin Gonzalez Martinez | 01:34:02 |
| 5037 | Mikel Uribesalgo Arando | 01:34:02 |
| 5363 | Fer Muruamendiaraz Iñarra | 01:34:46 |
| 5408 | Martin Odriozola Gonzalez | 01:34:53 |
| 5453 | Fer Rodriguez Cuesta | 01:34:59 |
| 5541 | Aitor Oregi Labaien | 01:35:11 |
| 5838 | Luis Mi Cano Vicente | 01:35:56 |
| 5951 | Jose Ramon Bardeci Urra | 01:36:13 |
| 5960 | Rafael Prieto Hernandez | 01:36:15 |
| 6006 | Sabino Azkarate Leturia | 01:36:21 |
| 6021 | Saioa Berraondo Laskurain | 01:36:23 |
| 6236 | Ekaitz Alkorta Zabalo | 01:36:58 |
| 6367 | Manu Curado Rodriguez | 01:37:15 |
| 6668 | Igor Urisabel Aseginolaza | 01:37:53 |
| 6713 | Carmelo Santorcuato Perez | 01:37:58 |
| 6707 | Kristina Pozo Flores | 01:37:58 |
| 6753 | Gorka Davila Cabanillas | 01:38:03 |
| 6803 | Imanol Elkoroberezibar Azkarate | 01:38:10 |
| 6881 | Juan Ignacio Lopez Aramendi | 01:38:21 |
| 6882 | Aitor Lete Larrañaga | 01:38:21 |
| 6891 | Manuel Jose Larrea Arana | 01:38:23 |
| 7083 | Agurtzane Lete Larranaga | 01:38:51 |
| 7095 | Maria Rosa Agirre Igartua | 01:38:54 |
| 7131 | Eñaut Uriarte Palacio | 01:38:58 |
| 7214 | Jose Antonio Dorronsoro Agirrezabal | 01:39:10 |
| 7293 | Aitor Curado Rodriguez | 01:39:21 |
| 7335 | Jaio Manzanedo Gabilondo | 01:39:28 |
| 7572 | Mikel Larrañaga Urien | 01:40:00 |
| 7673 | Jabier Borobia Martinez | 01:40:13 |
| 7700 | Juan Luis Arriola Lazkano | 01:40:16 |
| 7836 | Julen Narbaiza Igarzabal | 01:40:37 |
| 8469 | Miguel Angel Outeiriñi Vazquez | 01:42:13 |
| 8872 | Ainhize Gomez De Segura Fernandez | 01:43:19 |
| 9033 | Asier Calleja Etxaniz | 01:43:45 |
| 9067 | Eduardo Bilbao Beraza | 01:43:50 |
| 9105 | Iñaki Eguren Zornoza | 01:43:56 |
| 9387 | Iñigo Olañeta Elexpuru | 01:44:43 |
| 9704 | Victor Jimenez Muñoz | 01:45:40 |
| 9751 | Alfontso Romera Etxeberria | 01:45:45 |
| 9887 | Juan De Borja Rodriguez | 01:46:08 |
| 9944 | Jon Balentziaga Larañaga | 01:46:17 |
| 9974 | Patxi Arriola Lazkano | 01:46:22 |
| 10028 | Mikel Garitano Muruamendiaraz | 01:46:31 |
| 10029 | Javier Orbea Ascaso | 01:46:31 |
| 10128 | Aitor Salaberria Agirreolea | 01:46:50 |
| 10652 | Nora Pedrejon Ibarra | 01:48:18 |
| 10902 | Antonio Verguizas Nieto | 01:48:57 |
| 10905 | Jorge Garin Alsua | 01:48:57 |
| 11008 | Sebas Etxeberria Olaso | 01:49:15 |
| 11009 | Yoana Gallastegi Eguren | 01:49:15 |
| 11031 | Yon Zabala Puy | 01:49:20 |
| 11395 | Xabi Zabaleta Serna | 01:50:34 |
| 11394 | Ion Unamuno Lekuona | 01:50:34 |
| 11421 | Alfonso Ena Elustondo | 01:50:40 |
| 11631 | Mikel Irizar igarzabal | 01:51:31 |
| 11719 | Ion Lazpiur Altuna | 01:51:53 |
| 11983 | Felix Barrocal Gonzalez | 01:52:57 |
| 12288 | Eduardo Samaniego Etxeberria | 01:54:11 |
| 12294 | Gorka Unzueta Aranguren | 01:54:12 |
| 12432 | Ines Iturricastillo Iturriaga | 01:54:51 |
| 12449 | Aitziber Aranburu Olañeta | 01:54:56 |
| 12452 | Asier Labaien Olaso | 01:54:57 |
| 12530 | Manu Diaz De Marcos | 01:55:15 |
| 12594 | Rafa Santxez Muxika | 01:55:32 |
| 12632 | Javier Samaniego Compañon | 01:55:41 |
| 12774 | Xabier Larrañaga Gabilondo | 01:56:22 |
| 12865 | Iñaki Alberdi Araiztegi | 01:56:48 |
| 13083 | Pablo Laskurain Areitioaurtenai | 01:58:01 |
| 13274 | Gorka Gary Juaristi | 01:59:08 |
| 13693 | Fernando Arrillaga Garate | 02:01:48 |
| 13988 | Eduardo Lalinde Gonzalez | 02:04:22 |
| 14019 | Alvaro Gallastegi Murua | 02:04:37 |
| 14093 | Estitxu Lobato Garcia | 02:05:34 |
| 14095 | Maialen Alkorta Agirre | 02:05:35 |
| 14102 | Iker Beistegi Ugarte | 02:05:38 |
| 14104 | Luis Maria Beistegi Garitano | 02:05:39 |
| 14105 | Aritz Beistegi Ugarte | 02:05:40 |
| 14141 | Karlos Lasa Alberdi | 02:06:10 |
| 14859 | Ana Agirre Azkargorta | 02:26:38 |

### ELGETA

| | | |
|---|---|---|
| 915 | Haritz Barrutia Sarasua | 01:20:42 |
| 1486 | Jesus Mari Beristain Elezgarai | 01:23:28 |
| 2354 | Daniel Gillegi Etxebarria | 01:26:40 |
| 3749 | Iñaki Egizabal Ojanguren | 01:30:29 |
| 4078 | Juan Carlos Ormaetxea Saiz | 01:31:27 |
| 4955 | Saioa Ugidos Danboriena | 01:33:51 |
| 8129 | Oscar Gil Ledesma | 01:41:26 |
| 9820 | Xabier Sanchez Torres | 01:45:57 |
| 12771 | Anartz Agirre Madariaga | 01:56:22 |

### ESKORIATZA

| | | |
|---|---|---|
| 274 | Igor Lazkano Arana | 01:15:46 |
| 378 | Igor Gorosarri Badiola | 01:16:56 |
| 706 | Gorka Azpitarte Rejado | 01:19:19 |
| 3593 | Salva Serrano Puertas | 01:30:06 |
| 3700 | Gorka Arrese Iñarra | 01:30:20 |
| 4634 | Kepa Isasmendi Gabilondo | 01:33:00 |
| 4913 | Maixol Iparragirre Guenetxea | 01:33:45 |
| 5627 | Ane Eraña Larrañaga | 01:35:25 |
| 7015 | Mikel Zubizarreta Eraña | 01:38:43 |
| 7107 | Jorge Gil Labrado | 01:38:55 |
| 7967 | Aitor Bañares Bengoa | 01:40:58 |
| 11037 | Oier Garai Ibabe | 01:49:22 |
| 11636 | Oier Larrañaga Uribetxebarria | 01:51:33 |
| 12274 | Pedro Etxaniz Gabilondo | 01:54:07 |

### OÑATI

| | | |
|---|---|---|
| 24 | Ekaitz Osa Zabaleta | 01:08:14 |
| 56 | Asier Urdanpilleta Lizardi | 01:10:23 |
| 91 | Imanol Molinero Mendiguren | 01:11:53 |
| 223 | Asier Osinaga Beitia | 01:14:58 |
| 423 | Fernando Rezabal | 01:18:27 |
| 590 | Bittor Erle Anduaga | 01:18:32 |
| 603 | Josu Odriozola Zabaleta | 01:18:38 |
| 681 | Ibon Jausoro Murgiondo | 01:19:10 |
| 850 | Jose Antonio Negreira Cobas | 01:20:09 |
| 897 | Mikel Gorostidi Guridi | 01:20:31 |
| 1002 | Ander Zelaia Moiua | 01:21:13 |
| 1065 | Igor Kokostegi Dominguez | 01:21:32 |
| 1081 | Alberto Guerreiro Uribe-Echevarria | 01:21:39 |
| 1156 | Gaizka Palacin Aztiria | 01:22:01 |
| 1192 | Iban Madina Iñurritegi | 01:22:12 |
| 1223 | Iñaki Bikuña Zubizarreta | 01:22:20 |
| 1410 | Eleder Albizu Larrea | 01:23:13 |
| 1476 | Jokin Garai Arejolaleiba | 01:23:26 |
| 1515 | Ixaka Egurbide Lekube | 01:23:37 |
| 1563 | Xabier Galdos Idigoras | 01:23:46 |
| 1653 | Iker Sologaistoa Beitia | 01:24:04 |
| 1785 | Iñigo Aldasoro Galdos | 01:24:36 |
| 1899 | Igor Arrese Murguzur | 01:25:01 |
| 2107 | Iñaki Korta Barrena | 01:25:48 |
| 2359 | David Vernaza Colobon | 01:26:41 |
| 2401 | Mikel Sologaistoa Biain | 01:26:47 |
| 2505 | Andoni Urtaza Agirrezabal | 01:27:10 |
| 2591 | Asier Alonso Korkostegi | 01:27:25 |
| 2634 | Aitor Urtzelai Arrizabalaga | 01:27:33 |
| 2751 | Joseba Letamendi Martin | 01:27:55 |
| 2814 | Xabier Anduaga Egaña | 01:28:04 |
| 3032 | Joxe Aranzadi Martin | 01:28:35 |
| 3081 | Jon Ander Aramendi Otamendi | 01:28:44 |
| 3150 | Jose Maria Gomez | 01:28:53 |
| 3159 | Jose Antonio Biain Bikuña | 01:28:55 |
| 3544 | Joxe Angel Agirre Murguzur | 01:29:57 |
| 3796 | Pablo Arejolaleiba Ugarte | 01:30:37 |
| 3885 | Iñigo Txintxurreta Altube | 01:30:50 |
| 4339 | Jesus Cantero Perianes | 01:32:12 |
| 4567 | Aitor Urtaza Agirrezabal | 01:32:49 |
| 4755 | Iñigo Anduaga Chacon | 01:33:22 |
| 4782 | Andoni Urteaga Fernandez | 01:33:28 |
| 4937 | Josu Goitia Lucas | 01:33:48 |
| 4942 | Arkaitz Sasian | 01:33:49 |
| 5034 | Rober Ferreiro Dorado | 01:34:01 |
| 5088 | Arkaitz Lizarralde Padilla | 01:34:08 |
| 5141 | Joaquin Arroyo Vigo | 01:34:14 |
| 5544 | Aitor Zubia Azkue | 01:35:11 |
| 5735 | Gorka Zelaia Agirre | 01:35:40 |
| 5956 | Miren Isasisasmendi Korkostegi | 01:36:14 |
| 6507 | Ana Isabel Urmeneta Mondragon | 01:37:33 |
| 6508 | Trini Blazquez Diaz | 01:37:33 |
| 6559 | Maddi Oleaga Gartzia | 01:37:38 |
| 6759 | Lierni Urtzelai Ugarte | 01:38:04 |
| 6821 | Oier Lopez de Lacalle | 01:38:13 |
| 6923 | Agotz Iturbe Murgiondo | 01:38:28 |
| 7671 | Imanol Urtzelai Enparantza | 01:40:13 |
| 7724 | Iñaki Igartua Irizar | 01:40:19 |
| 8049 | Manuel Salgado Requejo | 01:41:11 |
| 8057 | Rafael Zulueta Bareño | 01:41:12 |
| 8115 | Bernardo Muñoz Rodriguez | 01:41:23 |
| 8136 | Fernando Lago Leis | 01:41:26 |
| 8417 | Antonio Merino Blanco | 01:42:05 |
| 8481 | Iker Jimenez Bastarrika | 01:42:16 |
| 8629 | Jon Ander Lasagabaster | 01:42:41 |
| 8637 | Monika Muñoz Murillo | 01:42:42 |
| 8760 | Jon Mendiola Ramos | 01:43:01 |
| 8759 | Santiago Mendiola Aiastui | 01:43:01 |
| 8755 | Lukene Igartua Egaña | 01:43:01 |
| 8983 | German Aginagalde Elexpuru | 01:43:36 |
| 8980 | Miren Aginagalde Astigarraga | 01:43:36 |
| 8986 | Ander Jausoro Arregi | 01:43:37 |
| 8987 | Imanol Lukas Etxarri | 01:43:37 |
| 9200 | Jose Luis Saiz Malabia | 01:44:12 |
| 9215 | Unai Saiz Muñoz | 01:44:14 |
| 9428 | Rafa Guridi Dorronsoro | 01:44:48 |
| 9480 | Jose Inazio Pelayo Alonso | 01:44:58 |
| 9476 | Amaia Osa Isasti | 01:44:58 |
| 10081 | Pili Azkarateazkazua | 01:46:41 |
| 10197 | Ainhoa Bardon Elgezabal | 01:47:03 |
| 10731 | Lorea Biain Galdos | 01:48:31 |
| 11086 | Unai Agirrebalzategi Guridi | 01:49:32 |
| 11091 | Arantzazu Urtzelai Bikuña | 01:49:33 |
| 11561 | Jose Carmona Moyano | 01:51:13 |
| 11557 | Mª Jose Ibarrondo Uriarte | 01:51:13 |
| 11594 | Itziar Igartua Moiua | 01:51:22 |
| 11598 | Marijo Erostarbe Garitano | 01:51:23 |
| 11601 | Mitxel Montero Lorenzo | 01:51:24 |
| 11644 | Miren Zubeldia Plazaola | 01:51:34 |
| 11707 | Gotzon Urtzelai Madariaga | 01:51:49 |
| 11822 | Axier Lopez Kortabarria | 01:52:17 |
| 11963 | Iñigo Gartzia de Kortazar | 01:52:52 |
| 12022 | Nekane Maiztegi Ugarte | 01:53:06 |
| 12027 | Unai Pata Gartzia | 01:53:08 |
| 12319 | Asier Murguzur Orueta | 01:54:21 |
| 12320 | Jon Murguzur Orueta | 01:54:21 |
| 12340 | Xabier Arregi | 01:54:24 |
| 12337 | Susana Arrese Murguzur | 01:54:24 |
| 12346 | Iñigo Ezkibel Galdos | 01:54:27 |
| 12347 | Arantzazu Ezkibel Galdos | 01:54:28 |
| 12603 | Felix Sancho Orueta | 01:55:34 |
| 12745 | Miren Galdos Gomez | 01:56:11 |
| 12755 | Roberto Maiztegi Rigault | 01:56:14 |
| 12764 | Jose Antonio Ugarte Inza | 01:56:17 |
| 12777 | Unai Elortza Iñurritegi | 01:56:22 |
| 12843 | Jon Irizar Aranguren | 01:56:39 |
| 12938 | Kepa Azkue Etxetxipia | 01:57:10 |
| 13185 | Sheila Pardo Cortes | 01:58:38 |
| 13288 | Aitor Uriarte Bergara | 01:59:11 |
| 13284 | Mikel Murguzur Orueta | 01:59:11 |
| 13283 | Juan Markuleta Urteaga | 01:59:11 |
| 13416 | Xabier Madina Anduaga | 01:59:55 |
| 13694 | Txema Beitia Armendaritz | 02:01:48 |
| 13690 | Santos Aiastui Guridi | 02:01:48 |
| 13746 | Txomin Gutierrez Velez | 02:02:16 |
| 13824 | Bruno Allende San Pedro | 02:02:56 |
| 13934 | Angel Maiztegi Otermin | 02:03:43 |
| 14184 | Arantza Altzelai Sagasta | 02:06:53 |
| 14186 | Lourdes Jauregialtzo Beitia | 02:06:55 |
| 14517 | Xabier Altube Orueta | 02:12:16 |

*Iturria: Fortuna Elkartea



Nahikoa lan izan zuten bi taldeetako jokalariek lokaztutako zelaiarekin. Irudian Otero, etxekoen kapitaina. JOSETXO ARANTZABAL

**OHOREZKO ERREGIONALA** > BERGARAREN LAUGARREN GARAIPENA

# Azken minutuetan iritsi zen garaipenaren gola

Beriok banakoa egin zuen, baina Markel Ilzarbek 2-1ekoa egin zuen 84. minutuan; sailkapenaren erdialdean dago Bergara, 13 punturekin

BERGARA
**2-1**
BERIO

**Bergara** > Belategi, Elorriaga (Oregi, 73. m.), Arazkonaga, Nafarrete, Agirrezabal (Urteaga, 89), Iñurrieta, Otero, Loiola (Cabanillas, 70), Ilzarbe, Agirre (Eloy, 80) eta Ibañez.

**Berio** > Iturrioz, Etxeberria (Goya, 87), Arzelus, Ferrera (Martin, 55), Larrea, Astudillo, Caminaur (Monreal, 69), Pikabea (Garmendia, 70), Alvarez, Loiti eta Castro.

**Bestelakoak** > Gallego epaileak lau txartel hori atera zituen, Loiolari, Elorriagari, Etxeberriari eta Arzelusi. Jende gutxi. Euria eta zelaia, lokaztuta.

**EDU MENDIBIL**> BERGARA

Manu Diaz mahoneroen entrenatzailea pozik zen partiduaren amaieran; "Ametsetan ere ez nuen horrelako hasiera irudikatuko". Izan ere, Bergarak denboraldiko laugarren garaipena lortu zuen, Beriori 2-1 irabazita eta, bide batez, donostiarrei sailkapenean aurrera hartuz. 13 puntu 9 partiduetan, Bergarak. Ez dago batere gaizki. Landutako garaipena izan zen zapatukoa. Etxekoak hobeto moldatu ziren lokaztutako zelaira eta merezimendu osoz eskuratu zituzten hiru puntuak. Bergara aurreratu zen, Loiolak 15. minutuan egindako golari esker. Bergarak ez zuen atzera egin abantailari eusteko. Bigarren zatian ere nagusi ziren etxekoak; bigarren gola iristear zegoela zirudien, baina kontraeraso baten Beriok banakoa egin zuen, Larrearen bidez, 75. minutuan. Etxeko defentsa ez zen batere fin ibili jokaldi horretan.

Hala ere, Diazen mutilek ez zuten etsi eta erasoan jarraitu zuten. Eskumaldetik etortzen ziren jokaldirik arriskutsuenak; halako baten Markel Ilzarbek defentsa atzean utzi eta Iturrioz atezaina gainditu zuen. 84. minutua zen eta orduan bai, abantailari eusteko gauza izan ziren etxekoak. Aloñaren aurkako derbiaren aurretik, garrantzia handiko hiru puntu lortu zituen Bergarak. Eta beste albiste on bat: Cabanillasek denboraldiko lehen minutuak jokatu zituen.

> HIRUGARREN MAILA

## Aretxabaletak partidu ona egin baina 2-1 galdu zuen Durangon

UDAk emaitza hobea ekartzeko merituak egin zituen zapatuan Durangoren aurka, Tabiran. Igor Gordobilen taldeak joko ona egin zuen baina epailaren lana erabakigarria gertatu zen; izan ere, pi penalti eztabaidagarri esker egin zituen Durangok bi golak. 1-0ekoarekin 10 jokalarirekin geratu zen Durango eta UDA gehien estutzen zebilenean, bigarren penaltia etorri zen. 70. minutuan etorri zen aretxabaletarren gola, Rubenek sartutakoa. Azken minutuetan berdinketaren bila ahaleginak egin arren, esku hutsik etorri zen UDA Durangotik.

> OHOREZKO ERREGIONALA

## Punturen bat gutxienez merezi izan zuen Aloñak Lesakan: 2-1

Aloña Mendik 2-1 galdu zuen Beti Gazteren aurka, atzo arratsaldean Lesakan. Partidua hasi eta berehala, gauzak aldapan gora jarri zitzaizkion Josu Zubiaren taldeari; lehenbiziko minutuan jaso zuten gola oñatiarrek. Bigarren zatiko 17. minutuan etorri zen etxekoen bigarren gola eta Errastik sartu zuen Aloñarena, aldea gutxituz. Bernalek bigarren txartela ikusi eta jokalari bat gutxiagorekin geratu arren, azken minutuetan erasora jo zuten oñatiarrek berdinketaren bila. Hala ere, ate aurrean ez zuten asmatu; Aloñaren partidu onak ez zuen saririk izan atzo.



J. ARANTZABAL

## Mondrak husna berdindu, Mojategin

Mojategiko zelaia, euri askorekin, ez zegoen futbolean jokatzeko moduan eta Mondrak eta Idiazabalek husna berdindu zuten zapatuan. Lehen zatian Idiazabalek izan zituen gol aukera onenak, baina Mondra ere garaipenaren gola egiteko zorian egon zen, batez ere luzapenean Ekain Garinek huts egindako aukeran. Justutzat eman daiteke berdinketa. Andoni Azkargorta etxekoen entrenatzailea pozik zegoen Mondrako jokalariek egindako lanarekin.

Unzueta sagardotegia



sagardoa txotxetik
•
sagardotegiko menua
•
karta

eguneko menua
•
ospakizunak
•
enpresako bazkariak

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO LIGA

# Ford Mugarrik tinko jarraitzen du, Portugaleteri aise irabazita

## Arrasatearrak sailkapeneko hirugarren tokian dira, Barakaldo eta Egiaren atzetik; donostiarrei bisita egingo diete hurrengo jardunaldian

FORD MUGARRI
**36-20**
PORTUGALETE

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Orain arteko partidurik errazenetakoa izan zen zapatukoa Ford Mugarrirentzat; Edu Orgazen taldea uste baino errazago nagusitu zitzaion Portugaleteri. Sekulako jipoia eraman zuten bizkaitarrek: 16 goleko aldearekin irabazi zuten etxekoek. Iturripen batutako ikusle eskasek Ford Mugarriren erakustaldiarekin gozatu ahal izan zuten. Esan beharrik ez dago talde bakarra izan zela kantxan. Ford Mugarrik gogor jarraitzen du sailkapeneko goikaldean; jokatutako zazpi partiduetatik sei irabazi eta bakarra berdindu dute. Hurrengo astebuaruan partidu erabakigarria jokatuko dute Donostian, Egiaren aurka. Ford Mugarriren eta Egiaren aurretik talde bakarra dago, Barakaldo liderra.


Josu Herrero arrasatearra erasoko jokaldi baten, zapatuan. J. ARANTZABAL

**JAUN ETA JABE HASIERATIK**

Zapatuan, esan bezala, lehen minututik jaun eta jabe izan ziren arrasatearrak. Defentsan ez zuten zirrikiturik uzten eta erasoan ez zuten barkatzen. Horrela, bost goleko abantaila lortu zuten atsedenaldian. Tartea hortxe mantendu zen bigarren zatiaren erdialdera arte; handik aurrera, ihes egin zuen Ford Mugarrik markagailuan, 16 goleko abantaila lortu arte. Etxekoen aldetik, Kepa Isasmendi (10 gol) eta Nestor Calleja (7) izan ziren golegile nagusiak. Talde osoak egindako lana nabarmendu zuen Orgazek.


J. ARANTZABAL

## Saskibaloia derbia, oñatiarrendako

Aloñak 49-55 irabazi zion MUri zapatuan Musakolan jokatutako derbian. Partidua berdinduta izan zen, baina jokaldi erabakigarrietan eta azken minutuetan finago ibili ziren bisitariak. Bi taldeak berdinduta dira sailkapenean, bi garaipenekin. Goiko argazkian, Unai Urkiola MUko hegaleko jokalaria saskiratzea lortzeko borrokan.

# Futbola

### 3. MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Real Sociedad B** | **28** | 13 |
| 2. **Amorebieta** | **26** | 13 |
| 3. **Beasain** | **24** | 13 |
| 4. **Amurrio** | **23** | 13 |
| 5. **Zalla** | **22** | 13 |
| **6. Baskonia** | **20** | 13 |
| 7. **Gernika** | **19** | 13 |
| 8. **Zamudio** | **18** | 13 |
| 9. **Durango** | **18** | 13 |
| 10. **Leioa** | **18** | 13 |
| 11. **Aretxabaleta** | **18** | 13 |
| 12. Elgoibar | **17** | 13 |
| 13. **Arenas Getxo** | **16** | 13 |
| 14. Laudio | **15** | 13 |
| 15. **Lagun Onak** | **14** | 13 |
| 16. **Portugalete** | **14** | 13 |
| 17. **Santurtzi** | **12** | 13 |
| 18. **Retuerto Sport** | **12** | 13 |
| 19. **Eibar B** | **10** | 13 |
| **20. Salvatierra** | **6** | 13 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Elgoibar-Portugalete | 1-0 |
| Lagun Onak-Arenas | 1-1 |
| Baskonia-Salvatierra | 2-1 |
| Durango-Aretxabaleta | 2-1 |
| Beasain-Leioa | 1-2 |
| Zalla-Amorebieta | 0-1 |
| Laudio-Real Sociedad B | 1-1 |
| Zamudio-Amurrio | 3-3 |
| Santurtzi-Eibar B | 4-0 |
| Gernika-Retuerto Sport | 1-1 |

**Hurrengoak**

**Aetxabaleta-**Basconia

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Ondarroako Aurrera** | **24** | 9 |
| 2. **Pasajes** | **21** | 9 |
| 3. **Oiartzun** | **18** | 9 |
| 4. **Ordizia** | **16** | 9 |
| 5. **Hondarribia** | **15** | 9 |
| 6. **Idiazabal** | **14** | 9 |
| 7. **Bergara** | **13** | 9 |
| 8. **Trintxerpe** | **13** | 9 |
| 9. **Zarautz** | **13** | 9 |
| 10. **Berio** | **12** | 9 |
| 11. **Tolosa** | **12** | 9 |
| 12. **Hernani** | **11** | 9 |
| 13. **Aloña Mendi** | **10** | 9 |
| 14. **Euskalduna** | **9** | 9 |
| 15. **Mondra** | **8** | 9 |
| 16. **Beti Gazte** | **8** | 9 |
| 17. **Real Union** | **6** | 9 |
| 18. **EHU Vasconia** | **4** | 9 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Beti Gazte-**Aloña Mendi** | 2-1 |
| **Bergara**-Berio | 2-1 |
| **Mondra**-Idiazabal | 0-0 |
| Tolosa-Aurrera Ondarroa | 3-0 |
| Hondarribia-Euskalduna | 0-0 |
| Pasajes-Trintxerpe | 3-1 |
| Real Union-EHU Vasconia | 1-0 |
| Oiartzun-Zarautz | 1-0 |
| Hernani-Ordizia | 1-2 |

**Hurrengoak**

**Aloña Mendi-Bergara**

EHU Vasconia-Mondragon

### BESTELAKOAK

| | |
|---|---|
| **GAZTEEN LIGA NAZIONALA** | |
| Aretxabaleta-Durango | 2-1 |
| **GAZTEEN EUSKAL LIGA** | |
| Lengokoak-Bergara | |
| **ERREGIONAL PREFERENTEA** | |
| Mutriku-Antzuola | 5-1 |
| Aretxabaleta B-Anaitasuna | 2-2 |
| **LEHEN ERREGIONALA** | |
| Eibartarrak-Bergara | 1-4 |
| Mondra-SBB Mutrikuarrak | 2-1 |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA** | |
| Lazkao-Mondra | 2-0 |
| Aloña Mendi-Lagun Onak | 1-2 |
| **GAZTEEN LEHEN MAILA** | |
| Bergara-Soraluze | 2-5 |
| Urki-Arizmendi | 1-0 |
| Eibartarrak-Aretxabaleta Arizmendi | |
| **OHOREZKO KADETEAK** | |
| Bergara-Zumaiako | 2-1 |
| Eibar-Aretxabaleta Arizmendi | 0-2 |
| Aloña Mendi-Zarautz | 1-6 |
| **KADETEEN 1. MAILA** | |
| Urki-Bergara | 1-1 |
| Arizmendi-Arrasate | 1-7 |
| Aloña Mendi-Aretxabaleta B- | 1-3 |
| **INFANTILEN OHOREZKO MAILA** | |
| Ilintxa-Bergara | 0-1 |
| Aloña Mendi-Arrasate | 2-5 |
| Aretxabaleta Arizmendi-Lagun Onak | 4-2 |
| **EMAKUMEZKOEN LIGA** | |
| Aloña Mendi-Elgoibar | 4-3 |
| Arizmendi-Amaikak Bat | 3-0 |
| Eibar-Mondra | 3-1 |

# saskibaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **SENIORRAK LEHENENGO MAILA** | |
| Lagunak-MU | 73-76 |
| **SENIORRAK AUTONOMIKOA** | |
| Atco. San Sebastian-Aloña Mendi | 65-90 |
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Soraluce BKE-Astigarraga | 57-75 |
| MU-Aloña Mendi- | 49-55 |
| Soraluce BKE-Gabi Jatetxea | 43-46 |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Eskoriatza-Andraitz | 87-37 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Hernani-MU | 45-78 |
| Aloña Mendi-MU | 47-55 |
| Take Tolosa-Soraluze BKE | 33-44 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Carnicas San Marcial-Eskoriatza | 64-38 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Hernani-MU | |
| Aloña Mendi-Aurrera | 33-69 |
| Mutriku-MU B | |
| **KADETE NESKAK** | |
| Colchones-Eskoriatza | 36-41 |
| Soraluze BKE-Aloña Mendi | 95-50 |
| Andraitz-Arizmendi Eskoriatza | 82-38 |

# eskubaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO SENIORRAK, GIZONEZKOAK** | |
| Ford Mugarri-Portugalete | 36-20 |
| **EUSKADIKO SENIOR T. EMAKUMEZKOAK** | |
| Verkol Aloña-Zuazo | 26-35 |
| **GAZT. EUSKADIKO T. EMAKUMEZKOAK** | |
| Verkol Aloña-Grupo Eibar | 20-30 |
| **KADET. EUSKADIKO T. EMAKUMEZKOAK** | |
| Verkol Aloña-IMH Elgoibar | 17-24 |
| **GIPUZKOAKO LEHEN TERRITORIALA** | |
| Aloña Mendi-Amenabar | 24-25 |
| **GIPUZKOAKO BIGARREN TERRITORIALA** | |
| Arrasate-Rotula Estudio | 31-34 |
| **GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK** | |
| Tolosa-Aloña Mendi | 30-24 |
| Rotula Estudio-Bergara | 32-31 |

# errugbia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKAL LIGA** | |
| Gaztedi-ART Kanpazar | 34-0 |

Harmailatik

**Debagoieneko kirola GOITBn**

Astelehenero 22:15ean.

Goitb Goiena Telebista

*Ikustekoa!*



**Iñaki Uribetxeberria** > Squash jokalaria

# "Squasha erritmo biziko kirola denez, luzaketak ondo egitea komeni da"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Iñaki Uribetxeberria aretxabaletarra da; eta, hain zuzen, Aretxabaletan hasi zen squashean jokatzen, 1976an. Gaur egun, Arrasateko AKE taldeko kide da eta Arrasateko Musakolako kiroldegian entrenatzen da. Gero eta zale gehiago dituen kirolaz berba egin digu.**



Iñaki Uribetxeberria, Musakolako squash kantxan.

A.E.

**Squasha gero eta indar handiagoa hartzen dabilen kirola da. Nabaritu duzue?**

Gure asmoa da ahalik eta gehien hedatzea kirol hau Debagoienean. Kirola zabaltzea eta, gainera, jendea gonbidatu guk antolatzen dugun ligan jokatzera. Esan behar da ez dela beharrezkoa federatuta egotea. Jendeak kirola ezagutu eta norberaren maila hobetzeko besterik ez da.

**Joan den astean jokatutako Euskadiko txapelketak arrakasta izan zuen.**

Urtero antolatzen dugun txapelketa da. Joan den urtean publizitate askorik ez genuen egin; baina aurten, kirol hau zabaltzeko aukera izan dugu. Izen handiko jokalariak etorri dira eta horrek garrantzia ematen dio txapelketari. Markus Schwar alemaniarra da eta orain dela bi urte Bilbora etorri zen ikastera. Oso lan ona egiten dabil. Jendeari asko erakusten dio.

**Nolakoa da squasharen egoera Debagoienean?**

Ni 70eko hamarkadan hasi nintzen jokatzen. Lehenengo kantxak Aretxabaletan egin ziren; jende asko hasi zen jokatzen, baina gerora jaitsi egin zen. Horren errua izan zuen propaganda txarrak: squashean bihotzekoak jota hiltzen dela jendea eta horrelakoek. Eta hori gezurra da, bihotza gaizki baldin badaukazu edozein kiroletan izango duzu arriskua. Orain, jende gehiago animatzen dela ematen du: esan behar da baditugula hainbat mutiko entrenamenduetara etortzen direnak.

**Zenbat kantxa daude bailaran?**

Elgetan badago bat; eta Oñatin hiru kantxa daude, baina ez dira ofizialak. Lurra ez da egurrezkoa, eta, kirol oso bizkorra denez, belaunek asko sufritzen dute. Nik uste dut obra txiki bat eginda lortuko genituzkeela kantxa on batzuk. Ikusleentzat, adibidez, kristala jarri beharko litzateke; orain, pareta dago eta ezin da kanpotik ikusi kantxa barrua.

Arrasatekoak egoera txarrean zeuden eta Udalean eskatu genuen konpontzea. Bigarren kantxa konpondu ziguten eta aprobetxatu genuen berniza kentzeko; izan ere, izerdia geratzen zen eta labaintzeko arriskua zegoen. Lixatuta utzi ditugu, eta lortu dugu argiagoak izatea eta izerdi arazorik ez izatea.

**Zenbat txapelketa antolatzen dituzue urtean zehar?**

Datorren astean, adibidez, lagunarteko euskal liga hasiko dugu. Urte mordoa gabiltza antolatzen; eta esan behar da gero eta jende gehiago apuntatzen dela. Hasieran, txapelketa izena jarri genion eta jendea atzera botatzen zen; baina orain, izena aldatuta, jende gehiago apuntatzen da. Azkeneko ligan 24 pertsona ibili ginen.

Debagoieneko txapelketa nagusia ere antolatzen dugu. Txapelketa hau Arrasaten jokatzen dugu, baina denontzat zabalik dago. Aste bukaera bateko txapelketa izaten da.

**Oso kirol maskulinoa dela ikusten da kanpotik.**

Jokatzen duten gehienak mutilak dira; baita txapelketetan parte hartzen dutenak ere. Esan behar da Euskadiko txapelketa jokatzeko neska batek izena eman zuela; bakarra zen, eta aukera eman genion mutilekin jokatzeko. Azkenean, baina, ez zuen parte hartu txapelketan.

ASMOA

**"Gure asmoa da kirol hau ahalik eta gehien hedatzea Debagoienean, jendeak ezagutzea"**

TXAPELKETAK

**"Txapelketa izenarekin jendea atzera botatzen da, baina izena aldatuta asko animatzen dira"**

MUSAKOLA

**"Musakolako kantxak oso hotzak dira eta horrek eragiten, du pilotan eta jokatzeko eran"**

**Kirol honek duen ezaugarria da oso kirol betea dela; gihar asko mugitzen dituena.**

Erritmo handia daukan kirola da. Jende asko dator pentsatzen oso kirol samurra dela. Horregatik gomendatzen dugu luzaketak ondo egitea. Minutu baten karrera asko egin behar izaten da, esfortzu handikoak. Hortaz, giharrak ondo landu behar dira arazorik ez izateko.

**Eta zu zeu noiz hasi zinen squashean?**

76an hasi nintzen. Aretxabaletan bi kantxa zeuden, bat zabala eta bestea estua; trenbidea deitzen genion, oso estua zelako. Handik sortu da gaur egun ezagutzen duguna. Gure garaian ez geneukan prestatutako jenderik. Entzuten genuenaren arabera praktikatzen genuen. Horregatik, pena ematen zidan jende asko ikustea squasheko kantxa batean jokatzen, benetan squasha zer den jakin barik.

**Orduan, gaur egun kirol hau ezagutu gura duenak zer egin behar du?**

AKE taldean jende asko dago, lana ondo egiten dutenak, gainera. Hortaz, hona, Musakolara, etorri besterik ez dute. Bestalde, webgunea daukagu: *www.akesquash.com* orrian informazioa jartzen dugu, eta baita telefonoa ere: 656 73 60 17.

Gure taldekide Silverio Alvarez datorren astean hasiko da kurtso bat egiten, monitore kurtsoa. Orain arte gure esperientzia erakutsi dugu, baina hemendik aurrera behar bezala ikastaroak emateko moduan egongo gara. Gainera, orain dela hilabete, hiru pertsonak epaile titulua atera genuen.

**Musakolako kantxan hobekuntzak egitea eskatu duzue.**

Hotz handia egiten du. Jokalariei eragiten die, baina baita pilotari ere. Hoztu egiten da eta pilota beste modu batera irteten da; hortaz, kanpora jokatzera goazenean nabaritu egiten dugu. Beste kirol batzuek ere badute gure arazo bera.




Ainhoa Manzano eguaztenean Bergarako kultura etxean eman zuen hitzaldia hasi aurretik. JULEN IRIONDO

**Ainhoa Manzano** > Psikologian doktorea

# "Gurasoen lana etengabea izan behar da seme-alaben hazkuntzan etekinak ikusteko"

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

**Etxadi elkarteko Ainhoa Manzano psikologoa Bergaran izan zen eguaztenean hitzaldi bat ematen, Bergarako Udaleko prebentzio sailak gonbidatuta. *Seme-alaben hazkuntzan, guraso guztiek ezagutu beharko lituzketen giltzarriak* izan zen hitzaldiaren izenburua.**

**Zenbatu daitezke giltzarriak?**

Egia esan, zaila da, baina oinarri batzuk badaude eta horiei kasu eginez, guk 10 giltzarri aipatzen ditugu.

**Zeintzuk dira giltzarri horiek?**

Ez dugu ahaztu behar umeek imitatu egiten gaituztela etengabe; jolas egin behar da umeekin, jolasak garrantzi, handia duelako umearen garapen psikologiko eta emozionalean; malgutasuna eta errespetua; emozioak, sentipenak adierazteak izugarrizko garrantzia du; beste pertsona baten lekuan jartzen irakatsi behar zaie umeei; diziplina demokratikoa aplikatu behar zaie, hau da, parean egon behar dira eskakizunak eta babesak; autoestima indartu; arauak egon behar dira; haserraldiak eta indarkeria ekintzak ez egin umeen aurrean; eta azkena, gizarte harremanak indartu eta ikastetxearekin lotura ona izaten lagundu.

**Nola lortzen da hori guztia?**

Komunikazioa ezinbestekoa da. Umeekin hitz egin behar da, asko hitz egin behar da. Gainera, modu baikorrean hitz egin behar da beti. Euren ekintza edo eskaerei "ez" esan beharrean, alternatibak eskaini behar zaie. Bestalde, ez zaie errurik bota behar, gauzak beste modu batera egin daitezkeela eta modu horiek zeintzuk diren azalduta etekin hobeak lortzen dira.

**Etekinak, baina, epe luzean ikusiko ditugu eta pazientziak epe motza du sarritan.**

Jakin egin behar da pazientzia izaten. Giltzarri hauek jorratzea eta lantzea etengabeko lana da, konstantea, eta horri eutsi behar zaio seme-alabak hazteko.

Hala ere, gurasoek ikasi behar dute beti jarrera bera mantentzen. Tinko mantentzeak lan gehiago ematen du batzuetan, eta jarrera aldatzea erosoago zaio gurasoari, baina gehiegitan aldatzen dugu jokabidez.

Esan bezala, gurasoak konstanteak izan behar dira, seme-alabak gizaki bihurtzen doazen heinean ikusiko dute euren lanaren etekina.

**"Seme-alaben ekintzei "ez" erantzun beharrean, alternatibak eskaini behar zaie"**

**"Gurasoek jokabidez aldatzen dute askotan, baina beti jarrera bera izaten ikasi behar dute"**

**"Seme-alabekin garbi hitz egin behar da beti, adinaren araberako hizkuntzan"**

**Seme-alabekin jolasteak duen garrantzia azpimarratu duzu.**

Bai, garrantzia izugarria du. Bakarrik ez ezik, etxekoekin eta taldean jolasten ere irakatsi behar zaie; modu horretan bakarrik ikasiko eta baloratuko dituztelako jarrera batzuk, adibidez, txanda heldu arte itxarotea.

**Adinaren arabera aldatu egiten dira giltzarriak?**

Haurtzarotik nerabezaroa bitartean aplikatu daitezke giltzarri horiek 0 eta 19 urte bitarteko seme-alabetan. Ahaztu gabe seme-alabekin garbi hitz egin behar dela eta adinaren araberako hizkuntza erabili behar dutela gurasoek.

**Ze bide erabili dezake herritarrak edozein kezka edo galdera egiteko zuei?**

Telefonoz bada, eguenetan 11:00etatik 12:00etara edo 16:00etatik 17:00etara zenbaki honetan: 944 05 15 49. Bergararrek doan dituzte kontsultak, Udalarekin dugun akordioagatik. Internetez bada: *www.bergara.net*.

**PREBENTZIOA** > HEZIKETA PROZESUA

# Haurrei norabide egokia hartzen lagundu behar zaie

Huts egiteko eta probatzeko aukerak ere eman behar zaizkie seme-alabei

**O.E.** > ARRASATE

Maite Aizpiri prebentzio gaietako adituaren esanetan, "garrantzitsua da seme-alaben heziketa prozesuan haurrari norabide egokia hartzen laguntzea, betiere haurrari huts egiteko eta probatzeko aukera emanez. Eta kontuan izanik, badirela zenbait gauza seme-alabek ikasi beharko dituztenak, norbere burua ez kaltetzeko, pertsona autonomoa izatera heltzeko edo familian, eskolan eta gizartean ongi moldatu ahal izateko". Horreatarako seme-alabei zenbait arau eta muga jartzea ezinbestekoa da Aizpirirendako, eta "arauak eta mugak jartzea ez dugu lotu behar guraso autoritario izatearekin, baizik eta seme-alabei haien garapen prozesuan babestu eta gidatzearekin".

**ZER ARAUTU BEHAR DA?**

Maite Aizpiriren esanetan dena ez da arautu behar, zenbait gauza seme-alabek eurak probatu beharko dituzte-eta, esperientziatik ikasteko. Garrantzitsua da arauak guraso eta seme-alaben artean adostea eta arauen zergatia azaltzea. Gurasoek, gainera, konstanteak izan behar dute eta arauak betarazi. Aizpiriren ustez, familian, gizartean eta eskolan ondo moldatzeko jokabideak arautu behar dira eta baita autonomia eta erantzukizuna garatzeko portaerak ere, adibidez.



Haurtzarotik nerabezarora handitzen. VA I VEN

**LEGEDIA** > NERABEEN ARAU JURIDIKOA

# Zer sinatu dezakete adin txikikoek eta zer ez?

Gurasoek baliogabetu egin ditzateke adin txikikoek sinatutako kontratu gehienak

**O.E.** > ARRASATE

Adin txikikoek zer kontratu sinatzeko gaitasuna duten eta zertarako behar duten gurasoen baimena azaltzen duen artikulu bat atera du *Eroski* aldizkariak. Adibide praktikoak jasotzen ditu: esaterako, adin txikiko batek sinatutako kontratu batek noiz balio duen, tatuajeak egitea araututa dagoen edo ez eta eskuko telefono bat kontratatu dezaketen edo ez.

Artikuluak jasotzen duenaren arabera, oro har, adin txikiko batek sinatzen dituen kontratu guztiek balio dute, baina gurasoek baliogabetu ditzakete. Eskuko telefono bat kontratzearen inguruan, gurasoetako batek edo bestela zaindariak sinatu behar du kontratua. Dena dela, adin txikikoak kontratua sinatzen badu, baliozkotzat jotzen da berez, nahiz eta gurasoek eskubidea duten baliogabetzeko, nerabea adin nagusiko egiten ez bada tarte horretan. Tatuaje bat egiteko, EAEn, adin txikikoek edo ezintasunen bat daukatenek euren lege-ordezkariaren baimena aurkeztu behar dute, bestela ez diete egingo.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> BIDE ERTZEAN**
Pop-rock doinuekin liluratu zituen Zabalotegin batutako entzuleak **> 30**



**> NICK OLIVERI**
Kyuss eta QOTSA taldeetako kide ohiari elkarrizketa **> 31**



**> KANTU TXAPELKETA**
Debagoiendar guztiak Gipuzkoako finalerako sailkatu dira **> 32**

# Finalera bideko martxa baten lehen notak Lujanbioren ahotik

**JENDETZA**
Labegaraieta gainezka 1.550 lagunekin; toki gabe, kanpoan 200 bat geratu ziren

**MAISUTASUNEZ**
Lujanbio garaile 708,5 punturekin



Labegaraietako kiroldegian aurpegi ezagun asko batu zen, kazetari eta bertsolariekin batera. JOSETXO ARANTZABAL



Maialen Lujanbio hernaniarra. J.A.

**IRATI.A/MAIDER.A** > BERGARA
Labegaraieta gainezka, kanpoan ez zen giro; hala ere, jende mordoa txarteldegi ondoan zain sarrerarik ba ote zen galdezka; ilera luzea, hotza eta haizea, baina lanean fin ibili ziren Bergarako eta Oñatiko bertso eskolako lagunek 1.550 zaleri eman zieten barrurako pasea. Agortu ziren sarrerak, eta kanpoan 200 zale inguru sartu ezinik gelditu arren, hasi zen bertso festa jendetsua.

Agurretik beraienganatu zituzten bertsolariek entzuleak eta agurretan ez ziren falta izan, besteak beste, Bergarako Besarkadaren aipamenak; bai Fredi Paiak eta baita Beñat Gaztelumendik ere besarkadak besarkada gerra emateko gertu zetozela esan baitzuten. Paia lehen tokian eserita, Gaztelumendi azkenengoan, tartean Etxahun Lekue, Aitor Mendiluze, Jon Martin eta Maialen Lujanbio.

Zortziko nagusiarekin hasi zuten saio puntuagarria eta gaur egungo gaiez jardun zuten bertsolari guztiek: hipotekaz, A Gripeaz eta bortxaketez, hain zuzen ere. Azken horren harira, egin zuten lehen ofiziokako saioa Lujanbiok eta Gaztelumendik. «Zuen semeak neska bat bortxatu eta hil zuen. Haren aurkako epaiketa gaur hasiko da, eta oraintxe sartu zarete biak epaitegira" gaia ipini zien Alaitz Rekondo gaijartzaileak.

Saio borobila egin zuten tonu serioan, entzuleak hunkitzeko moduko arrazoiak emanez. Esaterako, Maialen Lujanbiok honela amaitu zuen bere azken bertsoa: "Eska dezaket errukia edo / belaunikatu lurrean / baina barkatu ze hitz hutsa den / heriotzaren aurrean".

**TXIKIAN MIKROFONO GABE**
Zortziko txikian Jon Martinek eta Maialen Lujanbiok egindako saioa izan zen txukunena eta txalo gehien jaso zuena. Bi herritarren paperean jardun zuten: Jon Martin domekero mezatara joaten dena, eta Maialen Lujanbio, domeka horretan telebista zetorrela-eta propio joan dena.

Jon Martin kantuan hasi eta bat-batean argindarrak huts egin zuen kiroldegian; mikrofonorik gabe, baina, bertsotan jarraitu zuten bertsolariek; eta baita egoera hura baliatu ere arrazoi politak botatzeko. Jon Martinen amaiera ozen errepikatu zuten entzuleek eta horrela erantzun zion Maialenek: "Etorriko nitzake / ez nintzake damu / koro hau zenutela / jakin izan banu". Argia bueltatu zenean ere, Lujanbiok aurkitu zuen aitzakiarik horri erreferentzia egiteko "jainkoa ere badabil / joan eta etorri", esanez.

Puntuari erantzunez ez ziren puntako bertsoak entzun eta finalerdietan hamarreko txikiko ariketa ordezkatzen duen seiko motzera pasa ziren gero. Orduan ere Maialen Lujanbiok erakutsi zuen zergatik amaieran puntu gehien merezi izan zituen.

Lekueri eta berari honako gaia ipini zien Rekondok: Lanpostu baterako elkarrizketa egiteko zain zaudete biok. Zuk Etxahun 52 urte dituzu, zuk Maialen 25. Bere adina eta emakume izatea aprobetxatuz: "Nahiz zurea gogorra den / lasai egizu asperen / zuri ez dizute galdetuko ta/haurdun ote zauden", bota zuen bigarren bertsoan eta ofizioa errematatzeko arrazoi borobila erabili zuen: Guk lanpostu bat eskatzen degu/ta ez errukia".

**MARTXA POLITA KARTZELAN**
Azkar joan zen saioa aurrera, bizi, eta kartzelara iritsita, doinu luze eta motelagoek hartu zuten tokia.

(30. orrialdean jarraitzen du)

## Bertso eskolako gazteen lana txalogarria dela adierazi dute antolakuntzatik

Saioaren antolakuntzan izandako laguntza, ez zen gero izan hutsa. Antolatzaileen ustez bikaina, Bergarako eta Oñatiko bertso eskoletako lagunak zoriontzeko eta batik bat eskertzeko adinakoa zalantza gabe.

Lurra babestu, aulkiak ipini, eskenatokia muntatzen lagundu, sarrera txartelak kontrolatu, sarrera-irteerak zaindu, eta dena amaitutakoan aulkiak berriz batu. Peto gorriak jantzita, fin-fin hasi eta bukatu artean egin zuten makina bat lan. Zaletasunak arindu zuen lana eta entzuleek ere eskertu, tokia egoki prestatu izana. Bertso eskolako gazteen lana benetan txalogarria izan zela behin eta berriro adierazi nahi izan dute antolakuntzatik.



Bergarako eta Oñatiko bertso eskoletako gazteak fin-fin aritu ziren lanean. IIRATI AGIRREAZALDIEGI

## Finalerako martxa baten lehen notak Lujanbioren ahotik

(29. orrialdetik dator)
Gaia honakoa zuten: "Argazkilaria zara. Oraintxe iritsi zara gertakariaren lekura, eta lanean hasteko unea da". Istripuaren aukera egin zuten Etxahun Lekuek, Aitor Mendiluzek eta Beñat Gaztelumendik.

Mendiluzek fin deskribatu zuen egoera eta bigarren bertsoan argazkilariaren paperetik arrazoi polita bota: "Egin diot klik bakarra / bihar famaren aparra / baina sentipen arraroa da / batzutan gogor samarra/denek bi begi itxitakoan/nik bat zabaldu beharra".

Maialen Lujanbioren kartzelako lanak bere saio guztia borobildu zuen. Mikel Laboaren *Martxa baten lehen notak* doinuarekin kale istilu batean lanean ari zen argazkilariaren ahotik jardun zuen. Punta puntako hiru bertso bota eta doinuak ez ezik esandakoak ere giro berezia sortu zuen entzuleen artean.

Hiru bertso goitik behera josiak, bigarrenean honela arrazoitu zuen bere lana: "Espaloi hutsak atera eta/esplikatu leike dena/Nahiz eta ez dela ezer pasa/den esaten didatena/pasa ez denak erakusten du/sarri asko pasa dena".

**PUNTUEN IRRIKAN**
Kartzelakoarekin amaitu zen saioa eta agurrekin eta ikuskizunaz gozatu ostean, puntuen irrika. Batzuen txaloak besteen kritika, baina azken batean zaleak etxera bertso gosea aseta.

Maialen Lujanbio izan zen lehena (708,5 puntu); Aitor Mendiluze bigarrena (680) eta Beñat Gaztelumendi (644,5) hirugarrena; Jon Martin (619); Etxahun Lekue (608,5) eta Fredi Paia (596) segidan hurrena. Jendearen ahotan puntuen arteko aldea handia izan zena.

**TOLOSAN HURRENGOA**
Bertsoak dastatzeko gogoz geratu direnek badute aukera. Hurrengo astean egin dezatela bisita Tolosa aldera. 17:30ean Usabal kiroldegian, Ainhoa Agirreazaldegi elgetarrak jardungo du bertsotan Uxue Alberdi, Igor Elortza, Iñaki Gurrutxaga, Sustrai Colina eta Iker Zubeldiarekin batera.

Eta Bergaran batzuei gertatutakoa pasatzerik nahi ez duenak *www.bertsosarrerak.eu* helbidean garaiz har dezala sarrera.

DATUA

**1.550**

**PERTSONA LABEGARAIETAN**

Ilara handia sortu zen Labegaraieta kiroldegiko txarteldegian. Izan ere, askok azken orduan sarrera erosteko asmoa izan zuten. Hala ere, denak ezin sartu eta 200 bat lagun kanpoan geratu ziren.



Fran Iturbe eta Imanol Ubeda gitarrarekin eta atzean Karlos Arantzegi bateria jolea, zapatuan Zabalotegin. JOSETXO ARANTZABAL

**KRONIKA** > BIDE ERTZEAN

# Helduaroan bete-betean

**NON:** Zabalotegi aretoan.
**EGUNA:** Zapatua, azaroak 7.
**ZENBAT JENDE:** 150 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi inguru.

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
Astean zehar Bilbon eta egubakoitzean Andoainen jo ondoren, *Leidor sessions* zuzeneko lana aurkezteko Bide Ertzeanek iragarritako hiru kontzertuetako azkena zen zapaturako Bergaran iragarritakoa. Iazko urtarrilean Leidor aretoan egindako grabazioan boskotea aritu bazen ere, Ubeda anaiak, Fran Iturbe eta Karlos Arantzegi Joserra Senperenaren hutsunea ahalik eta ondoen betetzen saiatu ziren zapatuan, baita lortu ere. Era berean, Leidorren erabilitako eszenografia zaindutik lanparatxoa ekarri zuten bakarrik Bergarara. *Biluziago* baina orduan bezain *findu-ta* etorri ziren tolosarrak eta emanaldi goxoa, hurbila eta dotorea eskaini zuten.

Anfitrioi ezin hobea dela erakutsi zuen beste behin ere Imanol Ubeda kantariak. Sentimenduz, ironiaz eta umorez aurkeztu zituen hainbat kantu, entzuleak hasieratik bereganatuz. Diskoan agertzen ez diren aspaldiko bi kanturekin eman zioten hasiera kontzertuari eta jarraian Leidorren batutako kantu gehienak etorri ziren: *Graffitti* ("Jakin-mina genuen pianorik gabe nola geratuko zen" esan zuen Ubedak); *Gazte ziren, aske ziren*; *Badator eguna*; *Zein da bidea*; *Hotel Bel-Air*; *Iritsi dira notiziak*, Bide Ertzeaneko kantariak Elgetako lagunei eskainitakoa; eta beste hainbat.

**LAU MUSIKARI BIKAIN**
Hamaika urteren ostean, argi dago primeran moldatzen direla Bide Ertzeaneko kideak, elkarri ikusi gabe jokaldi zoragarriak egiten dituzten futbolariak bailiran. Helduaroan dira bete-betean eta pop-rock talderik onenetakoa dela ez dago zalantzarik. Lau musikariek lan aparta egin zuten eta agerian geratu zen Fran Iturberen gitarrek berebiziko garrantzia daukatela. Doinu moteletan bai, baina azken zatiko arinagoetan ere gustura jardun zuten, *kañeroago*. Arantzegi bateria joleak ere protagonismoa aldarrikatu zuen atzealdetik ("Eskerrak gripearekin egon den. bestela auskalo zer ekarriko gintuen..." bota zuen Ubedak).

*Atsegin ditut* kantuarekin agurtu ziren, aretoari lora batzuk bota eta entzuleak hurrengo baten ikusteko itxaropenaz. Ikusleak dantzan jarri ez arren (zutik jarraitzeko musika ere bada...), gehienek oinak ondo astindu zituzten. Bergarako *Zabalotegi sessions* xumeagoa baina elegantea baita.


Imanol Ubeda Bide Ertzeaneko kantaria, zapatuko kontzertuan. J.A.

**Nick Oliveri** > Kyuss eta Queens of the Stone Age taldeetako kide ohia

# "Akustikoa egiazkoa da, agertokira biluzik igotzea"

I.BARANDIARAN/GAIZKA VITORIA > OÑATI

**Nick Oliveri musikari estatubatuarra oso ezaguna bilakatu zen 90eko hamarkadan Kyuss taldean baxua jo eta hainbat abesti konposatzeagatik. Horren ostean, Queens Of The Stone Age taldearekin arrakasta lortu zuen. Talde horretatik kanpo geratu zenetik hainbat proiektutan esku hartu du. Egubakoitz gauean Oñatiko gaztelekuan izan zen bakarrik gitarra akustikoarekin. Bere ibilbideko kantuez gain, Rocky Erickson, Turbonegro eta bestelakoak interpretatu zituen. Ohiko emanaldi akustikoetan baino gordinago aritu zen Oliveri, zakarrago; trebe ibili zen gitarrarekin` eta abestiei ukitu berezia, propioa, eman zien.**

**"Death acoustic". Horrek esan gura du kantu horiek, sasoi hori, bukatzera doala?**

Ez dakit. Bakarka hasi nintzenean pentsatu nuen barneko abesti melodiko hilak egin gura nituela; zalantzan egon nintzen death-punk deitzea. Hala ere, ez naiz ohiko bakarlari bat; ondo sentiarazten nauten kantuak jotzen ditut. Horren harira, pena da zuen hizkuntza ez menderatzea, horrek komunikazioa erraztuko luke-eta.

**Zer eman dizu zuri rock-and-rollak?**

Guztia eman dit eta bera behar dut bizirik sentitzeko. Maite dut taldeak ikustea, musika jotzea, niretako ere jotzea. Esan beharra dago AEBetan gaur egun rock-and-roll gutxi dagoela; hip-hopa da nagusi. Eskerrak Europan hobeto zaudetela.

**Orain dela gutxi Dwarvesekin jotzen aritu zara. Sentsazio desberdinak bizi dituzu taldean eta bakarka?**

Bai, Australian barrena bira egiten egon nintzen, eta han nengoela Dwarvesekin kontzertu batzuk egin nituen; pozgarria izan zen lagunekin bat egitea. Akustikoa egiazkoa da guztiz, agertokira biluzik igotzea moduan, edozein akats, edozer... guztia begibistan gelditzen da; erronka bat da niretzat.

> "Rock-and-rollak bizitzan guztia eman dit eta bera behar dut bizirik sentitzeko"

> "Esku hartzen dudan taldeetara soinu gordinago bat eramaten ahalegintzen naiz"

**Gitarra jotzen eroso ikusi zaitugu. Aspalditik jotzen duzu?**

Hasieran gitarra jotzen hasi nintzen, baina talde batek baxua behar zuelako aldatu behar izan nuen; eta bi instrumentuekin hala nola moldatu naiteke.

**Akustikoa jotzen, baina Motörheaden kamiseta soinean jantzita. Kyuss eta QOTSA taldeetan ere punkiena zinen. Zure betiko jarrera bat irudikatzen duzu?**

(Barre). Esku hartzen dudan taldeetara soinu berezi bat eramatea gustuko dut, gordinagoa... Horrez gain, abesten askotan garrasi egiten dut, abestea ere barrukoa kanpora ateratzeko bidea delako. Punka jarrera bat da, bizitzeko modu bat eta mundua ikusteko modu bat. Gainera, punk talde asko ditut gustuko; esaterako, Dead Kennedys.



Nick Oliveri egubakoitzean Oñatiko gaztelekuko emanaldian. JOSETXO ARANTZABAL



**MUSIKA** > GIPUZKOAKO EUSKAL KANTU TXAPELKETA

# Debagoieneko izarrak finalean


Amy Kerkhof bergararra. MAIDER ARREGI



Maddi Iregi eta Maite Galdos taldearekin agertokian. JOSETXO ARANTZABAL


Eneritz Urrutia eta Mailen Arratibel arrasatearrak. MAIDER ARREGI


Bea Azurmendi arrasatearra. MAIDER ARREGI

**NON:** Arrasateko Amaia Antzokian.
**EGUNA:** Zapatua, azaroak 7.
**IRAUPENA:** Bi ordu eta laurden.

**MAIDER ARREGI** > ARRASATE

Musikari eta abeslarien harrobi ederra daukagu Debagoienean. Nabarmen geratu zen zapatuan jokatutako Gipuzkoako XIII. Euskal Kantu Txapelketan. Izan ere, parte hartu duten ibarreko guztiak sailkatu dira finalerako: bakarlari moduan, Bea Azurmendi arrasatearra eta Amy Kerkhof bergararra; bikote moduan, berriz, Eneritz Urrutia eta Maialen Arratibel arrasatearrak; eta, Aretxabaleta eta Eskoriatzako Maddi Iregi eta Maite Galdos bikotea. Hala, 10 partehartzaileetatik bost sailkatu ziren, horietatik lau, aipatu moduan, debagoiendarrak.

**HARROBI POTENTEA**

Musikarekiko zaletasuna badago ibarrean eta gure ordezkariek maila altua erakutsi zuten zalantza gabe. Bosgarren sailkatua Ioritz Aizpitarte zarauztarra izan zen. Gaztetxo honen ahots goxoak, giro euritsu eta freskoari aurre egin zion. Hain zuzen ere, txapelketari hasiera eman zion Aizpitartek eta Amaia Antzokia epeltzea lortu zuen.

Lehen txalo zaparrada etxekoen txandarekin iritsi zen. Eneritz Urrutia eta Maialen Arratibelek bikain defenditu zituzten aurkeztutako bi abestiak. Lehena Etzakit taldearen *Urrun izan arren*. Bigarrena, berriz, erritmo biziagokoa eta abesti sortu berria, *Lehen dantza*; egileak, Maixa Lizarribar eta Kristina Solano. Mikrofonoaz arazo txiki bat izan zuten arren, maisuki jakin zuten aurrera egiten. Taula gainean horrelakoak ere gertatu egiten dira eta hortik ateratzen jakitea ere txalogarria da. Baina, benetan gustura eta eroso, abesti berriarekin azaldu zirela azaldu ziguten. "Urduritasunari aurre egin eta bigarren abestia soltura handiagoz kantatu dugu".

Segidan, Aretxabaleta eta Eskoriatzako bikotea taularatu zen. Eskarmentudun musikarien laguntza izan zuten, tartean, Ines Osinaga trikitixa jotzailea. Txapelketara aurkezten diren lehen aldia da. Anje Duhalderen *Gure Zortea* abestiarekin, ikuslea poltsikoratu zuten eta txalo zaparradak nagusitu ziren aretoan. "Ez genuen espero halako harrera jasotzea, asko hunkitu gara". Froga bikain gainditu zuten finalerako txartela eskuratuz.

Debagoieneko hirugarrena agertokira igotzen, Amy Kerkhof bergararra. Berak sortutako *Lagunen beharra* abestia kantatu zuen gitarraren laguntzaz. Originala eta era berean goxoa da Kerkhof.

Agertokian eskarmentua izatea gradu bat da eta Bea Azurmendik garbi utzi zuen hori. Taula gainean jarrera aparta dauka arrasatearrak eta publikoari bere ahots indartsu eta sakona transmititzen jakin zuen. Taldeak egin duen *Mende bat* abesti itsaskorrarekin bat baino gehiago bere aulkian dantzan jarri zuen. "Oso gustuko dugun abestia da eta eroso sentitu naiz abesten" azpimarratu zuen Azurmendik.

**FINALA DONOSTIAN**

Finala domekan jokatuko dute 15 partaidek, Donostiako Antzoki Zaharrean. Juan Luis Aranburu koordinatzaileak azaldu moduan, "aurtengo edizioan sortutako abesti ugari ditugu, harrobi bikaina dago". Eta, noski, aurten ere, disko batean batuko dituzte abesti horiek. "Lehia alde batera utziz, ilusioa eta motibazioa sortzea da gure helburua. Disko bat kaleratzeko edota plazaz plaza aritzeko grina sortu nahi diegu gaztetxoei".

## DEBAGOIENDAR GUZTIAK FINALEAN



**Bea Azurmendi**
Arrasate

"Guk egindako abestia aurkeztu dugu eta gustura abestu dut. Egindako lanarekin pozik gaude. Esperientziak laguntzen du, batez ere urduritasuna neurtzeko. Finalean ea ondo egiten dugun".



**Maddi Iregi eta Maite Galdos**
Aretxabaleta eta Eskoriatza

"Lehen aldia da aurkezten garela eta ez genuen espero sailkatzea. Esperientzia baten bila etorri gara. Oilo ipurdia jarri zaigu jendea txaloka hasi denean emanaldian zehar, emozionatu egin gara. Motibazioa da guretzat, zalantza gabe, aurrera egiteko. Ordu txikiak arte entseatu dugu eta gustura gaude".



**Amy Kerhof**
Bergara

"Sorpresaz hartu dut epaimahaiaren erabakia. Ondo ikusi dut nire burua taula gainean; ez nengoen urduri. Arrasateko finalerdian maila ona egon dela iruditu zait, ea finalean ere mantentzen den".



**Eneritz Urrutia eta Maialen Arratibel**
Arrasate

"Ez genuen espero. Mikrofonoa tarteka joan egin zaigu, baina aurrera egin dugu urduritasuna gainditu. Bigarren abestian soltura handiagoaz aritu gara eta gustura eszenatokian. Maila nahiko altua da eta hurrengoan ondo pasatzea dugu helburu, irabaztea oso zaila ikusten dugu-eta. Esperientzia bila goaz".

ASTE BUKAERA...

## Beñar Kortabarriarekin



Beñar Kortabarriak eskola kiroleko entrenamenduetan parte hartzen du alabarekin egubakoitz arratsaldeetan.

JOSETXO ARANTZABAL

# "Aste bukaerako agenda semearen eta alabaren arabera antolatzen dugu"

Beñar Kortabarria antzuolarrak Elhuyar Fundazioan egiten du lan eta 'Teknopolis' saioko kazetaria da

Semeak jokatzen dituen futbol partiduak ikustera joaten da eta lagunekin poteoan ibiltzea atsegin du

**MIREIA BIKUÑA** > ANTZUOLA

Beñar Kortabarria (Antzuola, 1962) kazetaria da eta Elhuyar Fundazioan egiten du lan. Egunero hartzen du autoa Antzuola-Usurbil bidea egiteko. "Eguneko lan handiena lanera heltzea da. Antzuola-Usurbil ibilbidea birritan egiten dugu N-1etik, eta izugarria da. Zoramena da autoarekin ibiltzea, baina gidatzea atsegin dut eta lasai ibiltzen naiz", esan digu. Errepidean istripuak egunero ikusten dituela eta noizean behin sustoren bat izan duela kontatu digu.

Bulegora heltzen denean, *Teknopolis* saioko lankideekin kafea hartu eta saioa prestatzen dute. "Dokumentazioa jaso, testuak idatzi, irudiak grabatu, muntaia egin, laguntza eskatu... Alegia, telebistako saio bat egiteko beharrezkoak direnak egiten ditut", dio Kortabarriak.

*Teknopolis* saioak 11 urte bete ditu. Beñar Kortabarriak hiru urtean zuzendari lanak egin zituen, baina azken bietan kazetari lanak egiten dihardu. "Astero topatzen dugu zer kontatu. Zailagoa da, ordea, sekulako oihartzuna izan dezakeen gaia topatzea, baina zientzia mundu osoan berdin garatzen da, eta badago zer kontatu", dio.

**ETXEKO LANAK**

Elhuyar Fundazioko lanak bukatuta, autoa hartu eta Antzuolara bueltatzeko ordua heltzen zaio. 20:00 aldera iristen da etxera, eta eguneko bigarren lan jarduna hasten da: familia. "Emazteak eta biok egiten dugu lan Elhuyarren eta egun osoa egiten dugu etxetik kanpo. Iluntzean bueltatzen garenean semea eta alaba dira inportanteenak", esan digu. Dena den, beste hainbat lan egiten dituzte: hurrengo egunerako bazkaria prestatu, garbigailua ipini eta seme-alabekin etxeko lanak egin, besteak beste.

Egubakoitzetan 18:00 aldera heltzen da etxera, eta kirol arropak jantzita alabarekin eskola kiroleko entrenamenduetara joaten da. "Gaur egun, saskibaloia lantzen gabiltza, eta asteko tentsioa kentzeko aukera paregabea da umeekin egotea", esan digu.

**ASTE BUKAERAKO GOSARIAK**

Aste bukaerako planak semearen eta alabaren arabera antolatzen dituela esan digu: "Semeak futbolean jokatzen du eta aste bukaeretan partiduak ditu, eta alaba eskola kirolean dabil. Egubakoitzetan bakoitzak ze norgehiagoka dituen ikusi eta planak egiten ditugu". Mendian paseatu, lagunekin poteoan ibili, bazkariak edo afariak antolatu eta kirola egin eta ikusi. Horiek guztiak atsegin ditu Kortabarriak. Era berean, zapatuetan eta domeketan pijama kendu barik eta gosariekin, egunkaria lasai irakurtzen duela esan digu.

Bestalde, aurreko aste bukaeran futbol partidua jokatu zuen lagunekin, eta oraindik giharretako mina duela esan digu: "40 eta 50 urteko lagunak elkartu ginen, Athleticzaleak Realzaleen kontra. Lehia penalti jaurtiketetan erabaki genuen. Oraindik gorputzeko mina daukat".

### "Antzuolarrek zoriondu egiten naute oraindik 'Teknopolis'-ek jaso duen sariarengatik"

Zientzia-dibulgazioaren Europako telebista-programa onenaren saria jaso zuen *Teknopolis* saioak European Science Foundationen eskutik. Beñar Kortabarria sari banaketa ekitaldian egon zen, eta saria oso gustura jaso zutela esan digu, egindako lanaren errekonozimendua delako. *Teknopolis* saioak jasotako sariak oihartzun handia izan du antzuolarren artean, eta oraindik zorion agurrak jasotzen ditu kalean. "Ezustekoa izan da niretako. Batzuek esaten didate poztu egin direla niri eman didatelako, beste batzuek gustuko duten saioari eman diotelako eta beste batzuek, antzuolar bati eman diotelako", esan digu. Era berean, beste antzuolar batzuek lortutako emaitza onengatik asko pozten dela esan digu: "Adibide batzuk jartzearren, Xabier Arantzetak, Aitor Elkorok edo Ander Berraondok emaitza onak lortu dituztenean poztu egin naiz eta zoriondu egin ditut. Antzuola herri txikia da eta guztiok ezagutzen dugu elkar".

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aizarnazabal.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai Aizarnazabalen. Prezio oso interesgarria (180.000 euro). Behe solairua izan arren, argitsua da. 2 logela ditu, komuna, sukalde amerikanoa eta egongela-jangela. Komuna izan ezik, beste guztia kanpora begira. Altzari Ingurune lasaian dago. 637-51 33 04ra deitu.

**Antzuola.** Sagasti auzoan 89 metro koadroko etxebizitza salgai edo errentan. Sukaldea, hiru gela, egongela, bi bainugela, bi balkoi eta despentsa. Jantzita utziko genuke. Garaje itxiarekin. 687 11 07 21

**Aramaio.** Baserria salgai. Guztiz berriztatua. 180 metro koadro, 2.000 metro koadroko lursailean. Prezio interesgarria. 648 56 41 38

**Arrasate.** Etxebizita salgai Jose Luis Iñarran. Eguzkitsua, bi komun, hiru logela, jantzigela, sukaldea eta egongela handia. Guztiz berriztua. Aukera ezinhobea. Deitu 658 72 09 87 telefono zenbakira.

**Ataun.** Baserria salgai. 45 urteko 65.000 metro pinudi, eta 8.300 metroko soroak. Harremanetarako deitu 943 13 36 88 telefono zenbakira.

**Beasain.** Pisu oso zentrikoa. 105 m2, 4 logela, 2 bainugela, balkoi eta terraza. Ia berria, material eta eraikuntza kalitate handikoa. La Salle ikastetxetik oso gertu. Armairu eta altzariak, berogailua, parketa, sukaldeko elektragailu guztiak, garbigailua. Garaje itxia aukeran. Argazki eta informazio gehioago *www.ttiki.com/6609* webgunean edo 656 73 11 43 telefono zenbakian.

**Bergara.** 80 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean, Justo Garate plazan. Sukalde eta bi komun jantziak, hiru logela, egongela, balkoia, despentsa eta garaje itxia. Jantzita utziko genuke. Ia berria eta oso egoera onean. Deitu 650 79 28 63 edo 626 11 55 14 telefono zenbakietara.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zabalotegin. 5. solairuan. 3 logela, sukaldea, jangela, komuna, balkoia eta trasteleku txiki bat. 20 metro koadroko sotoarekin. Deitu 607 41 14 44 telefonora.

**Berriatua.** Etxebizitza salgai Berriatuan. 72 metro koadro. Bi logela, komuna eta sukalde-egongela. Berriztua eta guztiz jantzia hartzeko aukera. Prezio negoziagarria. Deitu 946 16 64 19 edo 946 13 90 56 telefono zenbakira.

**Eibar.** Bidebarrieta kalean pisua salgai. 90 metro koadro. Sartzeko moduan. 24.000.000 pezeta. Deitu 946 82 04 58 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat *etxeasal@live. com* helbidera.

### 102. EROSI

**Oñati.** Lau logelako etxebizitza erosiko nuke. Deitu 677 42 52 05 telefono zenbakira.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logelarekin. Oso ondokokatuta dago eta berokuntza zentrala dauka. Deitu 659 44 86 79 telefono zenbakira.

**Gasteiz.** Gasteizen pisua alokatzen da, altzariz hornitua, 2 logela, sukaldea, jangela, egongela, igogailua eta beragailu zentrala. Txagorritxu eta Eusko Jaurlaritzatik gertu. Deitu 665 75 20 46 telefonora.

**Madotz.** Aralar aldera, Madotz herrian, Larraunen, estudiobizitza bat alokatzen da, 300 euro hilean. Borda bat ere bai, 250 euro. Deitu 696 86 77 56 telefono zenbakira.

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzita. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. 650 euro. Deitu 645 71 98 84 telefonora.

| 1. ETXEBIZITZAK | 3. LOKALAK | 5. IRAKASKUNTZA | 7. ANIMALIAK | 9. HARREMANAK |
|---|---|---|---|---|
| 101. SALDU<br>102. EROSI<br>103. ERRENTAN EMAN<br>104. ERRENTAN HARTU<br>105. ETXEAK OSATU<br>106. BESTELAKOAK | 301. SALDU<br>302. EROSI<br>303. ERRENTAN EMAN<br>304. ERRENTAN HARTU<br>305. BESTELAKOAK | 501. JASO<br>502. EMAN<br>503. BESTELAKOAK | 701. SALDU<br>702. EROSI<br>703. EMAN<br>704. BESTELAKOAK | 901. AGURRAK<br>902. HARREMANAK<br>903. DEIAK<br>904. BESTELAKOAK |
| **2. GARAJEAK** | **4. LANA** | **6. MOTORRA** | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** |
| 201. SALDU<br>202. EROSI<br>203. ERRENTAN EMAN<br>204. ERRENTAN HARTU<br>205. BESTELAKOAK | 401. ESKAINTZAK<br>402. ESKAERAK<br>403. BESTELAKOAK | 601. SALDU<br>602. EROSI<br>603. ALOKATU<br>603. KONPONDU<br>604. BESTELAKOAK | 801. SALDU<br>802. EROSI<br>803. EMAN<br>804. HARTU<br>805. TRUKATU<br>806. GALDU<br>807. AURKITU<br>808. BESTELAKOAK | |

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

*sailkatuak@goiena.com* edo *www.goiena.net-en*

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Harremanetarako telefonoa: 679 09 33 34

**Arrasate.** Bikotea urtarrilaren 1etik aurrera bi gela edo gehiagoko etxebizitza alokatzeko prest. Deitu 665 72 79 38 edo 635 70 96 43 zenbakietara.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan Bergaran. Deitu 600 25 98 54 edo 687 61 63 00 telefono zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza bila nabil errentan hartzeko, konpartituz edo bakarrik. Edurne naiz eta 33 urte dauzkat. Deitu 653 38 56 12 telefonora.

**Bergara.** Errentan hartzeko etxebizitza bila nabil Bergaran. Deitu 697 88 35 62 telefono zenbakira.

**Lekeitio.** Lekeition urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil, 1 edo 2 logela. Deitu 658 70 19 53 telefono zenbakira.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Unibertsitatetik oso gertu dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da Arrasaten. Deitu 647 41 93 34 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Arrasaten. 270 euro. Deitu 618 00 08 28 telefono zenbakira.

**Donostia.** Oso ondo kokatutako etxebizitza batean etxea osatzeko pertsona behar da. Etxean pertsona bakarra bizi da. Ohe bikoitza, ikasteko mahaia eta armarioa. Ekainera arte, besterik ez. Deitu 20:30etik aurrera 669 96 23 55 telefono zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

### 202. EROSI

**Bergara.** Garaje itxia erosi nahi dut erdialdean. 635 20 81 22.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Altsasu.** Garaje plaza alokatzen dut Altsasuko Otadiako pisu berrietan. Argibide gehiago 649 38 52 48 telefonoan.

**Zarautz.** Garajea salgai edo alokagai Zarautzen, Aritzbatalde kalean. Interesatuek deitu943 13 13 43 telefonora.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garaje bat hartuko nuke errentan San Lorentzon. 665 73 51 59.

**Oñati.** Garajea errentan hartuko nuke. 679 62 69 64.

## 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan. Deitu 677 05 39 06 telefonora.

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan. 638 10 29 63.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Goierri.** Bertako neska bat behar da Beasainen ume bat zaintzeko eta garbiketa egiteko. Esperientziaduna. Ondo ordaintzen da. 609 41 38 97

**BERGARA**

**Arrandegian esperientziadun pretsona euskalduna behar da. 607 66 02 44**

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Alfonbra eta moketak garbitzen ditut, lehorrean, etxez etxe. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetera: 659 62 02 49

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte euskalduna arratsaldez lan egiteko gertu, umeak zaintzen edo etxeak garbitzen. Esperientzia handikoa. Deitu 618 41 24 79 edo 943 08 14 25 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Hemengo neska prest edozein lanerako, orduka ere bai. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 659 55 27 16

**Arrasate.** Neska euskalduna eguerdietan etxe zein atariak garbitzeko prest. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 663 04 53 99

**Arrasate.** Umeak zaindu edo garbiketak egingo nituzke. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 649 30 13 60

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 606 42 64 14.

**Azpeitia.** Lan bila nabil. Azpeitian, denda edo kafetegi batean lan egitea nahiko nuke. Idatzi mezu bat helbide elektronikoa: *eargia@gmail.com* Kontakturako telefono zenbakia: 647 08 10 15.Ainhoa.

**Bergara.** Emakume gaztea gertu garbiketa lanak egiteko. Orduka lan egingo nuke. Deitu 671 33 75 54 telefono zenbakira.

**Bergara.** Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko prest. Astebukaeretan, jai egunetan eta gauetan lan egingo nuke. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 630 88 54 46

**Bergara.** Neska bergararra gertu etxeak garbitu, nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 943 53 29 18.

**Bergara.** Esperientziadun mutila etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Kontakturako telefono zenbakia: 650 17 74 87.

**Bergara.** Emakume gaztea garbiketa lanak egiteko gertu. Orduka lan egingo nuke. Harremanetarako telefono zenbakia: 671 33 75 54.

**Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu orduka etxeko lanak egiteko. Interesatuek deitu zenbaki honetara: Telefonoa: 622 60 84 68.

**Bergara.** Urte askoko esperientzia duen neska gertu sukalde laguntzaile lan egin edota etxez etxe nagusiak zaintzeko. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 637 18 07 23

**Bizkaia.** Begirale gisa lan egingo nuke. Begirale ikastaroa eginda daukat (Urtxintxa Eskola), magisteritzako azken ikasturtean nago, EGA titulua daukat eta kotxe propioa. Edozein gauzatarako deitu konpromezu barik: 680 53 84 42

**Deba.** Emakume euskalduna ospitalean jendea orduka zaintzeko prest. Telefono zenbakia 665 74 18 66. Marian.

**Debagoiena.** Jantzi-dendan saltzaile lan egingo nuke. Urte askoan dendan ibilitakoa. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 627 96 19 22

**Debagoiena.** Iturgin laguntzaile lanak egingo nituzke. Magno Alberto. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 600 76 43 14 telefonora.

**Debagoiena.** 30 urteko gaztea gertu lanerako. Geriatria laguntzaile titulua daukat. Beste edozein lanetan aritzeko ere prest egongo nintzateke. Ordutegi arazo barik. Informazio gehiago jasotzeko deitu telefono zenbaki honetara: 685 70 76 25

**Debagoiena.** Gazte arrasatearra edozein lanegiteko prest. Esperientziaduna zerbitzari lanetan eta makina muntaketa lanetan. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 605 76 05 59

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Mutila gertu edozein garbiketa egiteko: atariak, bulegoak... Deitu telefono zenbaki honetara: 650 14 69 10

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edota pertsona edadetuak zainduko nituzke, egun osoz. Deitu telefono zenbaki honetara: 697 88 35 62

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanetarako. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 610 82 02 17

**Debagoiena.** Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informeak ditut. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 671 35 22 60

**Debagoiena.** Instalazio elektrikorako eta mantenurako lanak egiteko gertu egongo nintzateke. Elektrikaria naiz, teknikari komertziala. Javi. Deitu 669 49 83 24 edo 680 30 30 52 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). Deitu 618 00 08 28 edo 943 79 82 43 zenbakietara.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko gertu nago. Eli Cerezo. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 630 20 12 03

**Debagoiena.** Bergara eta Arrasate. Emakumea garbitasun lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Eguneko edozein ordutan egin dezake lan. 650 62 12 94

**Debagoiena.** Garbiketarako lanak egin eta pertsona edadetuak zainduko nituzke. Deitu 649 83 08 82 edo 943 76 44 27 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu mutil gaztea. Manuel. 943 75 22 30 edo 636 17 27 65

**Debagoiena.** Emakume arduratsua arratsaldez edo aste bukaeretan pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Deiut 697 93 73 32 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lan egiteko prest. Socorro Mora Soria. 627 14 63 79

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 $m^2$. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 $m^2$. Berritua.
- Aranerreka 85 $m^2$. Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- San Antonio, 46 $m^2$. Berritua.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 $m^2$. Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 $m^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak.**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea eta trastelekua.
- Zubiaurre, 55 $m^2$, 84.142 euro. Negoziagarriak.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 $m^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 $m^2$, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.
- Adosatuak eta bifamiliarrak. Eraikuntza berriak.

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
**MANTENIMENDU MEKANIKO lanetan aritzeko, esperientzia duen MEKANIKO on bat behar da.**
Epe luzerako kontratua, oso kondizio onean.
Ikusi lan eskaintzak: **943-16 20 48**
w w w . i k o l a n l a n a l d i . c o m

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edo supermerkatuetan lan egiteko gertu. Paperak ditu. Interesatuek deitu 636 01 91 12 telefonora.

**Debagoiena.** 27 urteko mutila gertu arotz edo soldatzaile lanetarako. Baita publizitatea banatzeko ere. Autoa daukat. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 691 79 53 34

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan ere biziko nintzateke. Bost urte daramatzat hemen eta legezko paperak dauzkat. Interesatuek deitu 646 78 81 40 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Antzeko lanetan esperientzia duen emakumezko batek lan egingo luke helduak zein umeak zaintzen. Ordutegi malgua eta lanerako prestutasuna. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 669 02 91 30

**Debagoiena.** Asteburuetan edozein txakur edo animalia zaintzeko eta paseatzera ateratzeko prest. Merkea. Interesatuek deitu 686 99 23 94 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Gazte arrasatearra muntatzaile edo zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 605 76 05 59

**Debagoiena.** Gertu nago pertsona edadetuen zein haurren zainketa lanak egiteko. Garbiketa lanak ere egingo nituzke, egunez zein gauez, eta orduka. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 638 54 75 93

**Debagoiena.** Gertu nago tabernari edo zerbitzari jarduteko, garbiketa lanak egiteko eta pertsona edadetuak zaintzeko. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 671 71 90 03

**Debagoiena.** Josteko makinak konpontzeko gertu nago. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 652 07 63 50

**Debagoiena.** Lau urteko esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten ere bai. Interesatuek deitu 626 78 22 95 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauez ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 648 06 84 71

**Debagoiena.** Mutil euskalduna gertu asteburuetan edozein lan egiteko: zerbitzari, garbiketak, konponketak eta abar. Merke. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 686 99 23 94

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luis de los Santos. Interesatuek deitu 671 27 78 36 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona edadetuen zein haurren zainketa lanak egiteko. Etxean bizi izateko prest. Harremanetan jartzeko deitu telefono honetara: 663 65 78 43

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, edota garbiketa lanak egiteko. Orduka edo gauez. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 678 23 54 93

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Gidabaimena daukat. Jhony. Harremanetan jartzeko deitu 943 75 22 30 edo 636 17 27 65 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila aste bukaeretan zerbitzari lanak egiteko gertu. Harremanetan jartzeko dieutu telefono zenbakira: 661 86 23 62

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo furgoneta gidari lanetarako. Legezko paperak dauzkat. Harremanetan jartzeko ditu 628 48 05 41 edo 943 71 21 15 telefono zenbaietara.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: tabernan, garbiketak lanetan, baserriko lanetan... 671 45 96 26

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Harremanetan jartzeko ditu 680 30 24 64 telefonora.

**Debagoiena.** Neska arduratsu esperientziaduna gertu garbiketa, dendari, azafata edo bestelako lanetarako. Harremanetan jartzeko ditu telefono zenbakira: 639 86 96 76

**Debagoiena.** Neska boliviarra gertu edozein motatako lanetarako. Egunez zein gauez. Esperientziaduna. Legezko paperak dauzkat. Harremanetan jartzeko ditu telefono zenbakira: 618 14 71 34

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauez ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. Deitu zenbaki honetara harremanetan jartzeko: 660 37 20 47

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu lan desberdinak egiteko: umeak zaindu, garbiketa lanak... Harremanetan jartzeko ditu telefono zenbakira: 636 05 36 18

**Debagoiena.** Neska gertu edozein lanetarako. Harremanetan jartzeko ditu telefono zenbakira: 679 17 11 35

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketan, ume edo nagusiak zaintzen zein zerbitzari lanetan aritzeko. Harremanetan jartzeko ditu telefono zenbakira: 660 56 65 58

**Debagoiena.** Neska gertu zerbitzari, garbiketa edo ume zein nagusiak zaintzen lan egiteko. Legezko paperak dauzkat. Deitu 628 48 05 41 edo 943 71 21 15 telefono zenbaietara.

**Debagoiena.** Ordenagailuak konpontzen ditut etxean bertan. 697 66 79 37

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egingo nituzke. 943 75 22 30 edo 636 17 27 65

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Arratsaldez eta baita aste bukaeretan ere. 697 93 73 32

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu goizetan pertsona nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 635 25 54 44

**Donostia.** Nikaraguako mutil bat naiz eta Donostian bizi naiz. Bertan edo inguruko herrietan lanen bat egiteko prest nago, adineko pertsonak zaintzen edota beste edozertan. Interesatuek deitu 943 65 40 57telefonora.

**Donostia.** Neska euskalduna, haur hezitzailea, haurrak zaintzeko prest.Donostia eta inguruko herrietan, edozein ordutegitan. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe. 616 38 31 64

**Donostialdea.** Haurrak zaindu edo klase partikularrak emango nituzke Donostian bertan edo inguruan. Umeekin esperientzia dut begirale bezala, baitaklase partikularrak ematen ere. Biologian lizentziatua eta EGA titulua duen neska bat naiz. Telefonoa:679 28 08 28

**Eibar.** Mutila eskaintzen da autonomo moduan eraikuntzan jarduteko. Erreferentziak. Harremanetarako telefono zenbakia: 605 80 05 82.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Telefonoa: 626 32 99 79.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da 15:00etatik aurrera ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Erreferentziak. Telefonoa: 691 53 28 93.

**Eibar.** Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Telefono zenbakia:666 00 89 74.

**Eibar.** Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Harremanetarako telefonoa: 619 17 62 23.

**Eibar.** Mutila eskaintzen da kamioi, C eta garraio publikorako karnetekin. Harremanetarako telefonoa: 663 65 66 21.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Harremanetarako telefono zenbakia: 638 48 24 78.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Harremanetarako telefono zenbakia: 697 70 21 58.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da arratsaldez, gauez edo asteburuetan nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Esperientzia. Telefonoa: 662 25 21 50.

**Eibar.** Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 699 653874. Cristina.

**Eibar.** Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Deitu zenbaki honetara: 664 88 18 35.

**Eibar.** Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Telefono zenbakia: 669 96 66 11.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da astelehenetik ostegunera goizez lan egiteko (kamarera moduan, garbitzen...). Telefonoa: 680 22 33 78. Gina.

**Eibar.** Mutila eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara:608 19 84 11.

**Eibar.** Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Kontaktuan jartzekotelefono zenbakia: 680 25 05 27.

**Eibar.** Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu, pegorak garbitu edo baserrian lan egiteko. Deitu 648 196651 edo 652 04 72 23 telefonora.

**Eibar.** Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Esperientzia. Harremanetan jartzeko ditu telefono zenbakira: 608 14 75 59.

**Eibar.** Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Harremanetan jartzeko: 670 83 12 79.

**Eibar.** Gizona eskaintzen da astelehenetik ostegunera garbiketa lanetarako. Harremanetarako telefonoa: 635 04 80 37.

**Gernika-Lumo.** Erizain laguntzailea geriatrian lan bila dabil Gernika-Lumo aldean. Eskarmentu handia zaintze lanetan. Orduka zein egun osorako. Telefonoa: 645 70 40 20 (Marisa).

**Gernika-Lumo.** Txapista naiz baina edozein lanetarako prest nago. Deitu 94 625 70 80 eta 676 60 75 68 telefonoetara.

**Goierri.** 55 urteko emakume esperientziaduna eta urte askoan ohitua, arratsalde eta gauetan pertsona helduekin edozein lan egiteko eskaintzen da. Harremanetan jartzeko ditu telefono zenbakira: 663 95 73 89.

**Irura.** Giza elikadura eta dietetikan diplomatua naiz eta honekin zerikusia duen lanen baten bila nabil. Harremanetan jartzeko ditu telefono zenbakira: 697 52 20 48. Irati.

**Sakana.** Asteburuetan tabernetan edo jatetxeetan lan egiteko prest. 676 22 20 52 telefonora deitu.

**Tolosa.** 49 urteko autonomoa naiz. Nik lokala jartzen dut eta zuk ideiak edo lana baduzu harremanetan jarri mesedez. Telefonoa: 943 11 73 43

**Tolosaldea.** Emakume euskalduna, arduratsua eta esperientzia handikoa eskaintzen da egunez zein gauez adineko pertsonak edo gaixo daudenak zaintzeko. Gida baimena eta autoadut. Interesaturik egonez gero deitu lasai eguneko edozein ordutan telefono zenbaki hauetara: 943 57 74 09 edo680 24 42 81. Erreferentziak ere baditut. Posta: *mariapilargarmendia@gmail.com.*

**Tolosaldea.** Neska senegaldarra, adinekoak zaintzen lan egingo nuke, eragozpenik ez interna sartzeko. Haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko ere prest nago. Deitu 943 65 40 57 telefonora.

**Tolosaldea.** Tolosaldeko neska bat naiz eta astegunez arratsaldeetan lan egiteko prest nago, haurrak zaintzen, tabernan... Interesatuek deitu 616 07 70 06 telefonora.

## 403. BESTELAKOAK

**Zugatik egiten dut.** Denborarik ez badaukazu posta, banketxe eta abarretara joateko, nik egingo dut zugatik. Errekaduak ere bai. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 605 74 52 19 telefonora.

# 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Arrasate.** Batxilergo teknologikoko eskola partikularrak etxean emango dizkidan norbait behar dut. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 669 63 52 25 zenbakira.

**Arrasate.** Mutiko bati 6. mailako eskola partikularrak emango dizkion neska behar dugu. Eskola laguntza, etxeko lanak egin eta abarretarako. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 617 36 67 96 telefono zenbakira. Kristina.

**Baxu elektrikoko** eskola partikularrak hartuko nituzke. Bergara, Arrasate edo Eibarren. Ordubete edo pare bat ordu astean. Nerea. 652 71 74 96

**Bergara.** Batxilergoko bigarren mailako eskolak jasoko nituzke. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 686 51 07 86 zenbakira.

**Bergara.** Eskola partikularrak jasoko nituzke. DBHko 4. maila. 18:00etatik aurrera deitu. Pilar. Deitu 943 76 16 42 telefonora.

**Debagoiena.** EHUko psikopedagogia ikaslea naiz eta "Ikerketa Diseinua" ikasgairako eskola partikularrak jaso gura nituzke. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 686 20 31 35 zenbakira.

## 502. EMAN

**Arrasate.** Ingeniaritza Industriala ikasten ari naiz eta DBH, LH edo batxilergoko eskola partikularrak emango nituzke: matematika, fisika, kimika, teknologia eta abar. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 659 72 73 59 telefonora.

**Arrasate.** Neska euskalduna Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Eguerdietan deitu. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 663 04 53 99 zenbakira.

**Arrasate.** Diseinu Industrialeko ikaslea naiz eta DBHko ikasle bati eskola partikularrak emateko prest nago. Arrasaten bizi naiz eta berdin zait nire etxera etortzea edo ni ikaslearen etxera joatea. Harremanetan jartzeko ditu telefono zenbakira: 645 73 53 95.

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak emateko gertu nago. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 654 94 87 26 zenbakira.

**Bergara.** LH, DBH eta batxilergo zientifikoa dituen neska euskalduna naiz. Orain Enpresaritza ikasketak egiten ari naiz. Idurre. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 676 25 22 22 edo 943 76 03 34 zenbakietara.

**Debagoiena.** Ingelesezko nahiz euskarazko elkarrizketa saioak eskaintzen ditut (*one to one*), hizkuntza hauetan hitz egiten trebatzeko, Oñati edo Arrasaten. Deitu:656 74 29 49

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergo eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea, Matematikako klaseetan. Deitu 635 74 61 76 telefono zenbakiera edo idatzi mezu bat. *maialen.urien@hotmail.com* helbidera.

**Eibar.** LH, DBH eta Batxillergoko partikularrak emateko mutila prest. 630 81 77 87.

**Gasteiz.** Biologian lizentziatua batxillergo arteko natur zientzia eta euskara eskolak ematen ditu Gasteizen eta inguruetan. Interesa izanez gero deitu 945 56 43 83 zenbakira.

**Gernika.** Esperientziadun irakasleak talde txikitako klase partikularrak eskaintzen ditu Gernikan lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzako. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 656 77 20 12 zenbakira. Nahia.

**Gernika-Busturialdea.** Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Printzipioz Gernika inguruan, oro har, Busturialdean. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 680 53 84 42 telefonora.

**Gernika-Busturialdea.** Pandero-klaseak emango nituzte Gernika inguruan, Busturialdean. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 680 53 84 42 telefono zenbakira.

**Iruñea.** Matematika, kimika edo fisikako klase partikularrak ematen dira, Iruñean. Bakoitzaren etxean (15€ ), edo nire etxean bertan (12€ ). Idatzi helbide honetara: *aitziberarbide@hotmail.com.* Milesker!

**Lea-Artibai .** Lehen hezkuntzan diplomatua, euskalduna eta auto propioarekin. Umeak zaintzeko edota klase partikularrak emateko prest nago, esperiantzia daukat. Harremanetan jartzekotelefono zenbakia:615 72 72 86

**Oñati.** Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntzako, DBHko edo batxilergoko eskola partikularrak emateko prest nago (matematika, marrazketa, fisika eta abar). Deitu telefono zenbaki honetara:678 27 27 57

# 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Opel Corsa salgai.** Opel Corsa 1.7 D salgai. Interesatuek 696 23 74 16 telefonora deitu

**Toyota Previa** monobolumena salgai. 7 plazakoa. Oso ondo zainduta. 650 40 25 66.

# 7/ ANIMALIAK

## 701. SALDU

**Kanarioak** salgai. Interesatuek deitu 635 75 54 53 zenbakira eta galdetu Mikelengatik.

**Lau untxi** salduko nituzke. Deitu 17:30etik aurrera 665 74 91 27 telefono zenbakira.

## 703. EMAN

**Katakume** eme bat ematen da opari. Deitu 685 79 07 61 telefonora.

## 704. BESTELAKOAK

**Katua.** Urriaren 10ean katu ilegorria galdu genuen Bergarako Labegaraietan, Santa Katalina auzoan. Aiki izena du. Deitu 943 76 33 78 telefonora.

# 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Altzariak.** Dendarako altzariak saltzen ditut: mostradorea, erdiko mahai handia, bitrinak eta esekitzekoak. 627 96 19 22.

**Altzariak salgai.** Etxe aldaketagatik. Egongela, bikote logela, ordenagailu mahaia eta Fagor etxeko etxetresnak. Denak batera (prezio hobean) zein banaka. Oreretan. Informazioa eta argazkiak ikusteko idatzi mezua: *mikel_muebles@live.com* helbidera edo deitu 943 00 23 11 telefono zenbakira.

**Bideokamera.** Sanyo etxeko Xacti HD1A bideokamera salgai. Argazkiak 5mp egiteko aukeran eta bideoa HD formatuan. Txikia, oso erraza erabiltzen, egoera ederrean eta osagarri guztiekin. Bi bateria oparitzen ditut. 200 euro. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki honetara: 636 43 85 40

**Bikiendako karro-kapazoa.** Bikiendako Arrue etxeko karro-kapazoa salgai. 2008koa. Oso praktikoa eta egoera bikainean. Lasai deitu telefono honetara:649 00 53 42

**Dendako mostradorea eta hozkailua.** Dendako mostradorea eta hozkailua salgai. Harremanetan jartzeko ditu telefono zenbakira: 948 46 07 65.

**Gasolio-galdara.** Osagarri guztiekin. Roca modeloa. 20.000 kcal. 12 berogailurentzat. Baserrirako egokia. Prezio negoziagarria. Harremanetan jartzeko zenbaki hauetara deitu: 943 79 34 74 edo 616 23 81 74.

**Hiztegia.** *Lur hiztegi entziklopedikoa* salgai. 350 euro. Ondo zainduta, ia-ia erabili barik. 625 83 84 13

**Ibilzeko zinta elektrikoa.** Domyos etxekoa. Lau programa ezberdinekin. Berria. 270 euro. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 652 76 25 41 telefonora.

**Ilepaindegiko altzariak.** Ileapaindegiko altzariak salgai. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 615 70 01 84 zenbakira.

**Kapazoa.** Bebe-car kapazoa eta aulkiaa salgai. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 616 80 13 04.

**Kuma eta mini-kuma.** Stokke kuma eta mini-kuma moldagarria salgai; 2 koltxoi, eltxo-sarea eta izarak barne. 0 hilabetetik 5-6 urtera arte moldatzen da, egoera oso onean. Prezioa 330 euro. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik deitu 639-02 02 75 edo 943 76 55 88 telefono zenbakietara.

**Liburuak.** Liburu zaharrak. 1953. urteko liburuak saltzen ditut. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 696 84 19 51 zenbakira.

**Masaje aparatua.** Hankak urarekin masajeatzeko aparatu elektrikoa salgai. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 608 36 26 07

**Monozikloa saltzen dut.** Monty etxekoa. Pare bat aldiz bakarrik erabilia, berria. 100 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 605 73 07 77

**Patinetea.** Umeen karrorako patinete unibertsala salgai. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 650 96 23 08

**Pedalera.** Gitarra akustikorako pedalera salgai. Erdi prezioan. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 943 77 19 20

**PlayStation 2 saltzen dut.** 50 joko, memoria-txartela eta urrutiko-kontrolarekin. 150 euro. Telefonoa:659 68 06 06

**Routerra.** Haririk gabeko routerra salgai. Telefonicako Amper Zyxelarekin batera. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 608 36 26 07

**Sofa-ohea.** Kanpoko neurriak 1,97 x 91 x 92 eta oheak 1,40 x 1,90. Mugimendu bakarrean irekitzekoa. Urdina eta oso gutxi erabilia. 500 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 616 09 46 34

**Su egurra salgai.** Su egurra salgai. 20,30 eta 40 zentimetrotara moztua. Etxera eramaten dugu. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 615 75 57 62

**Telefono mugikorra salgai.** Nokia 6124. Vodafone etxekoa. 30 euro. 617 13 17 51

## 802. EROSI

**Bankuko billete eta txanponak erosten ditut.** Bankuko billete eta txanponak erosten ditut. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 688 61 85 02

**Klarinetea.** Debagoiena. Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke. Zuriñe. 627 22 45 79.

**Lur saila Oñatin.** Oñatin lur saila erosi edo alokatuko nuke. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara:609 11 72 96

**Lursaila erosiko nuke Goierri inguruan.** Lursaila erosiko nuke Goierri inguruan. Eraikigarria edo ez eraikigarria izan daiteke. Harremanetan jartzeko deitu 634 46 41 69 telefono zenbakira.

**Tintin-en euskarazko komikiak.** Tintin-en euskarazko komikiak erosiko nituzke. Prezioa adosteko. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 94 460 74 44. Getxo.

**Zilarra** erosiko nuke. Saltzeko badaukazu, deitu zenbaki honetara: 656 75 76 98.

## 806. GALDU

**Giltza sorta Arbizun.** Giltza sorta bat galdu nuen orain dela bi aste Arbizun. Larruzko giltzari bat du. Aurkitu duenak dei dezala 667 26 67 46 telefonora.

**Haurren haize babeslea Etxarrin.** Euskal Selekzioko haize babesle beltza, forro polar antzekoa galdu zen Etxarrin. Beltza, haurrena, 8. tailakoa. Deitu 609 88 34 10 telefonora.

**Jertsea.** Neskatilaren jertsea galdu nuen urriaren 9an Arrasaten, Iturriotz eta Erdiko kale inguruan. Grisa da eta 3 Pommes etxekoa. Aurkitu baduzue deitu mesedez telefono zenbaki honetara: 649 05 39 68

**Mendiko bizikleta Arbizun.** Mendiko bizikleta bat galdu zen Nafarroa Oinez egunean Arbizuko Kale Nagusian 19:00ak aldera. Argia, 24 pulgadetakoa eta beltza. Deitu 626 75 19 19 telefono zenbakira eta Martinengatik galdetu.

**Neskatilaren jertsea.** Neskatilaren jertsea galdu nuen urriaren 10ean Arrasaten, Erdiko kale eta San Andres artean. Berde iluna da eta IKKS etxekoa. Mariasun. Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara: 676 03 22 71

**Urrezko pultsera.** Urrezko pultsera bat galdu nuen joan zen astean. Deitu 620 26 80 60 telefonora.

**Urriaren 12an Nintendo Ds grisa galdu zen.** Urriaren 12an Nintendo Ds grisa galdu zen Zarautzen, bere babes poltsa urdinean zegoen, joko eta guzti. Aurkitu baduzue mesedez 685 71 75 62 telefonora deitu..

## 807. AURKITU

**Loteria txartela.** Gabonetako loteria txartel bat aurkitu dut. Galdu duenak dei diezadala. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 943 76 26 57 zenbakira.

**Sudadera.** Irailaren 27ko bolo txapelketa bukatu ondoren sudadera bat aurkitu nuen, norbaitek ahaztuta. Jabeak Kurtze Baltz elkartean berreskura dezake, astegunetan 20:00 aldera. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 943 78 14 21 edo 943 53 42 13 telefono zenbakietara.

# 9/ HARREMANAK

## 902. HARREMANAK

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. Idatzi mezu bat *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com* e-postara.

**Mutil bila.** 40 urteko mutil bat naiz eta beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke. Ahal balitz, gazteagoarekin. Asmo bera baduzu, bidali SMS bat hona. Nire aldetik, diskrezio osoa. 665 75 58 74

**Neska bila.** Kaixo! Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako.*mgpelmaz@gmail.com*

## 902. HARREMANAK

**Oñati-Gasteiz.** Oñati-Gasteiz. Egunero Oñatitik Gasteizera joaten naiz. Lakuan lan egiten dut. 635 20 33 14

Etxebila higiezinak
9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

**ANTIGUO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 31.050.000
**EGIA** Ametzagaña. Hasieran. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Igogailua. 36.950.000
**AMARA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 38.625.000
**AMARA** Apartamentu polita. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Argitsua. 39.900.000
**AMARA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Altua. 43.500.000
**AMARA** 100m2. 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 58.000.000
**AMARA** 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Berritua. 41.500.000
**AMARA** Atikoa. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 39.950.000
**GROS** Txofre k/. 9 urtetako apartamentua. Igogailua. Berria. 49.750.000
**INTXAURRONDO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Polita. 35.500.000
**LOIOLA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 24.900.000
**LOIOLA** 2 Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. Igogailua. 39.500.000
**MARTUTENE** Balkoia. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 34.300.000
**ALZA** 3 logela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 28.950.000
**LEZO** 75m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Eguzkitsua. 32.000.000
**LASARTE** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 32.950.000
**PASAI ANTXO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 25.950.000
**PASAI DONIBANE** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Polita. 25.950.000
**ERRENTERIA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Oso polita. 36.900.000
**HERNANI** 2 Atikoa herri erdian. Igogailua. Berritzeko. 21.000.000 bakoitza.

**ALOKAIRUAN**
**ALTO ERRONDO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Bistak. 850€

www.etxebila.net
www.etxebizitza.iragarkilaburrak.com
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 4 | | | 7 | | 2 | | |
| | | | 2 | 5 | | | | |
| | 2 | | | | 6 | | 8 | |
| 3 | 9 | 8 | 5 | | | | | |
| 7 | | 5 | | | 2 | 6 | 3 | |
| | | | | 3 | | | 7 | 8 |
| 8 | | | 3 | | 4 | | 9 | |
| | 3 | | | | | | | 2 |
| | | | 6 | | 5 | 4 | | 3 |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | Legarrez betea / Herri baxe-nafarra | | GOITB-ko saioa / Sumendien gaia | | Pl., haizeak jotako alde / Fabrika | |
| | | | | | | | | |
| | | | Aro, aldi / Infusio mota | | | | | |
| Noka, zidan / Hiltzaile | | Irango hiria / Ukimendu | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| Toka, dut / Presio unitate | | | | | Estatu Batuak / Ardi, hitz elkarketan | | | |
| | | | Arnegu / Kontso. bustia | | | | | |
| Gizon izena / Banakoak | | | | | | Jainko egiptoarra / Bokala | | |
| | | | | | | | | |

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Zenbatetan erosi zenuen?




## hizki salda

Eskoriatzako bost kaleren izenak.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | N | T | O | N | T | X | U | D |
| F | T | O | L | A | Z | A | R | R |
| X | G | M | A | Z | M | E | L | A |
| E | T | U | E | B | J | L | E | T |
| A | D | A | T | X | O | R | T | O |
| H | S | T | A | L | L | P | O | K |
| F | E | U | A | Z | A | B | K | O |
| A | T | X | O | R | R | O | T | Z |
| I | N | T | X | A | X | U | E | T |

## soluzioak





**Hieroglifoa:** Merke-merke.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 4 | 3 | 9 | 7 | 8 | 2 | 6 | 5 |
| 6 | 8 | 7 | 2 | 5 | 3 | 9 | 4 | 1 |
| 5 | 2 | 9 | 4 | 1 | 6 | 3 | 8 | 7 |
| 3 | 9 | 8 | 5 | 6 | 7 | 1 | 2 | 4 |
| 7 | 1 | 5 | 8 | 4 | 2 | 6 | 3 | 9 |
| 2 | 6 | 4 | 1 | 3 | 9 | 5 | 7 | 8 |
| 8 | 5 | 1 | 3 | 2 | 4 | 7 | 9 | 6 |
| 4 | 3 | 6 | 7 | 9 | 1 | 8 | 5 | 2 |
| 9 | 7 | 2 | 6 | 8 | 5 | 4 | 1 | 3 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | | L | | B | | H |
| | | | H | E | L | E | T | A |
| | | | | G | A | R | A | I |
| | Z | | T | A | B | R | I | Z |
| G | I | Z | E | R | A | I | L | E |
| | D | I | A | T | | A | E | B |
| B | A | R | | S | A | K | R | E |
| | A | R | T | U | R | | R | A |
| U | N | I | T | A | T | E | A | K |

## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Umeekin eta jende gaztearekin harremanetan egonda, konturatuko zara azkenaldian oso sartuta ibili zarela lan kontuetan eta gurari pertsonaletan.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Dena galtzeko beldur zara. Hori dela-eta, zure ingurukoekin menderatzailea eta posesiboa izango zara; horren ondorioz, eztabaidak eta liskarrak izango dituzu haiekin.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Zure helburuak lortzeko esfortzu ikaragarria egingo duzu, baina merezi izango du. Bestalde, osasunari kalte egingo dio esfortzu horrek.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Lanari dagokionez, aste ezin hobea: lanik ez badaukazu, laster topa dezakezu; eta lana badaukazu, nagusien oniritzia izango duzu erakundeetatik laguntzak lortzearren.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Asperraldiak, eguneroko ohikeriak, abenturarako desioak, amodioan aldaketak... Horiek guztiek ohiz kanpoko egoerak bizi izatera eraman zaitzakete.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Ez fidatu jendeak esaten dizunarekin, jarrai iezaiezu senari eta esperientziei. Horrela, etorkizunean arazo ekonomikoak ekidin ditzakezu.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Zuretako oso garrantzitsua den pertsona batekin dezepzioa izan dezakezu. Horrela ikasiko duzu ez duzula beti egin behar besteek esaten dutena edo gura dutena.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Txiki-txikitatik ezagutzen duzun pertsona batek lan-proposamenak egingo dizkizu, baina argi ibili! Une txarra ari zara pasatzen, eta hori aprobetxa dezake.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Zure ingurukoei arreta ipini; buru-belarri diharduzu zure proiektuetan, eta ez zara konturatzen gertuko emakume batek zure laguntza behar duela.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Betebehar ugari eta lana erruz. Aisialdirako astirik ez. Edozelan ere, ez zaitez kezkatu horregatik, lortuko dituzun fruituak sari ezin hobeak izango dira-eta.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Lan-egoerak hobera egingo du, eta lanik ez badaukazu, topatuko duzu eta zure gustukoa izango da, gainera. Lana edukitzekotan, kontratuan hobekuntzak izango dituzu.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Erosteko ahalmen urria daukazu; hori dela eta, oraingo lan-baldintzen gainean hausnarketa egingo duzu, aldaketaren bat eragiteko kontu horretan.

## gazte zerbitzua

### BEKAK

**> Artea.** Bilbao Arte Fundazioa. Egitasmo artistikoak egiteko diru-laguntzak. Deialdi honek edozein diziplinatako egitasmo artistikoak, indibidualak edo taldekoak aukeratzea du helburu. Epea: azaroaren 13a.

### LANA

**> Hezitzailea.** Oñatiko Gaztelekua. Haur eta gazteen dinamizaziorako pertsona behar da, esperientziaduna eta aste bukaeretan lan egiteko. *gazteinformazioa@oinati.net*

**> Sistemen arduraduna.** Pasaiako Portua. Informazio eta komunikazio sistemen arduradun postua bete nahi da. Epea: azaroaren 12an.

**> Teknikariak.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako Foru Aldundian aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko kanpainetan laguntzeko erdi mailako teknikarien lan-poltsa. Aukeraketa-prozesua zabaltzear. Epea: azaroaren 22a.

**> Lan-poltsa.** Horbel Kooperatiba Elkargoa. Horbel Kooperatiba Elkargoak kudeatzen dituen zeinbat zerbitzutan lan egiteko lan-poltsa bat osatu nahi du. (Gizarte Hezkuntza, Gizarte Lana, Irakasle ikasketak, Pedagogia, Psikologia eta Psikopedagogia perfilak).

### LEHIAKETAK

**> Argazkilaritza.** Kemen (Euskadiko Elbarri Fisikoen Elkartea). Elbarrituen Behobia I. Argazki Lehiaketa. Epea: abenduaren 8a.

**> Literatura.** Argoiak Literatur Lehiaketa. Bi kategoriatan har daiteke parte: poesia eta kontakizun laburra (euskaraz eta gaztelaniaz). Epea: abenduaren 20a.

**> Moda.** 'Saldrás en Portada' FD News VII. Lehiaketa. Parte hartzeko azalaren eta kontrazalaren hiru proposamen bidali behar dira. Epea: 2010eko urtarrilaren 11an.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 9



**> Behobia-Donostiaren laburpen zabala**
**22:15**

Behobia-Donostia herri lasterketaren laburpen zabala emango dute gaurko *Harmailatik* saioan. Irudi eta adierazpenekin.

### Martitzena, 10



**> Fran Iturbe musikaria 'Ilunpean' saioan**
**22:15**

Bide Ertzean taldearen azken diskoan parte hartu duen Fran Iturbe musikaria elkarrizketatuko du Jon Berezibarrek.

### Eguaztena, 11



**> Urbeltzen 'Axeri boda' 'Gipuzkoa kulturan'**
**22:15**

Juan Antoni Urbeltzen *Axeri boda* dantza ikuskizunari buruzko monografikoa emango dute *Gipuzkoa Kultura*-n .

### Eguena, 12



**> Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea zuzenean**
**19:45**

Lourdes Idoiaga Oñatiko alkateak kazetari eta herritarren galderak erantzungo ditu, *Alkateak zuzenean* atalean.

### Egubakoitza, 13



**> Bertsolari txapelketako finalaurrekoa**
**19:45**

Asteburuko kultur hitzorduen artean, Bergaran bihar izango den bertsolari txapelketako finalaurrekoa gogoraraziko dute.

| Astelehena, 9 | Martitzena, 10 | Eguaztena, 11 | Eguena, 12 | Egubakoitza, 13 |
|---|---|---|---|---|
| **13:15** Marrazki bizidunak. | **13:15** Marrazki bizidunak. | **13:15** Marrazki bizidunak. | **13:15** Marrazki bizidunak. | **13:15** Marrazki bizidunak . |
| **13:45** Kantari. | **13:45** Kantari. | **13:45** Kantari. | **13:45** Kantari. | **13:45** Kantari. |
| **14:15** Eltze beroa. | **14:15** On Ein. | **14:15** Udazken loreak. | **14:15** Eltze beroa. | **14:15** On ein. |
| **14:45** Berriak. | **14:45** Berriak. | **14:45** Berriak. | **14:45** Berriak. | **14:45** Berriak. |
| **15:15** Sakonduz. | **15:10** Harmailatik. | **15:10** Ilunpean. | **15:15** Gipuzkoa kultura. | **15:15** Ur eta Lur. |
| **15:45** Ikusmira. | **15:50** Ikusten. | **15:50** Sakonduz. | **15:45** Kalekantoi. | **15:45** Itsasoari begira. |
| **16:15** 28 Klip. | **16:20** Itsasoari begira. | **16:20** 28 Klip. | **16:15** Ikusmira. | **16:15** Ikusten. |
| **16:45** Berriak. | **16:45** Berriak. | **16:45** Berriak. | **16:45** Berriak. | **16:45** Berriak. |
| **17:15** Marrazki bizidunak. | **17:10** Marrazki bizidunak. | **17:15** Marrazki bizidunak. | **17:15** Marrazki bizidunak. | **17:15** Marrazki bizidunak. |
| **17:45** Kalekantoi. | **17:35** Wazemank. | **17:35** Harmailatik. | **18:00** Sakonduz. | **18:00** Ilunpean. |
| **18:15** Ilunpean. | **18:15** Gipuzkoakultura. | **18:15** Ur eta lur. | **18:45** Berriak. | **18:45** Berriak. |
| **18:45** Berriak. | **18:45** Berriak. | **18:45** Berriak. | **19:15** Marrazki bizidunak. | **19:15** Marrazki bizidunak. |
| **19:15** Marrazki bizidunak. | **19:15** Marrazki bizidunak. | **19:15** Marrazki bizidunak. | **19:45** Goiena Magazinea. | **19:45** Goiena Magazinea. |
| **19:45** Goiena Magazinea. | **19:45** Goiena Magazinea. | **19:45** Goiena Magazinea. | **20:45** Kantari. | **20:45** Kantari. |
| **20:45** Kantari. | **20:45** Kantari. | **20:45** Kantari. | **21:15** Goiena Magazinea. | **21:15** Goiena Magazinea. |
| **21:15** Goiena Magazinea. | **21:15** Goiena Magazinea. | **21:15** Goiena Magazinea. | **22:15** Puntuz Puntu. | **22:15** Sakonduz. |
| **22:15** Harmailatik. | **22:15** Ilunpean. | **22:15** GipuzkoaKultura. | **22:45** Erreportajea. | **22:45** Udazken loreak. |
| **23:00** Gipuzkoakultura. | **23:00** Wazemank. | **23:00** Kalekantoi. | **23:20** Itsasoari begira | **23:15** Kale kantoi. |
| **23:30** Goiena Magazinea. | **23:30** Goiena Magazinea. | **23:45** Goiena Magazinea. | **23:45** Goiena Magazinea. | **23:45** Magazinea |
| **00:30** Emisio amaiera. | **00:30** Emisio amaiera. | **00:45** Emisio amaiera. | **00:45** Emisio amaiera. | **00:45** Emisio amaiera. |

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Antzinako bataioak eta herriko medikua**
10:30

Antzinako bataioak nolakoak ziren eta lehengo herriko medikuekin herritarrek zuten harremana kontatuko dituzte gaur *Ahotsak* irratsaioko protagonistek. Bestalde, Gose taldeko kideekin ere hitz egingo dute *Igo Autobusera*-ko esatariek astean zehar, Japoniako esperientzia zuzenean ezagutzeko.

**Astelehenetik egubakoitzera**

**10:00-12:00** Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* )
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Uda Giroan
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

## telealbisteak

> TELEBISTA

### Itzalaldi analogikoa noiz izango den eta gero telebista nola ikusiko den azalduko dute 'Magazinea'n

Itzalaldi analogikoaz hitz egingo dute datorren eguaztenean, azaroak 11, *Goiena Magazinea*-n. Hain zuzen ere, itzalaldi analogikoa gure bailaran noiz egingo den eta hortik aurrera telebista nola ikusiko dugun azalduko dute. Lurreko Telebista Digitala ikusteko etxeko aparailuari zer aldaketa egin behar diogun edo bizilagunen atarian zerbait egin behar den edo ez ere azalduko dute.

Itzalaldi analogikoaz eta Lurreko Telebista Digitalaz hitz egiteko, Iñaki Nafarrete aramaioarra etorriko da GOITBko estudiora. Nafarrete Arabako Adundiko Lurralde Orekako zuzendaria da. Araban, Araian eta Aramaion izan ezik, urriaren 30ean burutu zen itzaldi analogikoa.

> TELEBISTA

### Berlingo harresia bota zuteneko 20. urteurrena gogoratzeko programa bereziak egin dituzte

Gaur 20 urte, 1989ko azaroaren 9an, eman zuenAlemania Errepublika Demokratikoko ordezkari batek berria: egun horretatik aurrera posible izango zen Alemania batetik bestera pasatzea inongo baldintzarik gabe.

Urteurren horren harira, programa bereziak prestatu dituzte telebista kate gehienek. Gaurko albistegietan, esaterako, aipamen berezia egingo diote telebista kate batek baino gehiagok gertaera horri. Cuatroko *Callejeros Viajeros* programa ere Berlinen egingo dute. Bihar, martitzena, berriz, La2 kateko *Documentos TV* programak *Berlin, 20 urte ondoren* izeneko dokumentala emango du.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

**PLANETARIUM**

**Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak.**
Saioak:
Asteartetik ostiralera: 17:30 (eusk.) eta 18:00 (gazt.)
Asteburu eta jai-egunetan: 12:00(eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.), 18:00 (gazt.)

**Evoluzioa** (Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu)
**Biziaren Jatorria** (Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa)
**Infinity Express** (Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia)
**Kartoizko Suziriaren Jatorria** (Haurrei zuzendutako saioa)
**Donostiatik zerura begira** (Zuzeneko saioa. Ikas ezazu gurekin zeruko objektuak ezagutzen eta disfruta ezazu Astronomiaz)
**Itsua izar begiekin** (Ipuin animatu bat, non itsu batek eta tirano batek, unibertsoaren ezagupenera hurbilduko gaituzten)

**HITZALDIA:**

**Pistaz kanpoko Snowboard-a Las Leñasen (Argentina). Hezkuntza, Kirola eta Zientzia".**
Pablo eta Javier Martínez Muñoz anaien eskutik..
Azaroak 10, 19:00tan.
Newton auditorioan.
Sarrera doan, aforoa bete arte.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

**Ordutegia**
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera: 10:00-19:00
Asteburu eta jai-egunetan: 11:00-19:00

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak



BERGARA
**Irati Mujika Elkoroberezibar**
Azaroaren 2an, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen eta bereziki Anderren partetik.



ARRASATE
**Allison Garcia**
Azaroaren 3an, 9 urte. Zorionak eta mila muxu zure urtebetetzean etxeko guztien partetik, bereziki Julene, Irati eta Unaxek.



ARRASATE
**Josu Orobengoa Vitoria**
Azaroaren 3an, 3 urte. Zorionak familiakoen partetik. Maite zaitugu.



OÑATI
**Iñigo Larrea**
Azaroaren 3an, urtebetetzea. Zorionak! Ondo pasatu eguna eta urte askotarako.



ARRASATE
**Yoli Matilla Urrutia**
Azaroaren 3an, 40 urte. Zorionak, *guapa*! Lau lau lau sardina bakalau. Oso ondo pasatu Eneko, Julen, aita, etxekoen eta laguntxo guztien partetik, marrubizko patxo pila-pila patata tortilla. Patxito.



OÑATI
**Asier Igartua Ramos**
Azaroaren 4an, 7 urte. Zorionak, *melokoton*! Etxekuen partetik muxu handi bat!



BERGARA
**Paul Roman Rayas**
Azaroaren 4an, 9 urte. Zorionak eta patxo handi bat Maialen, Araceli eta familiako gainontzekoen partetik.



ARETXABALETA
**Oxel Artolazabal Martinez**
Azaroaren 4an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Aupa Erreala! Ondo-ondo pasatu eguna ikastolan laguntxoekin eta asko disfrutatu! Musu handi bat etxeko guztion partetik.



ARRASATE
**Sabin Aranzabal**
Azaroaren 6an, 17 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxekoen partetik!



BERGARA
**Maddi Arando Arbelaitz**
Azaroaren 6an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik. Ondo pasatu eguna.



ARETXABALETA
**Aitor Artolazabal**
Azaroaren 7an, 38 urte. Zorionak, aitatxo pistatxo! Disfrutatu asko eta elkarrekin poz-pozik ospatuko dugu! Patxo handi-handi bat Oxel eta Lurren partetik!



ARRASATE
**Haizea Tornay Belategi**
Azaroaren 7an, 7 urte. Zorionak, printzesa, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
**Urtzi Diaz Rivas**
Azaroaren 7an, urtebete. Zorionak, maitea. Muxu handi bat gurasoen partetik eta ez ahaztu: mundua zure eskuetan dago.



BERGARA
**June Dacosta**
Azaroaren 7an, 5 urte. Zorionak printzesa! Etxekoen guztion partez, bereziki Aitor, Miren eta Andoni. Oso ondo pasatu eguna potxola.



OÑATI
**Iraide Loiti Palacios**
Azaroaren 12an, 3 urte. Zorionak familia guztiaren partez, bihotz-bihotzez, hiru txokolatezko muxu goxoak zuretzat, poxpolintxo.



ARRASATE
**Ioana Oncala**
Azaroaren 8an, 21 urte. Zorionak, *guapisima*! Ongi etorri etxera!



OÑATI
**Amaia Igartua Urzelai**
Azaroaren 9an. Amaia Igartuari, bere 32. urtebetetzean, muxu bat emanez eta merienda goxo bat prestatzeko esanaz, etxekoak, bereziki Asier, Ander eta Naroak.



ARRASATE
**M. Feli Mondragon**
Azaroaren 9an, 37 urte. Zorionak, izeba! Ondo pasatu eta musu asko. Maddi, Aitor, Itziar eta Jokin.



BERGARA
**Ebert Sanchez**
Azaroaren 10ean, 34 urte. Zorionak, aitatxo. Primeran pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu goxo-goxo bat zure botxintxeraren partetik.



ARRASATE
**Ixiar Okina Altube**
Azaroaren 10ean, 4 urte. Zorionak amama, aitita eta Manexen partetik! Ondo pasatu eguna!



ESKORIATZA
**Iñaki Kortazar**
Azaroaren 13an, 26 urte. Urtiak aurrera doiezela! Zenbat,25? je, je! Pilo bat disfrutau 13en, zer eina badaukotzu ta! Eskoitzako lagunen eta bizkaitxar horren partetik be, urte askotarako! Patxo.



ARRASATE
**Maren Alonso Lopez**
Azaroaren 13an, 3 urte. Zorionak, poxpolintxo! Hiru urtetxo! Oso ondo pasatu eguna eta txokomarrubizko muxu pila-pila patata tortila, Beñat, aitatxo, amatxo, etxekoen eta laguntxo guztien partetik.



ARRASATE
**Naroa Kortabarria Maskariano**
Azaroaren 13an, 3 urte. Zorionak, pintzesa! Pastel goxo bat egingo degu zure urtebetzea ospatzeko. Fuerte ein putz 3 kandelei! Patxo handi bat etxeko marisorgintxoari. Aitatxo eta amatxok.



ARRASATE
**Arrate Bergaretxe Astigarraga**
Azaroaren 14an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat aitatxo, amatxo, amama, aittitta, lehengusina eta izeba-osaben partetik. Ondo pasatu eguna.



BERGARA
**Irati Olabarria Lazkano**
Azaroaren 15ean, 8 urte. Zorionak etxeko denen partetik eta bereziki zure ahizpa Eiderrek.



ARRASATE
**Antonio Murillo**
Azaroaren 4an, urtebetetzea. Zorixonak eta urte askotarako. Antonio Kajoinekua.



ARRASATE
**Irati Gallardo**
Azaroaren 4an, 7 urte. Zorionak eta muxu bat aitatxo eta amatxoren partetik.

## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera.
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratuko ditugu.
Ordu horretatik aurrera jasotakoak hurrengo astean aterako ditugu.



BERGARA
**Unai Zubizarrreta**
Azaroaren 11n, Osintxuko Unai Zubizarretak 11 urte beteko ditu. Zorionak eta urte askotarako.



ARRASATE
**Alaitz Ormaetxea Heriz**
Azaroaren 11n, 4 urte. Zorionak, *potxola*! Patxo handi bat eta ondo pasatu!

## kuxkuxeroa



Maider Arregi

# Tradiziñuak zaindduz eta manteniuaz

Politta da ikustia bertsolaritzak eta pelotak nola hartu dauen inddarra. Zalantza barik, gaztien errelebua allegau da eta pozgarrixa da! ***Irujomania*** edo **Lujanbiomaniak** esaterako, asko inddau. **Labegaraietara**, gazte asko gerturatu zan; asko bertsolari generaziño berrixan jarraitzailiak. Penia **200 lagun** inguru sarrera barik kanpuan geatu izana. **Fermin Etxegoienekin** ados nau. Berak esaten dauen moura "gaztiek arrazoia dakoi". Izan be, itten daueiña zerbaitteatik itten daue, beti dau arrazoi bat gaztion jarrerian atzian. Ta kasu honetan euskal ohitturia eta kulturia inddarketako bada, hobe! Tradiziñuakin jarraittuz, aipagarrixa benetan, **San Martin Agirre** eskolian **Gaztainerre Eguna**. Danboliñan ohitturia urtero berreskuraketan daue eta gure baserrittan gaztañak nola erretzen zian erakusten xaue ixa 500 ikaslei. Hori bai **master class**!

**"Txondorra itteko asmotan omen dabiltz Arantzazuko Sevilla eta Bixente baserrittarrak"**

Arantzazuko **Sevilla** eta **Bixente** baserrittarrek, txondorra itteko asmotan dabiltzala komentau doztai. Hori bai dala tradiziño zaharrak berreskuraketako eskola onena! Aber abixaitten doztaiñ ta GOITB bialketako aukeria dakun, aspaldi ez du-eta holakoik ikusi Debagoienian eta momentu hori *in-mortalizaittia* merezi dau!

## HARTU PARTE!

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: *astelehena@goiena.com*

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## asteburuko albuma



**Xake txapelketa.** Oñatiko gaztelekuak antolatuta, 15. Xake txapelketa egin zuten zapatu goizean. 35 parte-hartzailek gogor astindu zituzten burmuinak. Lehia biziaren ostean, irabazlea Aitor Alcaide aretxabaletarra izan zen. Oñatiko sariei dagokienez, lehena, Diksan Leonard izan zen; eta gazteen mailan, Mikel Egañarendako izan zen saria. Gaztelekuko arduradunen arabera, parte-hartzea gora doa urtetik urtera. Aurten, iaz baino lau lagun gehiagok esku hartu du. Xake lehiaketa gaztelekuko *klasiko* bat bilakatu da.




**Antzezlana Zabalotegin.** Zurrunka taldearen *Karakolaren gaua* antzezlanak barre algara ederrak eragin zizkien bariku gauean Zabalotegi aretora gerturatu ziren guztiei. Mugimenduak eta musika dira emanaldiaren gakoa; alegia, clown eta mimo emanaldia dela azpimarratzen dute aktoreek.

Eñaut Gorbea gasteiztarra eta Ander Arrieta aguraindarra dira antzezlaneko aktore bakarrak. Biek ala biek, esperientzia handia dute antzerki, txotxongilo eta clown munduan. Barre eragiten maisu direla esan daiteke.



**Perkusioa Gure Lekun.** Zapatu arratsaldean perkusio talde batek erritmo dantzagarriak eta biziak eraman zituen Arrasateko kaleetara. Ikasle Egunaren barruan antolatutako ekintza izanik, makina bat ikasle jarri zituen dantzan hotzari eta euriari aurre eginez. Baina ikasleak ez zirenak ere animatu ziren eta Gure Leku tabernan sekulako dantzaldia egin zuten askok.

## jaiotakoak



**Olatz Amiano Urizar**
Arrasate > 3,500 kilo. Gurasoak: Aitziber (Aramaio) eta Xabat (Arrasate). Argazkian, Olatz jaioberria, Marije amonarekin.



**Eneko Zugasti Herrera**
Aretxabaleta > 4,220 kilo. Azaroaren 3an. Gurasoak: Silvia (Aretxabaleta) eta Jon Ander (Aretxabaleta). Argazkian, Eneko jaioberria, sehaskan lo.



**Laia Torres Rodriguez**
Antzuola > 3,360 kilo. Azaroaren 1ean. Gurasoak: Sonia (Antzuola) eta Oskar (Antzuola). Argazkian, Laia jaioberria, amarekin.



**Ane Aguilar Olabe**
Aretxabaleta > 3,270 kilo. Azaroaren 5ean. Gurasoak: Alaitz (Aretxabaletan) eta Antonio (Utrera). Argazkian, Ane jaioberria, amaren altzoan.

BABESLEA




Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ASTELEHENEKO Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2009-11-09

**Fran Iturbe** > Musikaria

# "Orduak sartzea: beste sekreturik ez dago"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

**Etxean, Bergarako, Zabalotegi aretoan, izan ditugu Iturbe bera eta Bide Ertzeaneko lagunak astebururuan. Kontzertu berezia, hamar urteko ospakizun batek merezi duen modukoa. Gitarra jotzaile estimatua dugu bai gurean zein mugez kanpo Iturbe. Mila saltsatan eta beste hainbeste proiektutan sartuta dabil eta Los Angeles aldean ere lanpetuta dihardu.**

**Zein proiektutan zaude murgilduta une honetan?**

Los Angelesen bizi naiz eta hango jendearekin nabil lanean. Hemen egiten nuen ia gauza bera egiten dut han, baina agian pittin bat dibertsifikatuago. Grabaketa gehiago nabil egiten eta baita ere gehiago konposatzen. Kantak eskatzen dizkidaten artista asko daude han, eta beste musikari batzuekin lanean dihardut. Aukera asko daude Los Angelesen, ze han benetako industria bat dago.

**Eta aurkikuntzarik egin duzu?**

Mutil batekin nabil orain lanean, bere izena Cuevo da eta hortxe gaude. Zeresana emango du, horrek zerbait egingo du.

**Sekula ere ez zara bereziki Euskal Herriko musikaren zale izan, ezta?**

Agian liteke betidanik entzun izan dudala kanpoko musika, baina hemen oso musikari onak ditugu. Garirekin, Juan Carlos Perezekin eta Bide Ertzeanekin jo dut, besteak beste, eta puntako musikariak dira.

**Zelan erakarri zintuen hainbeste gitarrak?**

13 urterekin hasi nintzen jotzen. Eskolako lagun bat Ingalaterrara joan zen ingelesa ikastera eta handik bi gitarra ekarri zituen. Ordurako oso "Beatles zaletuta" geunden eta beste barik jotzen hasi ginen; orduak sartu eta sartu. Beste sekreturik ez dago gitarra ondo jotzeko: ilusioa eta orduak.

**Nahiko modu bitxian hasi zinen jotzen gainera.**

Hala da, altzoan hartzen nuen gitarra eta hatzamar potoloarekin jotzen nuen. Gogoan daukat nola arrebak ez zidan uzten, errieta egiten zidan hala ez zela jotzen esanez eta gitarra kendu egiten zidan, berea zelako. Jarrera arraro horretan ikasi nuen Deep Purple-en *Smoke on the Water* jotzen.

**Oso ipurterrea izan zara beti, ezta?**

19 urterekin etxetik irten eta bizitzak eraman nau batetik bestera. Momentuan egin nuena egin eta batetik bestera ibili naiz, orain AEBetara iritsi arte. Orain Los Angelesen nago.

### TEST-A

**Jaioterria:** Bergara. **Adina:** 43 urte.
**Birarekin Bide Ertzeanek agur?** Aurrera jarraituko dugu. Dagoeneko abesti berriak eta guzti ditugu. **Ze musika talde entzuten zenituen gaztetan?** Sekula ere ez naiz fanatikoa izan baina The Who, Elvis Costello, Beatles, Rolling... horiek tipikoak entzuten genituen. **Jotako talde guztietatik kuttunena?** Oso oroitzapen onak ditut Gozategikoekin jotzen nuen garaitik, berezia da.



**DISKOAK** Iturberen diskografia ia kontaezina da. JON BEREZIBAR

## ai, ene!



### Teknologia begi bistan

USB memoria dakarten eguzkitako betaurrekoak; horixe da Calvin Klein markak asmatu berri duen azken bitxikeria. Argazkiak edo audio zein bestelako artxiboak gainean eraman nahi dutenendako modelo egokia eta modernoa.

http://tinyurl.com/ycokbvh

## biharamuna

Oier Bolibar

### Beherapenak

Ez dakit jada udazken zein neguko arroperi dagozkien denboraldiko beherapenak jarri dituzten. Agian goiz izango da oraindik. Ohituak gaude, urte berriarekin batera. Errege egun ostean Londoneko Harrod's denda ospetsutako ateetan izugarrizko ilarak ikusten. Lehen ekis balio zuenak, orain erdi preziora jaitsita erosi nahi dutenen borroka eta korrikaldiak ia zuzenean jarrai ditzakegu telebistaz. Hala ere, ez dakit tradizio bilakatu den gertakari hau, aurten aurreratu eta gabonak aurretik ikusteko aukerarik izango dugun. Egia esan behar badut, ez diot erreparatu gure kaleetan dendek jada beherapenak aurreratu dituzten ala ez. Baina gogoan dut aurreko denboraldiko beherapenak ere aurreratu egin zituztela krisiaren ondorioz, aurreikusten zituzten salmenten jaitsiera baretze aldera.

Guri, Jardunera iritsi zaizkigu. 2009. urterako onartutako aurrekontuan %10-eko jaitsiera ezarri digute, aurrekontuaren %80a baino gehiago exekutatuta genuenean. Azken uneko zuzenketak. Eta hau gutxi balitz, hurrengo ekitaldiari dagozkion beherapenak urte berriarekin batera datoz. Udaletxea beherapenetan dago.



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +11 | +8 |

Euri kontuekin hasiko dugu astea. Hala ere, arratsalde partean atertze eta argitze aldera egingo du. Fresko jarraituko du.

www.euskalmet.net




Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) I BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) I BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) I HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) I ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) I KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) I MILAI
Nirekin (Gozategi) I GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) I HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) I TXANPON
Himnoak
Eibar I EIBAR
Athletic Club I BILBAO
Osasuna I OSASUNA
Reala I REAL
Real Union I UNION
Herrikoiak
Bagare I BAGARE
Desde Santurce a Bilbao I DESDE
Ikusi Mendizaleak I MENDI
Pintxo-pintxo I PINTXO
San Simon eta San Judas I SAN
Jaietakoak
Artillero dale fuego I ARTILLERO
Marijaia (Kepa Junkera) I JAIA
San Fermin I FERMIN
San Martzialetako alardea I SAN MARTZIAL
Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) I SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) I BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) I BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) I BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) I EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) I EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) I EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) I POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) I FURRA

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
1,2,3,4...Real!! I REAL
Alboka I ALBOKA
Athletic Iuep!! I IEUP
Buztan bertsoa I BERTSO
Hartu...Aitaren ta semea.. I AITAREN
Hartu...Ansar I ANSAR
Hartu...Argentinarra I ARGEN
Hartu...Mexikarra I MEXIKO
Hartu...Miamol! I MIAMOL
Independentzia! I INDEPEN
Irrintzia I IRRINTZI
Jotake irabazi arte! I JOTAKE
Milazu! (pilota) I MILAZU
Suprinua I SUPRINU
Tobera I TOBERA
Txalaparta I TXALA
Txanbela I TXANBERA
Txoootx I TXOTX

LOGOAK (SMS 1)
KODEA
IKURRI4 ADARIAK MUSKARIA EGUZKILORE1
EH1 BABAK KALABERA1 EGUZKILORE2
BILBO BERAKATZAK POPATIK EGUZKILORE3

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN www.smsoinu.com